

ttipi-ttapa



UDALAK EKAINAREN 17AN OSATUKO DITUZTE

Arantzan, Areson, Eratsunen, Urrozen, Zubietan eta Narbarteko kontzejuan ez denez zerrendarik aurkeztu, sei hilabeteren buruan izanen dute bigarren deialdia. Kontsultatu herriz herriko emaitzak. / 29

Baztan herri hezitzailea izan dadin

Herri hezitzaileen izaeran sakontzeko, Baztango Udalak, ikastetxeek, guraso elkarteek eta kirol eta kultur elkarteek bat egin dute. / 46



Arabiar arrazako behor eta zaldiekin hainbat sari irabazi ditu Asier Goñik / 8



ATARIA

'Euskal pilota' liburua argitaratu du Tiburtzio Arraztoak / 10



Saioa San Miguel lasterkari gaztearekin kontu kontari / 22



Julian Zabaleta Leitzako Aurrera elkarteko lehendakaria da / 40



BATU ZAITEZ ORGANIKOAREN ERRONKARA

RECOGE EL GUAÑTE, SEPARA LA ORGÁNICA

MAIATZAREN 2TIK UZTAILAREN 1ERA
DEL 2 MAYO AL 1 JULIO



Illustration by Pablo Marquez from Ouch!

Lehiatu zure Mankomunitateko herriein hondakin organiko gehien biltzeko eta irabazi birziklatutako materialarekin egindako altzariak zure herriarentzat. #separalaorganica

Compite con los pueblos de tu Mancomunidad por recoger la mayor cantidad de residuos orgánicos y gana mobiliario de material reciclado para tu localidad. #separalaorgánica





NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

M28

Hau idazten ari naizen unean, «udal eta foru hauteskundeak datozen honetan» diot. Aldizkaria zuen etxeetara iristen denarako, «udal eta foru hauteskundeak igaro berri diren honetan» esan beharko nuke. Zaila zait igaro ez den zerbaiti buruz iraganean hitz egitea, ez naiz politikoa. Ez dakit Iruñeko Udalean zer gertatu den, ezta lehendakaria aldatu ote zaigun ere. Horrez gain, bi gauza azpimarratu nahiko nituzke. Lehena, absentismoa bultzatzen duten iraultzaileentzat. Diskurtso denek ez dute balio. Herri eta auzoetan egiten den lan nekaezin eta boluntarioagatik izanen ez balitz, ez dakit non biziko ote ginatkeen. Gauza bat da sua piztea eta bestea kea saltzea. Iraultzaile zarena esatea erraza da, aldaketak eragiteko lan egitea iraultzaile izatea da. Bigarrena, herritarrentzat, oro har. Hauteskundeek garrantzia dute, noski. Batez ere, hor egoteko, bozkak, eserlekuak eta pertsonak behar direlako. Halere, hauteskundeen ondoren egiten den horretan dago ezkeriarron fokua. Telebistetak pantailatik herrietara, auzoetara, parlamentura eta herrigintzara bideratuko ditugu guk indarrak. Baina horretarako, denon beharra dago.

«GAUZA BAT DA SUA PIZTEA ETA BESTEA KEA SALTZEA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Euritan dantzan

Sua eta ura belauen azpitik dio erranak eta errealitate gordinak hori erakutsi du orain ere. Senperen Herri Urrats murriztu (ez zapuztu) eta astebetera euria eta lohia ezusteko bisitari izan dituzte Berako karriketan, uholdea gonbidatu gabeko apopilo gosetua Lesakako Bittiriko etxeetan eta Aranoko bideetan. *Ekaitzaren ondotik dator auzolana.*

NABARMENTZEKOAK



NEREA
ORDOKI
IKASLEA



HODEI
LUJANBIO
KORRIKALARIA

Nerea Ordoki lesakarrak eskuratu du Lesakako Udalak ematen duen ikasketa bukaerako beka. Haur hezkuntzako gradua ikasten ari da Ordoki, eta 500 euroko saria jasoko du.

Goizutrail, bere herriko lasterketa irabazi berri du Hodei Lujanbio korrikalariak. Sasoi ederrean dagoela erakutsiz, 25 kilometroko lasterketan lehen postua lortu zuen. Zorionak!

GIBELERA BEGIRA



2013-05-30 · TTIPI-TTAPA · 591 zk.

Arantzako eskolaren mendeurrenaz

Arantzako eskolaren mendeurrena izan zuen gai duela 10 urte TTIPI-TTAPA aldizkariak. Juanita Larralde Arantzako eskolan 37 urtez irakasle izandakoarekin solastatu zen aldizkaria, eskolaren historiaren eta egoeraren berri izateko. 100 urte gibelera eginda, bi ikasgelatan banatuta 111 ikasle zirela kontatu zuen Larraldek, eta herritarren eta baserritarren arteko aldea izaten zela. Ekainaren 8rako besta antolatua zuten Arantzan, eta horri buruz ere mintzatu zen: «Herritarrak ilusio haundiarekin ari gara ekainaren 8ko besta prestatzen. Arantzar guztien besta izanen da eta jendea animatzea nahi dugu. Egun horretan, denok zerbait berezia sentituko dugu, gure bizipenak hor agertuko direlako».



erran. eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 45€
eta Malerrekako 36€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€





KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

**-Politika pitta bat?
-Bai, esker mila.**

Maiatz hasmenta da eta ekaineko TTIPI-TTAPAN argitaratzeko testu bat eskatu didate. Bertze gai bat nuen burutan, baina hauteskunde giro honetan, bertze konturik ez dagoenez... Nik ere nire iritzi(politiko)a emanen dut. Denek bai baitugu iritziren bat politikar(i)en kontu: politikaz entendentzen ez duela diotenak ere, iritzia ematen du, eskuina eta ezkerria denak igualak direla diotenak ere, iritzia ematen du, apolitikoa dela diotenak ere, iritzi politikoa bat badu...

Denek dugu iritzia politika kontu, dena baita politika. Uste dugun ttikeriarik handienak ere politikariek hartutako neurrien ondorio dira. Politikaz entendentzen ez duela diotenak, egunero hartzen ditu erabaki politikoak. Ez eskuina, ez ezkerria dela diotenak ere, ustezko neutraltasun baten izenean, bere posizioa erakusten du. Gatazka batean «neutrala» izatea, zapaltzailearen alde egitea baita. Ustez deus egiten ez duenak ere, aunitz egiten baitu.

Eguneroko jana, ura, argia, gasa, arropa, errepideak, zaborra, autoak, lan baldintzak... politika jakin baten ondorio dira. Mandatuak herriko denda ttipian edo supermerkatuan egin erabakitzea, erabaki politiko bat da. Mandatuak egitean erosten ditugun produktuek duten BEZa,

**«POLITIKA EZ DA
ALDERDI BATI
BOZKA EMATEA
BAKARRIK...»**

erabaki politiko baten ondorio dira. Xatarrak edo konpresak luxuzko artikulua edo oinarritzko artikulua izendatzea, erabaki politiko da. Eskoletan dauden ikasleen ratioak, irakasle kopurua, curriculum, ikasgaiak, bekak, garraioa, jangela, jangeletan jaten dena... guzti-guztia politika baten ondorio dira. Eskola politikarekin ez nahasteko diotenek ez dakit jakinen ote duten (Españiar estatuan bederen) gobernua aldatu aldiro aldatzen den lehenbiziko legea hezkuntzarena izaten dela: LOE, LOGSE, LOMCE, LOMLOE... politikariek horrelako garrantzia ematen dioteneko, guk uste duguna baino inportanteagoa eta politikoagoa izan da hezkuntza.

Hezkuntza eta hizkuntza uztarri berean doaz, hori aski ongi dakigu Nafarroan: A,B,D,G,PAI... Politika(rie)k sortutako hezkuntza eredu horien guztien oinarrian, hizkuntza dago. Hizkuntza politikarekin ez nahasteko diotenak, ez dakit jakinen duen hizkuntza baino arma politikoagorik ez dagoela. Uneoro ari baikara hizkuntza politika egiten, euskaraz ari garelarik, eta euskaraz ari ez garelarik ere.

Dena da politika. Politika ez baita bakarrik lau urtean behin alderdi politiko bati bozka ematea, egunerokoan egiten ditugun ekintza ttipien gibelean erabaki politiko bat dago, eta egunerokoan egiten ditugun ekintza ttipienek ere, ondorio politiko bat dute.



MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

**Proiektu txikitzaileak eta txikitu
behar diren gorputzak**

Idazten ari naizena baino egun bat lehenago elkartu ziren ehunka lagun Gasteizen, maiatzaren 20an, *Lurraren defentsan Euskal Herria Bizirik* lemapean. Izan ere, proiektu txikitzaile berrien olatu berria etorri da gurera, aurretik zer eramanen duen batere inporta gabe.

Atxikimendu ugari izan zituen mobilizazioak, gaiak sortzen duen ezinegonaren eta jada han eta hemen existitzen diren eragile eta antolakuntzaren seinale. Poztekoa. Atxikimendu ugari izan ditu etzi Bilbon eginen den Munduko Bankuaren konferentziaren aurkako plataformak ere (*Munduko Bankuari Ez!*).

«Krisi klimakoari aurre egiteko beharrak eta inbertsio aukerak elkar lotzeko helburuz, mundu osoko herrialdeetako agintariak eta inbertsio funtsen zein enpresa teknologiko pribatuen nagusiak bilduko» dira BECen. Energia berriztagarriak, ekonomia berdea, trantsizio ekologikoa... bezalako mozorro-hitzekin saldu nahi digute agintariek konponduko dutela arazoa.

Kapitalismoak aurrera egiteko gehiago, gehiago eta gehiago behar duela jakina da, ordea: lehenagai gehiago, baliabide natural gehiago eta ezinbestean, proiektu txikitzaile gehiago.

**«PROIEKTU
TXIKITZAILEA BERE
HORRETAN
KAPITALISMOA DA»**

Etxeberritik Lekunberriko poligonoraino eraiki nahi duten gasbidea. Goizueta, Arano eta Hernani artean, parke eolikoa. Malerrekan ere parke eolikoa. Arantza, Igantzi, Sunbilla eta Etxalarko lurretan, berdina. Erdizko aire zabalean, Magnaren meategia. Eguzki poligono erraldoiak Erreniega mendilerroaren inguruan eta Erriberrin. Kaparrosoko makrogranja. AHTa...

Proiektu txikitzaile horien erro komuna identifikatuta, borroka bakoitzaren potentzialitatea biderkatzen da. Han eta hemengo elkartasuna batzeko aukera irekitzen da eta kasu hauetan bat gehi bat ez da bi, askoz gehiago da. Are gehiago, antolakuntza independentea hauspotzeko aukerak biderkatzen dira, nabarmena baita dena aldatzen ez badugu galduta gaudela.

Etekin ekonomikoaren metaketa bihotz duen gizartean ezin dira gaixotasunak tiritekin konpondu. Kapitalismoaren gorputza horrela da, hainbat hanka eta beso ditu eta edozein modutara gidatuta ere gorputzak ez dio munstro izateari uzten. Bi hankak dira zuzenbidea eta politika instuzionala. Bi besoak dira polizia eta masa komunikabideak. Burua dira enpresari handiak.

Beste modu batera esanda: proiektu txikitzailea bere horretan kapitalismoa da.

Eta bai, asmatu duzu, gorputz horretan sartu beharra dago, baina ez barrutik aldatzeko, baizik eta barrutik ere suntsitzen laguntzeko, eraikiko dugun gorputz berriak kanpotik kolpatzen duen bitartean.

11 GALDERA LABUR

XABIER ORTEGO BEOLA BERAKO GAZTEA

«Ttikitatik hagitz gustukoa izan dut matematika»

Berako ikasle gaztea da Xabier Ortego Beola. Matematika du gustuko, eta 'Tornamira' Matematika Olinpiadetan parte hartu du berriki, baita emaitza ona lortu ere, txapeldun izan baitzen bere bikotekidearekin batera. Nola definituko zenuke zeure burua?

Hagitz burugogorra, langilea, hitzuna eta paizentziarik gabea.

Zein dira zure zaletasunak?

Dantza, matematika eta hizkuntzak ikastea dira nire zaletasunak.

Non ikasten ari zara?

Toki Ona ikastetxean ikasten ari naiz, DBHko 2. mailan.

'Tornamira' Matematika Olinpiadetan parte hartu duzu berriki. Nola sortu zitzaizun joateko aukera?

Nahi zuena joaten ahal zen, nik hasieran ez nuen gogo haundirik joateko, baina nire irakasleak konbentzitu ninduen.

Nolako esperientzia izan zen? Ikasle aunitz zineten?

Hagitz ongi pasatu nuen nire bikotekidearekin. 150 pertsona inguru ginen.

Zer egin behar izan zenuten proban?

Sei galderako azterketa bat egin behar izan genuen. Egia erran, zailagoa izatea espero nuen.

Txapeldun izan zinen Mattin Oiartzun bikotekidearekin batera. Espero zenuten?

Ez genuen inondik inora espero lehendabiziko hiruen artean gelditzea, eta oraindik guttiago irabaztea.



Ekainaren 23tik 26ra Tenerifenen eginen den olinpiadetan Nafarroa ordezkatu duzue. Gogotsu?

Bai, hagitz gogotsu eta kontent nago sari hau irabazteagatik eta Kanariar uhartera joateagatik.

Etorkizunean matematikarekin zerikusia duen zerbaitetan aritzea gustatuko litzaizuke?

Bai, aunitz gustatuko litzaizuke, ttikitatik matematika hagitz gustukoa izan dutelako.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Nire ikasketekin segitzea, zeintzietako batxilergoa egitea eta dantza urbanoa egiten segitzea.

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Etorkizunean unibertsitate-ra joan nahi dut, baina dudatan nago matematika, fisika eta kimika aukerekin. Horrez gain, lan bat lortu eta mundutik zehar bidaiatu nahi dut.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Berriztagarrien zurrunbiloa

JUAINAS PAUL

Egon, egonen da, baina nik ez dut berriztagarrien aurkako inor ezagutzen. Niri behinik behin aukera ez, derrigorrezko apustua iruditzen zait: egurra, ura, haizea, eguzkia, baliabide naturaletatik sortutako gasa... Neurrian. Hori da kokxa! Eta hondamendirik sortu gabe.

Zubietatik idazten dut eta hemengoa huskeriatzat har daiteke. Bost bat haize errota? Zortzi Iturenekin? Eta Labaien, Eratsun, Saldias, Arantza, Sunbilla, gehi Goizueta-Arano-Hernanikoak...? Goi Nafarroako hegoaldean gehiago dira! Erkidegoan Gipuzkoakoak daude, eta Bizkaikoak, eta zer esanik ez Araban. 110 toki apropos identifikatu omen dituzte haize errota eta eguzki plakak kokatzeko. Eta hasita, Bizkaitik Galiziako Finisterreraino mendiz mendi joan eta itsasoz etor daiteke haize errota zenbatzen. Eta Iberiar penintsulan zehar? Ui-ui-ui ama! Hainbat haize errota eta eguzki-plaka... Hemendik aurrera argindarra doanik: Kar-kar edo ja-ja!

Tresneria konplikatua eta garestia behar denez, enpresa handiak ausartzen dira, multinazionalak hobe, eta horrelakoak ari dira proposamenak egiten. Noren alde?

Zubietara itzuliz: Elicio izenekoak 30 milioi euroko obra aurreikusitako omen du eta udalari 900.000 euro ordainduko (ziurtaturik?) eta urtero diru kopuru bat. Betiko? Noiz arte?

Milioi horiek 120 metroko posteak eta 75eko hegala ekartzen eta kokatzen (pistak moldatu, kableatu eta abar)

joanen dira –Aholkua: ikusi Endara Bizirik taldekoek egin zuten bideoa–. 900.000 euro edo % 3 horrek orekatuko du parajeen galera? Hegaztien eta beste animalien hilketak? Bertako azizendak hurbiltzerik izanen dute? Sustrai Erakuntza fundaziokoak guztiz aurka dira, kalte ikaragarriak ikusten dituztelako.

Eta gerokoa, betiko horrek zalantzak pizten dizkit. Hor dago Zubietako zentrala... Iberdrolak zenbat ordaintzen dio udalari? Uste dut inoiz akzioen bat eman ziola... eta bertako langileena aspaldi akitu zen. Handiak beti indartsu. Eta orain multinazionalekin abiatu behar dugu? Horrela bada, aurretik diruarena lotu: oraingoa eta etorkizunekoak, izugarri artistak baitira orain agindutakoak, promestua, gero ukatzen. Diruaren boterea!

Bat nator alkatearekin: «Aurrera eginen balu... herri galdeketa egin beharko... herriak zer nahi duen jakiteko» eta hainbat iritzi izanen direla uste dut. Hala ere, Baztango debekua oroitu: ezin izan dute Erdizkoari buruz herrietan bozketa loteslerik egin.

1-Nik neurri eta kopuru horietako berriztagarriei ezetza emanen diot.

2-Etxez etxeko galdeketa egin daiteke loteslea izendatu gabe.

Kontuan izan ere Goiener/Nafarkoopeko aholkularitza hurbil dugula eta bere laguntza erraz lortu daitekelakoan nago.

Bittiria karrrikako uholdeak kaltetutakoan esker ona

ISABEL MARITXALAR ALTZUGARAI

BITTIRIA KARRIKAKO UHOLDEAK KALTETUTAKOEN IZENEAN

Maiatzaren 20ko goizaldeak gure bizitzako momenturik latzenetako bat bizitza ekarri zigun. Ekaitzak eragindako lur jauzi batek gure etxe eta lokaletan izugarriko uholdea sorrarazi zuen, urak zenbait lekutan bi metroko altuera hartuz. Une hagitz gogorrek bizi izan genituen. Hasieran beldurra, ur mailak goiti nola egiten zuen ikusita. Ondotik, tristura, ezintasuna... argitasunak eragindako kalte guztiak agerian utzi zituen. Zorionez, ez zen galera pertsonalik izan, galera material eta sentimentalak ugariak izan diren arren.

Baina egoerarik konplikatuenetan ikusten da Lesakak, gure herriak, duen baliorik handiena, bere herritarrak. Laguntza gehien behar genuenean han agertu ziren, ahal zutenean ahal zutena egitera: ura etxeetatik ateratzera, urak txikitutako tresna eta gailuak zaborretara botatzera, garbitzera, garraio lanak egitera, momenturik zailenetan besarkada bat ematera... Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu bertara agertu ziren guztiei, Lesakako suhiltzaileei, Lesakako Udalari, hamaiketako prestatzen aritu zirenei, norberaren izenean agertu ziren boluntario guztiei, familiari, lagunei... Ez dugu sekula ahantziko egin zenuten guztia, mila esker bizilagun guztien izenean.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



ITSASO ELIZAGOIEN BIZENTE
ETXALAR ESCAPE ROOM

«Etxalarko kulturalan oinarritu nahi genuen jokoak, kontrabandista eta usategietan»

2021eko uztailean ireki zuten Iruñe eta Itsaso Elizagoien ahizpek Etxalar Escape Rooma; «itxialdian pentsatu genuen hemen dugun garaje zahar batean egitea. Egoera lasaitzean obra hasi genuen eta garajea moldatu, jokoak pentsatu eta probak egin genituen». Herriko kulturalan oinarrituta dago escape rooma: «kontrabandista familiakoak garenez, horren inguruan egin nahi genuen, eta Etxalarren hain ezagunak diren usategiak ere sartu nahi genituen». Proiek-

tuak izan duen harrerarekin kontent daude; «jende aunitz etortzen da, turistak eta ingurukoak. Egia da gehienbat neguan egiteko jokoak dela, baina asteburuetan jendea hurbiltzen da eta aste tartez ere eskolak etortzen dira».



OLATZ JUANENA SAEZ
DONEZTEBEKO MERKATARI ELKARTEA

«Elkartea herritik eta herriarentzako sortu genuen, gure artean laguntzeko»

2008an sortu zuten Doneztebeko Merkatarari eta Zerbitzu Elkartea eta gaur egun Olatz Juanena da lehendakaria. «Elkartzeko beharra ikusi genuen, gure artean laguntzeko eta herriari zerbitzu bat emateko». Gaur egun, 46 komertzio osatzen dute elkartea; «zerbitzuak, ostalariak, elikagai eta moda dendak, ile-apaindegiak, aholkularitzak, farmaziak, tailerrak... denetik dugu. Herritik eta herriarentzat sortutako elkartea da, eta gure lana transmititu nahi diegu herritarrei». Azokak,

zozketak eta ekimenak ere egiten dituzte; «kanpaina bereziak egiten ditugu udaberrian, udazkenean eta Eguberrietan batez ere». Ekainerako, berriz, «kanpaina polit bat prestatzen ari gara Doneztebeko Jostunekin batera».



AITOR AZKARATE TOMASSONE
JAUREGIA ESNEKIAK - ANIZ

«Jendeak geroz eta gehiago erosten ditu bertan ekoiztutako produktuak»

2004an hasi ziren Aitor eta Mikel Azkarate anaiak esnekiak egiten; «lehen esnea saltzen genuen, baina garestiago ekoizten hasi ginen eta prezioak berdin mantentzen ziren, eta ez genuen bertze enpresen menpe egon nahi». Handik bartz urtetara ekologikoan ekoiztea erabaki zuten; «eta ekoizten genuen gutzia gure kabuz saltzen hasi ginen». Gaur egun pasteurizatutako esnea, jogurta, jogurt irabiatua eta gasna egiten dute, «eta inguruan saltzen dugu: Baztanen,

Malerrekan, Bortzirietan, Iruñerrian... ekoiztutako gutzia saltzen dugu, jendeak geroz eta gehiago erosten baititu bertako produktuak». Ekologikoan ekoiztean «lan gehiago egin behar dugu, baina emaitzak merezi du».



ITZIAR GOIENETXE AGIRRE
ORDOKI ZALDITEGIA - ARIZKUN

«Paseoak zaldian Baztan ezagutzeko modu polita dira turistendako»

Duela zazpi urte hartu zuten Reynaldo Armendarizek eta Itziar Goienetxek Ordoki zalditegia Arizkunen. Salto eta hezte klaseak hartzeko aukera ematen dute, eta Erdi Mailako formakuntza profesionala ere eskaintzen dute, Ekitaldi Teknikari titulua lortzeko. Egun bateko plana nahiago dutenendako, zaldian ibiltzeko paseoak eskaintzen dituzte; «esperientzia badutenendako eta ez dutenendako, luzera desberdinekoak. Turistendako batez ere modu po-

lita eta berezia da Baztan ezagutzeko». Honez gain, film eta telesail aunitzetan parte hartu dute; «batzuetan zaldiak eramaten ditugu aktoreak ibiltzeko, eta bertzeetan Reynaldo espezialista bezala aritzen da».



«Lehiaketetan parte hartzeak ate aunitz irekitzen ditu»

ASIER GOÑI MAIA ORONOZ-MUGAIRIKO BEHOR ETA ZALDI HAZLEA

Arabiar arrazako behorrek eta zaldiekin Espainiar estatuko eta nazioarteko lehiaketetan edertasun sari andana irabazi ditu; berriki Galiziatik urrezko dominarekin etorri da, puntuazio maximoa lortuta

G. PIKABEA ORONOZ-MUGAIRI

Zaldiek eta behorrek lotura berezia omen dute pertsonekin, eta Asier Goñi Maiak (Oronoz-Mugairi, 1988) ere lotura berezia du haiekin. Gustuko ditu, maite ditu, eta haien bueltan pasatzen du bere denboralibrea. Betitik izan dituzte behorrek etxean, baina berari arabiar arrazakoak sartu zitzaizkion begietatik, eta hala hasi zen arraza horrekin lanean. 2010ean Zubialdea Arabians zalditegia sortu zuen, eta arraza horretako behorrek eta zaldiek hazten eta saltzen ditu. Gehiago ere bai. Espainiar estatuko eta nazioarteko lehiaketarik ezagunenetan ere parte hartzen du. Tarte horretan atea ireki dizkieten sariak lortu ditu eta bide horretan segitu nahi du.

Nondik heldu zaizu zaldietarako eta behorretarako afizioa?

Etxean beti izan ditugu haragitarako behorrek. Osaba batek zaletasun handia izaten zuen, zaldiek izaten zituen eta bere arrimuan ibiltzen nintzen. 15-16 urterekin gainean ibiltzeko nire lehendabiziko poneya erosi nuen eta geroztik mundu horretan segitzen dut.

Nolatan hasi zinen arabiar arraza purukoekin?

Betik gustatu izan zaizkit. Aldizkarietan ikusten nituen atentzioa ematen zidaten, beraien ezaugarriak gustatzen zitzaizkidan eta informazio gehiago biltzen hasi nintzen. **Eta 2010ean Zubialdea Arabians zalditegia sortu zenuen...**

Bai. Hiru urtez zalditegi eta partikularaunitz bisitatu nituen. Iberiar penintsulan barna dezentente bidaiatu nuen gustukoaren bila eta, azkenean, Kantabrian harrapatu nuen. 2010ean arabiar arrazako nire lehenbiziko bi behorrek erosi nituen, eta poliki-poliki zaldiek eta behorrek hazten hasi ginen.

Zein dira arabiarren ezaugarriak?

Ezaugarriak inportanteena haien burua da. Kopeta arras zabala dute, begiak haundi-haundiak eta deigarriak, belarri tikiak eta muturra fin-fina. Muturra dezenteko sakonunearekin dute. Nahiko estetikoa dira, arras finak. Batzuetan iduri dute kristalezkoak direla, baina aldi berean, arras-arras erresistenteak dira. Ez dira arras haundiak, baina gauza aunitzetarako erabiltzen dira.

Zertarako adibidez?

Erresistentzia lasterketetan ere ateratzen dira. Fisikoki arras erresistenteak dira eta fisikoa hobetzeko bertze arrazakoekin aunitzetan gurutzatzen dituzte. 25-28 km/h abiaduran 160 kilometro egiteko kapaz dira. Hamar-hamabi orduz lasterka ibiltzen ahal dira eta ederki aguantatzen dute.

Zenbat dituzu gaur egun?

«EMIRERRIETAN AFIZIO HAUNDIA DUTE ETA TXINAN ERE HASI DIRA»

Behokak, zaldikoak eta denak kontuan hartuta, hamaika ditugu; tartean hazitarako zaldi bat ere bai. Ez dira denak arabiarrek, batzuk arabiarrek gurutzatutakoak dira.

Noiz hasi zinen lehiaketetan parte hartzen?

2011n hasi nintzen. Kantabrian lehiaketa bat egiteko zuten eta nondik jo ikusteko harat joan nintzen. Epailak aunitz dakite, zalditegi eta lehiaketa aunitzetan ibiltzen dira eta beraiek dira moda zehazten dutenak. Zure behorrek eta zaldiek nola epaitzen dituzten, ongi ari zaren edo jendeari gustatuko zaion edo ez jakiteko, interesgarria da lehiaketetan parte hartzea.

Zer baloratzen dute lehiaketetan?

Edertasun lehiaketak dira eta borts ezaugarri puntuagarri daude. Bakoitzean gehienez ere hogeita hiru harten ahal dituzu, guztira ehun. Alde batetik, tipoa puntuatzen dute, pistara sartzeko modua. Normalean arabiar arrazakoak buztana goiti dutela ibiltzen dira, mugimendu aunitz eginez. Bertetik, gorputzari begiratzen diote; aziendak angelu eta proportzio batzuk izan behar ditu. Horretarako muskulatura lantzen diegu, baita ilea moztu

«12.000-15.000 EUROTAN BEHOR ON BAT EROSTEN AHAL DUZU»

edota makillatu ere. Hirugarren ezaugarri puntuagarria gorputz-adarrak dira, hau da, nola ibiltzen diren. Horrez gain, buruari eta lepoari begiratzen diete. Lepoa okertua behar dute, zisneek bezala, fina eta lotune onarekin. Horrez gain, begi politak, belarri tikiak, kopeta zabala eta mutur fina izatea hartzen duten kontuan. Puntuatzen dute bosgarren ezaugarria mugimendua da.

Makillatzen dituzuela aipatu duzu...

Bai, animaliarekin ezaugarriak nabarmentzeko. Kopeta haundiagoa eta muturra finagoa ikus dadin, lehiaketa baino egun batzuk lehenagotik modu batera edo bertzeraz mozten diegu ilea eta kasik pertsonak bezala makillatzen ditugu, bere begirada nabarmentzeko distira emanez eta...

Urteotan hainbat sari lortu dituzu...

2017an Espainiako txapelketan urrezko domina irabazi genuen Dariyah Al Zubirekin eta horrekin berarekin 2016an Arabes & Co Nazioarteko Lehiaketa irabazi genuen Mioñon (Kantabria). Juliettah Al Zubirekin 2021ean Silledako eta Antelako (Galizia) nazioarteko lehiaketak irabazi genituen eta Lakhan Al Zubi zaldikoarekin joan den urtean Kordoban Espainiako txapelketa irabazi genuen Futurity modalitatean, eta berriki Lugoko (Galizia) Equigal lehiaketan urrezko domina lortu du. Txapelketako puntuazio maximoa eta mugimendu hoberenaren saria ere beretako izan dira.

Sariak atea irekitzeko balio dute?

Bai. Nik morfologia lantzen dut, eta morfologia subjektiboa da; batzuei lerro batzuk gustatzen zaizkie eta bertzei bertzeak. Baina bai, sariak jendea ezagutzeko atea irekitzen dituzte. Gaur egun, sare sozialen bitartez, mugimendu handia dago eta kanpotik aunitzetan jartzen dira harremanetan gurekin.

Adibidez, nondik?

Emirerrietan afizio handia dute eta azken aldian, txinatarrek ere mugitzen hasi dira. **Dirua mugitzen duen merkatua izanen da, ezta?**

Mailaren araberakoa da, futbole bezala. Erregionalean dagoenak ez du diru aunitzik mugituko, baina Txapelaldun Ligan ari denak bai. Hemen berdina pasatzen da. Horretarako bide ona da lehiaketetan parte hartzea eta jendeak ikustea.

Zenbat balio izaten ahal du arabiar arrazako behor edo zaldi batek?

Denetariko kasuak daude. Azken batean, eroslearen eta saltzailearen arteko akordio bat da, batek prezio horretan saltzeko prest egon behar du eta bertzeak erosteko prest. Baina gaur egun, 12.000-15.000 bat eurotan behor on bat erosten ahal duzu. Badira 600 eurotan ere, baina ona nahi baduzu, genetika eta behorra ordaindu behar dituzu eta oreka horretan 12.000-15.000 euro balio izaten ahal du.

Prezio horretan saldu izan dituzu?

Ezaugarriaren araberakoa da, 2.000 euroko edo 15.000 eurokoak izaten ahal dituzu. Denek ez dute hainbertze balio.

Zein da garestien saldu duzuna?

Behin arras zaldiko polita saldu genuen. Berez, gure asmoa Milango lehiaketara eramatea zen. Milan erakusleihen ona da, Europan egiten den lehenbiziko nazioarteko lehiaketa izaten da eta Emirerrietatik jende aunitz hurbiltzen da. Seguru ginen salduko genuela, baina 2020a zen eta pandemiarekin lehiaketa guztiak alde batera utzi zituzten. Azkenean, pistara atera gabe saldu behar izan genuen, argazki eta bideo batzuen bitartez, eta Pakistanera joan zen. Arras polita zen eta hura izan da garestien saldu duguna. Hala ere, hobe izanena da prezioa ez erratea...

Ekonomikoki bertze maila duen jendearendako dira?

Hura hala izan zen, zaldiko berezia baitzen. Bada sare sozialen bidez bere bezeroendako zaldi eta behor onak bilatzen aritzen den jende aunitz. Printzeak, printzesak, enpresariak... Horiek dituzte bezero. Guk ere printzesa baten eskaintzak hartu genituen, baina ez genuen saldu. Biharamunean printze-



Asier Goñi ezkerrean Juliettah Al Zubi behokarekin; orain behorra da. JON JIMENEZ

sa hark eskatu zigun behokarekin lehiaketa bat irabazi genuen. **Halako mailan lehiatzeak lan haundia eskatzen dizu?**

Etxean behorrak eta zaldiak hazten ditugu, baina egia errateko, ez dugu lan aunitzik. Zainketa batzuk egiten dizkiegu, adibidez, neguan mantekin lo egiten dute, edo pentsu berezia jaten dute. Baina gainerakoan belaian lasai egoten dira. Lehiaketetara eraman behar baditugu, berriz, Bartzelonako entrenamendu gune batera eramaten ditugu. Han, bertzeak bertze, muskulatura landu eta posatzen erakusten diete.

Zein izaten da zure egunerokoa?

Goizetan zalditegian gosaria ematen diet eta lanera joaten naiz. Aitak aunitz laguntzen dit

eta berak ateratzen ditu kanpora. Lanetik bueltan, arratsaldetan beti izaten da zerbait egiteko: zalditegia garbitu ez bada bertze zerbait. Iluntzean zalditegira sartzen ditugu, afaltzera eman, eta lo hantxe egiten dute. **Zaletasun garestia aukeratu duzula erranen zenuke?**

Bai eta ez, inbertitu nahi duzunaren araberakoa da. Behorra edo zaldia ongi eduki nahi baduzu, gastatu behar duzu. Autoen rallyetan bezala da, urtean lasterketa batera joaten bazara gastatuko duzu, baina aunitzertara joaten bazara gehiago. **Aunitz bidaiatzen duzu?**

Bai. Lanagatik aunitz bidaiatzen dut eta hobbyagatik ere bai. Espainiar estatuko txapelketa gehienetara joaten naiz, parte

hartzera ez bada ikustera. Udaberrian, berriz, Italiara eta Belgikara joaten naiz hazitarako zaldiak ikustera. Lanagatik bidaiatu izan dudanean ere zalditegiak ikusteko probesten dut. **Euskal Herrian bada afiziorik?**

Guti. Andaluzian, Galizian edo Katalunian afizio haundiagoa dute. Euskal Herrian badira zaldi arabiarrekin lasterketetan parte hartzen dutenak, baina morfologia lantzen dutenak lau bat izanzen gara.

Zein asmo dituzu?

Lakhanekin lehiaketetan parte hartuz jendeak ezagutzea nahi dugu, ondotik saldu ahal izateko. Horrez gain, denboraldi honetan bizpahiru behor estaliko ditugu. Hori izanena da aurtengo gure plana.



Oreja II.a, Beloki, Urretabizkaia, Irujo, Luis Sanchez (trinketeen Frantziako txapeldun), Iker Espinal (frontballeen munduko txapeldun), Arraztoa eta Barriola, aurkezpenean.

«Pilotaren artisauei ateratako argazkiek indar handia dute»

TIBURTZIO ARRAZTOA URRUTIA 'EUSKAL PILOTA' LIBURUAREN EGILEA

Pilotari buruzko hainbat liburu idatziak ditu Tiburtzio Arraztoak eta berriki argitaratu dute azkena: 'Euskal pilota'. Bere testuekin batera, indar handia dute Joseba Urretabizkaiaren argazkiek

AITOR AROTZENA DONEZTEBE
Euskal Pilota liburuak aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten maiatzaren 9an Iruñeko Navarra Arena pilotalekuan. «Bibliofiloentzat eta pilotazaleentzat ezinbertzekoa den bildumagintza» lan honetan, pilotaren historian zehar ibilbide bat egiteaz gain, erabilitako modalitate eta tresna bakoitza zehatz-mehatz deskribatzen dituzte. Lehen aur-

kezpenean, bi egileekin batera, Miguel Pozueta, Nafarroako Gobernuako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailea; Javier Conde, Nafarroako Euskal Pilota Federazioako presidentea, Daniel Carballo doktorea, arkitektoa eta EHUko irakaslea eta hainbat pilotari eta pilotari ohi izan ziren, tartean Ruben Beloki, Juan Martinez de Irujo edo Abel Barriola. Ondotik, mai-

tzaren 17an Iruñeko Kasinoan eta 21ean Madrilgo Euskal eta Nafarren Etxean egin dituzte aurkezpen publikoak eta aitzinerago Bartzelonan ere egiteko asmoa dute. Eskualdean ere egitea gustatuko litzaiotke Tiburtzio Arraztoari, baina orain ez dute halakorik aurreikusita. Bien bitartean, Laxoa Elkarteko eta Napikeko kideak liburuan topa dezakegunaz eta pilotarekin

lotutako bertze zenbait kontuz aritu zaigu. Izan ere, lehendik ere hainbat liburu idatziak dituen Tiburtzio Arraztoa doneztebarrak idatzi ditu Euskal Pilota liburuaren testuak eta Joseba Urretabizkaiak ilustratu du, Xibarit argitaletxearen eskutik, Nafarroako Kirolaren Institutuaren eta Nafarroako Euskal Pilota Federazioaren laguntzarekin.

Zure bibliografia aipatuz, laxoari buruzko liburuak eta gida, 'Entre Dios y la pelota', 'Doneztebe pilotari'... Eta orain 'Euskal pilota'...

Nire liburuen bibliografia hori da, bai; gero bertze liburutan ere hainbat kapitulu idatzi ditut (Valentziako pilotari buruzko liburutan batez ere). Bertze gauza bat: liburu honen editorea Joseba Urretabizkaia da, berak duen *Xibarit* argitaletxean eta bertze liburu denetan banatuko ditu liburuak, baina halere, norbaitek nahi baldin badu, niri eskatu eta arduratuko naiz.

‘Euskal pilota’ berriari dagokionez, batez ere arras edizio zaindua dela dirudi... Edizio bereziak 780 ale bakarrik, azalean larruzko bizkarrak, 234 orri, hari gorriarekin josia, orriak bereizteko zinta urdin eta gorriak, pilota bat opari... Pilotazaleentzako ez ezik, liburuzaleentzako ere ia artelana dela erran daiteke. Zer topa daiteke liburu honetan?

Aipatzen duzun edizio berezi hori batez ere bibliofilo, bildumagile, oparitzeko eta horrelako gauzatarako pentsatua dago, baina, noski, edozeinek eros dezake. 780 ale zenbaki-tuak ditu eta 180 eurotan salgai dago. Edizio hau euskaraz eta gaztelaniaz dago eta argazki gehiago ditu, batzuk handiagoak ere; bertze edizio arruntago hori gaztelaniaz bakarrik dago, baina edukia bietan berdina da. Edizio honen 30 euro balio du.

Joseba Urretabizkairen ilustrazio/argazkiek ere balio erantsia ematen diote zure lanari?

Urretabizkaia, dakizun bezala, argazkilari profesionala da, eta lehendik pilotari buruz ez ezik, herri kirolei, aizkolariei edo tradizioei buruz argitaratu dituen liburu guztietan, bere argazkiek sekulako indarra dute eta kalitate handiko argazkiak dira, liburu honetakoak bezala; kasu honetan azpimarratuko nituzke artisauei atera dizkien argazkiak. Desagertzeko arriskuan dauden lanbideak dira eta, nolabait, ofizio horien testigantza ere badira.

Pilotaren historia, ezaugarriak, pilota modalitate gehienei eskainitako kapituluek gain, Emakumea eta pilota izenekoak ere bada... Bere garaian erraketistek indarra zuten, eta orain esku pilotan ere indartsu dabilta emakumeak, zesta-puntan ere ikusi ditugu, baina beharbada joko zuzenetan, laxoan... gutiago ikusten dira?

Egia da gaur egun emakumeek pilota arloan ere indarra hartu dutela eta kasu batzuetan agertzen direla "pionerak" bezala. Baina XIX. mendean emakume puntista profesio-



Urretabizkaia eta Arraztoa egileak, tartean Miguel Pozueta dutela.

nalak izan ziren eta erraketista profesionalak XX. mendeko lehenbiziko hamarkadetan agertu zirela eta eta hor barna Espainia osoan eta Amerikan ere ibili zirela berrogei urte baino gehiago eta kasu anitzetan gizonezkoek baino diru gehiago irabazten; orain arte erraketista horiek atzenduak eta baztertuak egon dira eta bere garaian ere, kontuan hartu behar da zein garai ziren. Emakumeak joko zuzenetan ere aritzen dira. Laxoa neska- ren bat edo bertze txapelketetan ibili da eta Laxoa Elkar-tearen helburuetako bat da datorren urtean laxoa eskolatan sartzea eta horrela neska- ke ere laxoan hasteko edo eza- gutzeko modu bat izanen li-

tzateke. Baina bertze joko zuzeneko modalitateetan ere jokatzen dute. Orain dela gutxi Valentzian jokatu den munduko txapelketan, CIJBk antolatzen duen txapelketan, euskal selekzioak parte hartu zuen, euskal pilotan gertatzen ez den bezala. Eta txapelketa horretan Euskadiko emakumeek urrezko domina irabazi zuten *juego internacional* delako modalitatean, hau da, bote luzearen antzekoa edo kasik berdina den modalitatean.

Liburuaz aparte, laxoa plazak mantentzearekin ere kezka berezia duzu... Berriki Iturenen eta Beintza-Labaienen laxoan, Legasan paxakan jokatze-ko aukera izan dute, aspaldiko partez.

«XIX. MENDEAN EMAKUME PILOTARI PROFESIONALAK BAZIREN»

«DESAGERTZEAR DAUDEN LANBIDEEN ARGAZKIAK BILTZEN DITU LIBURUAK»

Lan horretan segitzeko asmoa duzue?

Egia da gure helburu garrantzitsu bat orain dauden plazak kontserbatzea dela. Badakizu Irurritako plaza ezin dugula aurtengo laxoa txapelketan erabili (eta auskalo noiz arte). Baina bai, urtero antolatzen dugun Baztan-Erreka desafioetan edo horrelako partidetan ezohiko plazak erabiltzea dugu asmoa, aipatu dituzunak eta bertze batzuk ere (Zubietta, Narbarte, Uitziti).

Ondare hori babesteko lanean, Irurritako botarria berreskuratzeko egin duzuen lanak detektibe-pelikula bat dirudi...

Ez dakizu ongi Irurritako botarriak zer istorio, zurrumurru, anekdota eta bertzelakoak eman dituen 30 urte baino gehiago hauetan. Eta gero nola aurkitu genuen... Erran duzun bezala, pelikula eta nobela bat egiteko modukoa da. Orain Irurritako Dorrea etxeko gela batean paratuko dute, laxoaren erakusketa ibiltaria eta laxoaren inguruko bertze gauzekin. Ez dugu berriz ere 'gal-tzen' utziko...

NAPIKE Elkarteko kide zaren neurrian pilota gure ondare bezala babesteko beharraz ere aritu zara... Zertan da elkarte orain?

NAPIKE elkarte aitzinera doa, Iruñean egoitza lortu dugu eta lanean ari gara, baina beti pilota kulturaren aldetik, ez txapelketak edo partidak antolatzen; Nafarroako Gobernua ere interesatua dago, federazioa ere bai eta sartu gara Unibertsitate batzuekin harremanetan eta momentu honetan adibidez Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Mexikoko bertze unibertsitate bat ikertzen eta lantzen ari dira pilotaren joko zaharrei buruz, gero Doneztebako plaza bisitatu eta partidaren bat ikusteko asmoarekin. Eta bertze helburu bat Nafarroa munduan pilota arloan erreferentzi bat bihurtzea da, interpretazio zentro bat irekitzea, museo bat...



Berako dantzariak iazko Dantzari Ttiki egunean dantzan. UTZITAKOA

Dantzari Ttiki eguna egingen dute ekainaren 10ean

Añorgako, Zaldibiako eta Lezoko dantzariak izanen dira Dantzari Ttiki egunean herrikoekin batera

A. LARRETXEA

Dantzari Ttiki eguna antolatu du ekainaren 10ean Gure Txokoa Dantza Taldeak. Herriko dantzariak eta Gipuzkoatik etorritako hiru talde ariko dira: Añorgako Arkaitz, Zaldibiako Iztueta eta Lezoko Murixka. 10:00etan ailegatuko dira dantzariak herrira, eta 10:30ean aterako dira hiru taldetan banatuta Berako karriketan barrena dantza egitera herriko dantzariekin batera.

Talde bat Agerrara joanen da, bertze bat Legian barrena, San Esteban karrikara eta Burga plazara, eta azken taldea,

lehenengo zahar etxera eta handik Eztegarara pasealekuan barrena Ugalzubia karrikara eta Matzadara. Talde guztiak 12:00etan elkartuko dira Iamotenean eta karrika-dantza egingen dute Merkatu plazara. Bertan, 12:30ean dantza jaialdia egingen dute talde denek. Eguraldi txarra bada Eztegarara frontoian izanen da jaialdia.

Ondotik, kanpoko haurrak Berako haurren etxeetara joanen dira bazkaltzera, eta eguna bukatzeko 16:00etan hasita Jeiki Hadi taldearekin dantzaldia izanen da Labiaga ikastolako estalpean.



Mikel Lazkanotegi lasterkaria erdian, sari banaketa ekitaldian. UTZITAKOA

Mikel Lazkanotegi Nafarroako Kirol Jokoetako txapeldun izan da kadeteetan

TTIPI-TTAPA

Manttaleko Mikel Lazkanotegi lasterkaria Kirol Jokoetako kadete mailako txapelduna izan da. Lazkanotegik hirugarren postua lortu zuen Xtrem Higa Monrealen baina sailkapen nagusian lider bukatu zuen, Jurramendi Trail, Berako Gazte Trail eta Monrealeko proba-

ren ondotik. Kategoria berean, Aitor Etxegaraik, laugarren bukatu zuen sailkapen nagusian. Emakumezko jubenilen kategorian, Manttaleko Oihana Arruti korrikalaria bigarrena izan zen. Gizonezkoetan, Oihan Urroz bosgarrena, Iosu Etxepeteleku seigarrena eta Oihan Pikabea zazpigarren izan ziren.

Ekainaren 3an egingen dute Ibardingo igoera

Zazpigarrenez Ibardingo igoera antolatu du Ziharka Sport taldeak. Parte hartzaileek 4,3 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Alzatetik Ibardineraino. 13:30ean aterako da lehen parte hartzailea, eta errepidea itxia egonen da lasterkak iraun bitartean.

Pornografia eta sexualitateari buruzko tailerra

Ekainaren 6an pornografiari eta sexualitateari buruzko tailerra izanen da Beralandetan 17:00etan. Ikastaroa gurasoei eta irakasleei zuzenduta izanen da eta izen ematea berdintasuna@bortziriakberd.eus helbidean edo 722 69 30 78 zenbakian egin behar da.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

Ansonera

ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07

Foruñ plaza, 1 · BERA

Alberto RETEGI

abokatu

abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Zia erreka- uholdeak kalte handiak eragin ditu

Bera hondamendi eremu izendatzeko eskaera bideratu du Nafarroako Gobernuak

A. LARRETXEA

Herritar aunitzen buruan il-tzatuta geldituko da maiatzaren 20ko goizaldean. 03:00etan lehertu zen ekaitza, eta ordu bakarrean 50 litro ur botatzen metro koadroko. Zia erreka gainezka egin zuen eta parean zuen gutzia eraman zuen. Ura indarrez sartu zen Illekueta eta Zubizabal aldera, baina batez Altzate, Legia eta Kanttonberri karriketara. Kalte materialak handiak izan ziren: etxe partikularrez eta garajeez harago, hainbat negoziotan ere kalte handiak eragin zituen uholdeak.

Goizetik lanean

Larunbat goizeko lehen ordu-rako bildu ziren herritarrak karrikan, eta auzolanean garbitu zituzten urak kaltetutako eremuak. Ehunka izan ziren kaltetutako bizilagunak laguntzen aritu zirenak.

Irudi ikusgarriak utzi zituen uholdeak: Altzateko plaza urez betea, eta autoak ia flotatzen, urak Legia karrikatik lamotenera eramaneko belardira eramandako autoa... Errepide aunitz kalte-tu ditu euriteak, batez ere Zia eta Kaule auzoko mendi bideetan. Horrez gain, musika eskola parean dagoen ubidean ere kalte larriak izan ziren, eta horiek moldatzeko lanak hasiak dira dagoeneko.

Astelehena izan zen kalteak neurtzeko lehen eguna. Nafarroako Gobernuak teknika-erriko azpiegituratan eragindako kalteak biltzen dituen txostena egin zuten, eta asteazkenean gobernuaren lan saioan onartzekoak zituzten horiek konpontzeko lehen diru laguntzak. Lerro hauek idazterakoan

Nafarroako Gobernuak hondamendia eremu izendatzeko eskaera bideratu zuen. Aseguruaren Konpentsazio Partzuegoaren lehen kalkuluen arabera, asteburuko uholdeak 4 eta 5 milioi euro arteko kalte materialak eragin dituzte Aranon, Beran eta Lesakan.

Udalaren eskertza mezua

Udalak eskerrak eman dizkie «eurite beldurgarriak» eragindako kalteak konpontzeko auzolanean aritu ziren herritar guzietan: «Adin guzietako lagunak atera zineten beharra ikusi orduko, katiuskak eta palak hartuta. Goizaldeko ordu tikietatik ekinean aritu zineten elkarrekin, eskuz esku karrikak txukuntzen eta hondamendi haundia jasan duten komertzio eta ostatuei laguntzen. Ez zenuen pentsatu ere kasik, barrenetik atera zitzaizuen babesa emate hori. Eta horren parte izatea ederra izan da. Ingurura begiratu eta dena zen txikizioa, baina auzolanaren irudia hunkigarria zen. Hondamen honek zerbait ona ere ekarri du: herri eta komunitate baten kide sentitzeko aukera eman digu inoiz baino gehiago. Beratar izateaz harro sentitu gara. Eta bidea elkar zaintzea dela ikusi dugu».

Etorkizunera begira, udalak auzolanerako deia egin du: «Klima aldatzen ari da eta uholde eta sute arriskua gero eta handiagoa dela dirudi. Azkenaldian bietatik izan dugu Beran. Prest egon beharko dugu, eta ahalegina egin horien eragina ahalik eta tikiena izan dadin, adibidez, mendi, ibai eta erreka garbi mantenduz».



Altzateko plaza urez betea maiatzaren 20ko goizaldean. UTZITAKOIA



Uraren indarrak Legiatik lamotenera eraman zuen auto hau. UTZITAKOIA



Larunbatean, goizean goizetik aritu ziren bizilagunak auzolanean. UTZITAKOIA



Urak eragindako kalteak garbitzeko lanek luze iraunen dute. UTZITAKOIA



Ordezkarari instituzionalak, Leire Urbeltz eta ikasleak inaugurazioan. UTZITAKOA

Elkarbizitzaren aldeko murala egin dute ikasleek

Lau ikastetxetako ikasleek egin dute horma-irudia, Leire Urbeltz artistak gidatuta. Jon Abrilek idatzi du muraleko esaldia

TTIPI-TTAPA

Berako lau ikastetxetako ikasleek bizikidetzaren aldeko horma-irudi koloretsua margotu dute kiroldegiko paretan. Proiektuan Jesusen Bihotza ikastetxeko 6. mailako ikasleek, Ricardo Barojako 4. mailako ikasleek, Toki Onako DBH2ko ikasleek eta Labiaga Ikastolako DBH1eko ikasleek hartu dute parte. Nafarroako Gobernuo Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak bultzatu du, Berako Udalarekin lankidetzan. Leire Urbeltz artistarekin batera osatu dute.

Horma-irudiak ezinezko harremanak sortu ditu bi mundu desberdinen artean. Alde batetik, gerrako bunkerrak eta, bertetik, *queer* eta arrazakeriaren kontrako teoriak elkar-tu ditu. Jon Abrilen esaldi batek osatzen du irudia: *Desberdinen arteko solasak maitasunaren gotorleku*. Ikasleek landutako ideia guztiak kontuan hartuta osatu da esaldia.

Inaugurazioan Ana Ollo Nafarroako Gobernuo Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria, Aitor Elempuru, alkateta; Leire Urbeltz eta ikasleak izan ziren.

Mugaz Gain antzerki jardunaldia egingen dute aste honetan

A. LARRETKEA

Maiatzaren 31n hasi eta ekainaren 2a bitartean egingen dute aurtengo Mugaz Gain Berako Antzerki Jardunaldia. Ikasturtean landutakoa erakusteko aukera izanen dute gazteek eta ohikoa den gisan, goizeko saioak ikasleentzat izanen dira, eta arratsaldeko saioetan ateak irekiak izanen dira.

Asteazkenean, maiatzaren 31n, ikasleentzako saioak bakarrik izanen dira. Saio bikoitza egingen dute, 11:00etan eta 13:00etan eta Labiaga Ikastolako DBH2ko ikasleek *Eta orain*

zereta Donibane Lizeokoek *Ez goaz inora* obrak taularatuko dituzte.

Ortzegunean, ekainaren 1ean Jesusen Bihotza ikastetxeko ikasleek *Hazi magikoak* obra emanen dute, 12:00etan ikasleentzako eta 18:00etan nahi duten guzientzako.

Ortziralean, 10:00etan Ricardo Baroja eskolako 4. mailako ikasleek *A ze nahastea* obra emanen dute, eta 12:00etan Labiaga ikastolako 5. mailako ikasleek *Alizia mundu miresgarrian*. 18:00etan bi lanak taularatuko dituzte berriz.



UTZITAKOA

167 mendizale Berako Mendi Itzulian

167 mendizale bildu ziren Berako Mendi Itzuliaren XV. edizioan. Bezperako euritea dela eta, ibilbidearen hasiera moldatu behar izan zuten antolatzaileek, baina bertzelakoak arazorik gabe joan zen eguna. Agerra Mendi Taldeak egunaren balorazio positiboa egin du.


LABE ZAR
Astelehenerik
ortziralarik
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandean
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Manterola
Tekniko instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

ANTZUZELAI
S.L.
BERA - T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Arduo
arropa-denda
ebeko osagarriak | lantzeria
Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

Baztan-Bidasoko XXXVI. bertsopaper sariak banatuak

Maila nagusian iazko bi saridunek lortu dituzte lehen bi sariak aurten ere, Eneko Fernandez eta Uxue Mesa lesakarrek

TTIPI-TTAPA BERA

Epaimahaiak saridunak erabakita, maiatzaren 26an egitekoa zuten Berako Kultur Etxean Baztan-Bidasoko XXXVI. bertsopaper lehiaketako sari banaketa ekitaldia. Denera lau kategoriatan banatu dituzte lanak, eta kategoria bakoitzean bi saridun izan dira. Sariak banatzearekin bat, irabazleek beren bertso sortak kantatzekoak zituzten publikoaren aitzinean.

A mailan, 2012an edo ondotik jaiotako haurrek parte hartu dute eta Berako Elorri Goñi Elortzak eskuratu du lehen saria *Natura* bertso sortarekin. Bigarren saria Lesakako Elaia Mindegia Aranbururentzat izan da *Baztan-Bidasoa* lanagatik. Lehen sariak garaikurra eta 50 euro jaso ditu eta bigarrenak garaikurra eta 30 euro.

B mailan, 2011tik 2009ra sortutako gazteak saritu dituzte eta Berako Iraun Zestau Telletxearentzat izan da lehengo saria, garaikurra eta 100 euro. Bigarren saria Eli-

zondoko Oyer Saharrea Etxegararentzat izan da *Landa eremuen defentsan. Erdiz bizirik!* lanagatik. Sari gisa 70 euro eta garaikurra lortu ditu baztandarrak.

C mailan, 2008tik 2005era jaiotako gazteetan Bortzirietan gelditu dira bi sariak. Ziortza Goia Mitxelena beratarrak lortu du lehen postua *Kotxeko karneta* lanagatik. 150 euro eta garaikurra jaso ditu sari gisa beratarrak. Bigarren postuan, aldiz, Arantzako Kattin Madariaga Apaolaza saritu dute *Kakaoa ez-painetan* bertso sortagatik. 120 euro eta garaikurra hartu ditu saritzat.

Helduen mailan, **D mailan** ere Bortzirietan gelditu dira bi sariak. Lehen saria Eneko Fernandez Maritxalarrentzat izan da *Begien bistan gaude baina...* sortagatik. Garaikurra eta 200 euroko diru saria jaso ditu lesakarrak. Bigarren saria Lesakako Uxue Mesa Garmendiarentzat izan da *Udaberria Udabetia* lanagatik. 150 euro eta garaikurra jaso ditu saritzat.



Osasuna eta Erreala finalaren aitzinetik, Guztiok elkartearen pankartarekin.

Osasuna nagusitu da Berako Zelaieta futbol txapelketa solidarioan

TTIPI-TTAPA BERA

Bortzirietako Guztiok elkartearen aldeko dirua biltzeko eta, aldi berean, Genaro eta Unai Zelaieta gogora ekartzeko helburua duen Zelaieta Futbol Txapelketa solidarioa bigarren urtez antolatu du Berako Gure Txokoa elkar-teak. Maiatzaren 20an, larunbat goizean, uholdeekin ernatu zen herria, baina halere, txapelketa jokatzera erabaki zuen Gure Txokoa, «ordurako dena antolatua zegoelako eta futbol zelaia egoera onean zegoelako». Inguruko herrietako jende aunitz hurbildu zen eta Guztiok elkar-teak ere balantze positiboa egin du.

Lehia ederra

Larunbat arratsaldean hasi zen kirol lehia Matxada futbol zelaian eta infantil mailako Osasuna, Real Sociedad, Ala-

ves eta Baztan-Bidasoko selekzio batek parte hartu zuten. Finalerdietan, Real Sociedad taldeak 2-0 irabazi zion Baztan-Bidasoaldeko selekzioari eta Osasunak 3-2 irabazi zion Alavesi. Hirugarren posturako lehian, Baztan-Bidasoko taldeak ezustea eman eta, markagailua irauliz, 2-1 irabazi zion Alavesi. Final nagusian, berriz, Osasuna 3-1 nagusitu zitzaion Errealari.

Lortutako diru guztia Bortzirietako Guztiok elkartearen alde izan da. Guztiok elkar-tea, Bortzirietako behar bereziak edo desgaitasunen bat duten umeen familiek dituzte osasun arloko gabeziei aurre egiteko sortu zuten.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete futbol zelaira hurbildu ziren guztiei, parte hartu zuten taldeei eta, batez ere, babesleei.

Eskualdeko lau bertsolari Nafarroako txapelketan kantatzeko txartel bila

TTIPI-TTAPA

Urriaren 7an hasiko da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, abenduaren 2ra bitarte luzatuko dena. Horren aitzinetik, ordea, bi aurrekanporaketa saio jokoan dira, txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda osatze-

ko. **Maiatzaren 26an** Larraunen aritzeakoak ziren Beñat Astiz, Etxahun Azkarraga Fernandez (Etxalar), Fernando Ziganda, Mintxo Astiz, Peio Ardaiz eta Urko Gartzia Aleman (Lekaroz) eta **ekainaren 2an**, ortziralean 18:30ean Etxaurin ariko dira Ainara Ieregi, Aitor

Irastortza, Bittori Elizalde, Egoitz Gorosterrazu Elizagoien (Ituren), Eki Mateorena Zozia (Leitza) eta Saats Karasatorre. Horietatik zazpi lortuko dute sailkapen txartela –saiotako irabazleak, eta puntuazioaren arabera lehen bortzak–, eta beraz, lehendik sailkatuak dauden 17ekin batera, 24 bertsolarirekin abiatuko da txapelketa urrian. Txapelketako araudiaren arabera, azken

ekitaldian –2021ekoan– parte hartu zuten bertsolariek bakarrik dute berमतuta txapelketarako txartela. Sekula parte hartu ez dutenek, edota 2021koa baino lehenagoko edizioen batean parte hartutakoek, aurrekanporaketa fasea jokatu beharko dute, txapelketara sailkatzeko.

Saioak osatzeko, azken txapelketako azken hiru sailkatuak ere elkartu zaizkie guzti horiei.



Asteburu osoa auzolanean eman zuten Bittiria karrikan. UTZITAKOA

Bittiria karrikako hainbat etxe kaltetu ditu uholdeak

Maiatzaren 20ko goizaldeko ekaitzak kalte material ugari eragin ditu eta herritarren auzolana azpimarratu du udalak

AITOR AROTZENA

Maiatzaren 20ko goizaldeko ezusteko ekaitz bortitzak eta euri jasa ikaragarriak ondorio latzak eragin zituen, batez ere Bittiria karrika hasieran, Erdiko Errotako ubide inguruko etxeetan. Izan ere, lur erortza batek ubidea itxi zuen eta horren ondorioz urak bere bidea egin zuen etxe horien barretetik eta 15 etxebizitza inguru kaltetu zituen. Zenbait lekutan bi metroko altuera ere hartu zuen urak.

Suhiltzaileek atea eta leihoak hautsi behar izan zituzten etxe barneetan pilatzen

ari zen ura Bittiria karrika aldera ateratzeko.

Sortutako kalteei erantzuteko auzolanean aritu ziren asteburu osoan lesakarrak eta herritar guztiei eskerrak eman nahi izan zizkie udalak: «Momentu zailtan ere herri bat garela erakutsi dugu».

Herriko bertze zenbait lekutan ere lur edo zuhaitz erorkak izan ziren eta ura sartu zen zenbait beheko solairutan, batez ere Garaikomendi inguruan, baina kalte materialak ez ziren Bittiria karrikakoak bezain larriak izan, inondik ere.



UTZITAKOA

Muga astoaren abenturak

Muga astoa eta haren inguruko kalamatrikak ipuina aurkeztu dute Iñaki Pikabeak, Joxe Kruz Ezeiza Kaxkak eta Jone Ugaldeberek maiatzaren 18an Tantarumairu ikastolan eta 23an Irain eskolan. Liburua eskuragarri dago 15 euroren truke Lesakako Xagu eta Telletxea liburu-dendetan.

Andra Mari Zahar Etxean lan eskaintzak

Andra Mari Zahar Etxeak erizain, sukaldari eta laguntzaile lanetan aritzeko lan deialdia egin du. Interesatuak dauden pertsonak curriculuma andramari@lesaka.eus edo tsozial@lesaka.eus helbide elektronikoetara bidali behar dute. Erizain aritzeko erizaintzan diplomatua edo graduatua den pertsona bat behar dute. Sukaldari izateko bi pertsona behar dituzte eta esperientzia baloratuko da eta laguntzaile aritzeko ere bi lagun behar dituzte, eguneroko jardueretan laguntza emateko.

Bertso besta eta Kukai dantza taldea hilaren 10 eta 11n

Ekainaren 10ean bertso besta antolatu du Bortziritako bertso eskolak, Larunbatean 12:30ean Antoiutik hasita, bertso antzerkiak, bertso musikatua eta bertso jolasak izanen dituzte eta 14:30ean bazkaria Arranon. Izena emateko 618 96 30 11 whatsapp zenbakira deitu edo idatzi eta 10 euro ordaindu behar da. **Ekainaren 11n**, igandean 19:00etan, berriz, Kukai dantza talde ezagunak Hnuay Illa emanaldia eskainiko du Harriondoan. Txartelak 10 eurotan salgai.

XAGU LIBURUDENDA
Tel./Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEROKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAN FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

LIDERA
HORTZ KLINIKAK - ESTUDIO DENTAL
Iturrumubiko plaza, 9-10 - 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklirika.es
@liderahortzklirika

BIDASOA
GASOLIOA ETXERA
Gurel eskeintze bereziak
24h-ko asistentziak erregidoretan
147 euruko zerbitzu dohailek
Gasolindegik 24h irekita

409 446 693 - 948 625 663
mbidasoa@gmail.com

Alkaga Industrialden
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiriz Industrialden
Y Kalea 10
31118 Noain (Nafarroa)

Beti Gazteren Astea ekitaldiz betea izaten ari da

Igandean argazki rallya eta Elias Garralda margo lehiaketa izanen dira eta astelehenean ogia egiteko tailerra

AITOR AROTZENA

Joan den ortziralean hasi eta egunero-egunero hainbat ekitaldi gauzatzen ari dira Beti Gazteren Astearen barrenean. Aitzinera begira, **maiatzaren 31n**, asteazkenean, 18:00etan ezpatadantzari arroparen tailer teorikoa Beti Gazten. **Ekainaren 1ean**, ortzegunean, 17:30ean haurrentzako bizikleta ginkana Harriondoan. **Ekainaren 2an**, ortziralean, 17:00etan haurrentzako Herri Kirolak Ezagutzen plazan.

Ekainaren 3an, larunbatean 08:00etan mendi irteera izanen da plazatik. 10:00etan futbol partidak. 12:30ean erraldoiak, buruhandiak eta gaiteroak. 14:30ean bazkari herrikoia Beheko Plazan. 20:00etan musika Plaza Zaharrean Gabezin taldearekin.

Ekainaren 4an, igandean, alde batetik, Elias Garralda X. Margo Azkarreko lehiaketa antolatu du Beti Gaztek, udalarekin eta Lesakako Zerbitzuen Elkartarekin elkarlanean. Lehenbiziko saria 700 eurokoa izanen da, bigarrena 350 eurokoa eta herritar baten mar-

golan onenak 150 euro jasoko ditu. Haur Margolarien Eguna ere izanen da eta hiru mailetako bakoitzean margolan onena sarituko dute. Sari banaketa 18:00etan egingen dute. Bertzetik VII. Argazki rallya ere izanen da. Izen-ematea 09:00etatik 10:00etara egin daiteke eta argazkiak 14:00 arte atera daitezke. Lanak aurkezteko epea ekainaren 11n bukatuko da, argazkilaritza@betigazte.net helbidean. Rallyaren hasieran jakinaraziko dituzten bertz gai proposatuko dituzte eta gai bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu, bazkide baten argazki onenak bezalaxe. Gainera, 150 euroko saria izanen da bilduma onenarentzat. Igandea borobiltzeko, 18:30ean Beti Jauzi Muxikoak plazan.

Ekainaren 5ean, astelehenean, azkenik, 18:30ean ogia egiteko tailerra Irain eskolan, Basque Culinary Centerko Edorta Salvador okinarekin. Ikastaro honen prezua 20 eurokoa da eta maiatzaren 31 baino lehen eman behar da izena (617 21 24 39 telefonoan).



Juliana Etxeberriak, familia inguruan zuela ospatu zuen mendeurrena. UTZITAKOIA

Ehun urte osasunez bete ditu Igantzin sortutako Juliana Etxeberria Telletxeak

A. AROTZENA

1923ko maiatzaren 14an jaio zen Igantziko Iriberean Juliana Etxeberria Telletxea. Lau senideren artean gazteena (bi ahizpa eta anaia zituen) izan zen eta bera bakarrik bizi da gaur egun. Ehungarren urtebetetzea ospatu zuen Lesakan, senideak inguruan zituela.

Igantzitik Lesakara jautsi eta 1960ko apirilaren 27an ezkondu zen Makukobordako Pakito Olaetxearekin. Alaba bakarra izan zuten, eta ondotik, bi biloba, eta berriki, familiako txikiena, zortzi hilabete bertzerik ez dituen birbiloba etorri da.


Hurbileko familia honetaz gain, bere anaiaren eta bi ahizpen ondorengoak ere izan ziren Arkupe elkartean egin zuten ospakizunean. 25 bat lagun bildu ziren mahai-inguruan. Gainera, udalak eman-





Udalak ere zoriondu zuen Juliana.


dako lore-sorta eta idatzia ere hartu zituen Julianak, herritar guztien izenean.

Gaztetan laborantza lanetan aritu zen Juliana Etxeberria etxean, baina gerora, Lesakan jostun lanetan ere buru-belarri aritu zen, amaginarbarekin eta koinatarekin, batez ere mahoizko galtza urdinak egiten, konponketak... Gaur egun, ehun urterekin, osasuntsu segitzen du Julianak eta loreak zaintzea gustatzen zaio.



 +34 623981988

 Oinlur

 oinlur@yahoo.com

- Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa orekatzen ditu
- Gorputzaren funtzionamendu egokiarri laguntzen du
- Immunitate-sistema sendotzen du
- Odol-zirkulazioa aktibatzen du
- Antsietatea gutxitzen du
- Estresa hobetzen du

Gasna eta Artisau Feria 30. ediziora ailegatu da

Ekaineko lehen asteburuan ekitaldiz betetako egitaraua antolatu du Altxatak urteurrena ospatzeko

IRUNE ELIZAGOIEN

Altxata elkarteak antolatutako Gasna eta Artisau Feriaren 30. edizioa egingen dute asteburuan.

Ekainaren 3an, larunbat arratsaldean emanen zaio hasiera asteburuari, 16:00etan Errota pareko zelaian egingen den Etxalarko IV. Ardi zakur lehiaketarekin. Ximitx, Puki, Zeu eta Mendi zakurrak saiatuko dira artaldeak itxuran sartzen. Ondotik, Mardaixa Gorria artisauaren eskutik, artiletik harira tailerra izanen da frontoian. Artile garbia kardatu eta haria egiteko prozesua erakutsiko du. Egunari akabera emateko, Juan Mari Beltran laukotean entzuteko aukera izanen da plazan.

Igandean, 10:00etatik 11:00etara lehiaketako ardi gasnen harrera izanen da.

10:00etatik 13:30era plazan eta frontoian artisau postuak eta salmenta. Bazkal aitzinetik egingen da XXX. Eskualdeko Ardi Gasnen Lehiaketako sari banaketa, eta bazkal ondotik gasna hauek dastatzeko aukera izanen da. Bankako menditarrak arduratuko dira bazkalondoan giroa jartzeaz. Igandean goizean zehar bertze hainbat gauza ikusteko aukera ere izanen da: Iriondoan baserriko lan tresnen erakusketa zabalik egonen da, eskola zaharretan eskulan ikastaroko lanak erakusgai jarriko dituzte eta trikitilariak kalejira egingen dute. Gasna feriaren XXX. Urteurrenaren harira, larunbatean egun osoz, eta igande goizean, Kultur etxean, 30 urteetako gasna feriei errepaso eginez, argazki eta bideo proiektzioa egonen da.

Igerilekua eta ostataua udan kudeatzeko deialdia egin du udalak

I. ELIZAGOIEN

Igerilekuko udako denboraldi berria martxan jartzeko lanean hasi da udala. Horretarako, igerilekurako bi sorosle eta ostatu eta sarrerak kudeatzeko bi arduradun kontratatu nahi ditu. Lan kontratua ekainaren 23an hasi eta abuztua-

ren 28 artekoa izanen da; egunero goizeko hamaiketatik hasi eta ilunabarreko zortziak arte. Interesatuak 2023ko maiatzaren 30eko 14:00ak arteko epea zuten eskaerak aurkezteko. Ea bada, norbait animatu eta igerilekuko martxa has- ten den.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



EDURNE ARTOLA

Arroniz BTT bizikleta itzulian

Maiatzaren 20ko asteburuan BTT bizikleta ibilaldia egitera joan ziren zazpi herritar Arronizera. Batzuk *challenge* egin zuten (bi eguneko proba), bertze batzuk 65 km-ko ibilbidea eta gainerakoek 40 km-koa. Denek lortu zuten ibilbidea bukatzea eta gustura itzuli ziren egindako probarekin.

Etxalarko informazioa Whatsapp bidez hartzeko aukera zabalik

I. ELIZAGOIEN

Etxalarko bizilagunak, edo herriarekin zerikusia duten eta bizitokia hemen ez duten bertze pertsona batzuk herriko aferen, albisteen edo agendakontuei buruz informatuta eduki ahal izateko, baliabide azkar, erraz eta zuzena paratu dute martxan. WhatsApp mezuak hedatzeko zerrenda bat sortu da, udalak zuzenean kudeatzen duena, borondatez emandako datuekin. Bertan jasotako datuak ez zaizkie hirugarrenei uzten, eta bidalketen hartzaileek ezin

dute gainerako hartzaileen informazioa eskuratu. Gainera, edozein momentutan eman daiteke zerrenda honetatik baja, udala@etxalar.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita.

Jakinarazpenak jasotzeko, ezinbertzekoa da udalaren telefono mugikorra norbere kontaktu-zerrendara gehitzea: 634 522 414. Zerrendara sartzea nahi duenak www.etxalar.eus atarian bete dezake eskaera. Telematikoki egiteko arazoak dituenak, udaletik pasa daiteke datuak ematera.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Baratzondokoak Milagrora doazi hilaren 18an

Izena emateko epea ereiaroaren 2an bukatuko da, bazkideek 25 euro eta bazkide ez direnek 30 euro ordainduta

ANA ETA ITZIAR

Baratzondo elkarteak ereiaroaren 18an bidaia antolatu du Milagrora. Izena emateko epea ereiaroaren 2ra arte egonen da zabalik eta bazkideak 25 euro ordaindu beharko ditu eta bazkide ez denak, berriz, 30 euro.

Egitarauari dagokionez goizeko zortzietan aterako dira eta Milagron goiza pasatu ondotik, Villa Castejón hotelean eginen dute bazkaria. Arratsaldea La Morean pasatu ondotik, herrira bueltatuta bokata janen dute Baratzondo

Elkartean, egunari bukaera emanez.

San Juaneko besta

Honetaz gain San Juan eguneko besta ere antolatzen hasiak dira jubilatuen elkartean. Egun hau elkartearen besta izaten da, eta oraindik xehetasunak zehaztu gabe badaude ere, oroitarazi behar da egun horretan San Juaneko mezaren ondoren bazkaria eta dantzaldia ere izanen dituztela, urtero egiten duten gisan. Hurrengo alean xehetasun gehiago emanen ditugu.

Lizar Sein Arburuak kudeatuko du igerilekua udan

Aurten, iaz bezala, Lizar Sein Arburua ariko da piszinaren kudeaketa lanean. Udalak bi langile kontratatuko ditu. Igerilekuak idekiak izanen ditugu ekainaren 10etik irailaren 10era bitartean, biak barne. Bonoak udaletxean eskura daitzke.

Udalekuak uztailaren 3tik 28ra eginen dituzte

Urtero bezala, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu. Herrian uztailaren 3tik 28ra, biak barne, izanen dira, 10:00etatik 13:00etara. Asteka apuntatzeko aukera ere bazen. Izena emateko epea maiatzaren 22tik 31ra ireki zen.



ANA ETA ITZIAR

Uxuri Porturen bisita eskolan

4, 5 eta 6. mailakoak bizikletari buruzko proiektu batean lanean ari direnez, maiatzaren 16an Lesakako Uxuri Porturen bisita izan zuten. Galderen ondotik, erakustaldia egin zuen frontoian eta ikasleek probatzeko aukera izan zuten. Lesakako Pump track pistara joan ziren bizikletaz biharamunean.



ANA ETA ITZIAR

Pizza gau bikaina Biltokin

Maiatzaren 19an antolatutako pizza gauean giro bikaina izan zen. Jende ausarki ibili zen herritar dugun Fabio pizzeroaren eskutik egindako pizza goxoak dastatzera. Pizzeekin irabazitako dirua Dojo Seiryu eskolara zuzendu zen. Biltokik ostatuarekin ateritako dirua berriz elkarterako izan zen.



943 64 17 10
www.endanea.com

Online denda 

GOZATU UDA!

Udan zure kanpoko tokiez gozatzeko behar duzun guztia eskaintzen dizugu. Zatoz!

- Sasoko lore eta landareak.
- Lorezaintzarako osagaiak.
- Baratzerako landareak.
- Altzariak eta barbakoak.



ARANTZA

Herriko dantza erakusteko saioak hasi dituzte

Oraingoan ortzirale arratsaldetan biltzen dira neska dantza eta zortzikoa ikasteko

NEREA ALZURI

Ez da edozein dantza. Herrikoa da, bertakoentzat berezia. Eta hori agerikoa izaten da dantza ikasteko saioetan, neska-mutikoen artean inork guttik egiten baitu hutsentseguetan. Haurrak lehenbiziko mailan hasten dira Arantzako Dantza Luzea ikasten

eta aurtengo saioekin ere hasiak dira. Maiatzaren 12an egin zuten lehenbiziko saioa eta geroztik, ortziraleko bildu dira eskolako patioan, 18:15ean neska dantza ikasteko eta 18:45ean zortzikoa ikasteko. Bertzelakorik jakinarazi arte ordutegi horrekin segituko dute.



ARANTZA BIZIRIK

Arantza Bizirik taldea lanean

Arantzako eta inguruko lurretan Madrilgo Zelena Renovable enpresa pribatuak egin nahi duen zentral eolikoaren kontra, lanean segitzen du Arantza Bizirik plataformak. Hainbat batzar egin ditu dagoeneko, eta gero eta jende gehiago biltzen da; gaiak kezka sortzen duen seinale.



Bosgarren eta seigarren mailakoak Añanako gatzagan. ESKOLAK UTZITAKOAK

Ikasturte akabailari begira jarriak dira eskolako lagunak

N. ALZURI

Azken asteotan kanpaldietan ibili dira eskolako lagunak: Haur Hezkuntzakoak Zugarramurdin, lehenbiziko eta bigarren mailakoak Ilundaingo baserri eskolan, hirugarren eta laugarren mailakoak Aiegin, bosgarren eta seigarren mailakoak Zuatzan... Baina hitzordu gehiago ere izan

dituzte. Maiatzaren 12an, *Muga astoa eta haren ingurukoaren kalamatrikak* ipuin ilustratuaren sortzaileak bisitan izan zituzten. Gerraren ondotik, Oiarzungo errotak itxi zituztenez, arratsez Nafarroako errotetara etortzen ziren, tartean, Arantzako errotara. Horixe kontatu nahi izan dute lan honetan.

Udaleku irekiak uztailaren 3tik 28ra izanen dira

Uda gain-gainean dugu eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu. Uztailaren 3tik 28ra izanen dira, eta 10:00etatik 13:00etara eskolan bilduko dira. Maiatzaren 31 zen izena emateko azken eguna.





ZUBIONDO
JATETXEA - SAGARDOATEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Jauzena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformat, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa



LARRETXE A EGVRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketear eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Neska pilotariek indartsu segitzen dute han eta hemen

Maiatzaren 13an Lekunberriko topaketan hartu zuten parte eta maiatzaren 21ean Adosen txapelketako jardunaldian Zubietan

MAIDER PETRIRENA

Esku pilotan, emakumeen eta neska gazteen parte-hartzea gero eta handiagoa da.

Erraterako, maiatzaren 21ean Zubietan jokatu zen Adosen Udaberri txapelketako jardunaldiaren aitzinetik, Adoseko pilotari gazteak aritu ziren eta partida lehiatua eskaini zuten: Aiora Baleztena eta Iraide Iriarre, Irati Altzu eta Dunixe Alberroren kontra aritu ziren. Guttienekoa emaitza izan zen, asteroko entrenamenduen emaitza aski ongi erakutsi baitzuten.

Aitzinetik, maiatzaren 13an, Hogeitabat pilotari, 6-17 urte artekoak elkarbizitza eta esku pilota jardunaldi berri baten barrenean ibili dira. Lekunberriko frontoian eta trinketean egindako jarduerak harreman pertsonalak sustatu ditu kiro-



Adoseko pilotariak Zubietan. ADOS



Pilotariak Lekunberriin. AITZIBER NOBLE

larien artean, eta esku pilotan sakondu du. Leitza, Larraun, Baztan, Arkupe, Ados.... klubekoek parte hartu dute.



IXARO PETRIRENA

Dantzariak Malerrekako Egunean

Maiatzaren 13an Malerrekaren eguna Oizen ospatu zen. Sunbillako dantzari gaztetxoek beraien emanaldi ederra eskaini zuten. Horrez gain, arratsaldean, mus txapelketaren ere jokatu zen eta honetan Nieves Biurrarena eta *Pattère* Galtzagorri herritarrek parte hartu zuten.



GARAIN E IRIARTE

Zortzi neska-mutikok lehen jaunartzea

Lehen jaunartzea egin zuten zortzi neska-mutikok maiatzaren 14an: Endara Larzabal Arriola, Leire Maritxalar Ibarra, Nahia Bazterrika Larralde, Oñatz Korta Gartzia, Yerai Jimenez Etcheverry, Julen Gartzia Sanzberro, Iraitz Sarratea Arretxea eta Eñaut Eraçarret Goñi.



KATEA BIKE

Koldo Herrera bikain Arronizen

Katea Bike taldeko Koldo Herrerak asteburu ederra egin zuen Arronizko BTT lasterketan. Maiatzaren 20ko erlojupekoan bosgarren izan zen eta biharamuneko lasterketan (65 km luze eta 1.950 metroko desnibela) hirugarren postua lortu eta podiumera igo zen.

«Lasterka egitea deskubrimendu bat izan da niretzat»

SAIOA SAN MIGUEL ZELAIETA KORRIKALARIA

Duela bortz urte kros bat egin ondotik sartu zitzaion barrenera atletismoaren harra Saioa San Migueli. Geroztik Pamplona Atletico taldean ari da, eta «hagitz-hagitz gustura» dago bertan

A. LARRETXEA

Sasoi puntu bikainean dagoe-la erakutsi du Saioa San Miguel lasterkariak. Berriki bi errekor xehatu ditu 18 urtez azpikoe-tan: 500 metrokoa eta 800 metrokoa. Denboraldiaren azken txanpan badago ere, oraindik badu zer prestatu, izan ere Espainiako 800 metroko txapelketara sailkatu da, eta hori prestatzen ari da orain buru-belarri. Bertze helburu bat ere badu: 400 metrotan ere sailkatzea. Aurtengo denboraldiarekin «hagitz gustura» dago.

Noiz eta nola hasi zinen lasterka? Orain dela 5 urte hasi nintzen. Lehenago aitarekin batzuetan joaten nintzen korrika egitera, baina ez nuen talderik. Egun batean Beran kros bat egin nuen eta hain ongi pasatu nuen aitari erran niola atletismoan apuntatu nahi nuela. **Ordurako zure gurasoak lasterka aritzen ziren, ez?**

Bai. Ama lesionatu egin zen eta, orain bizikletan aritzen da, baina aitak segitzen du lasterka egiten. Orain ez du ez talderik ez deus, baina, lasterka egiten du.

Eta nolako izan da gaur arte egin duzun bidea?

Pamplona Atleticon hasi nintzen entrenatzen eta hain gustura nago bertan ez dudala taldea aldatu.

Nolakoak dira entrenamenduak? Iruñean iraupen edo iraupen erdia egiten dugunek talde bat dugu eta hara joaten naiz en-

trenatzera asteazkenetan, ortziraletan eta igandetan. Hemen astelehenetan entrenatzen naiz, eta asteartean

gimnasioa tokatzen zait. Ortzegunetan dantza izaten dut, beraz, libre bakarrik larunbatetan izaten dut.



Saioa San Miguel lasterkaria —erdian—lasterketa batean. UTZITAKOIA

«NIRE BURUA ONGI IKUSTEN DUT DENBORALDI BUKAERARAKO»

«LASTERKA EGIN ONDORENGO SENTSAZIOA HAGITZ ONA DA»

Ongi moldatzen zara entrenamenduak ikasketekin uztartzeko?

Bai, ez dut problemarik izan inoiz. Gainera, hurrengo urtean Iruñera ikastera joan nahi dut, eta han bertan dena izanen dudanez hobeto izanen da. Niretzat ez dago arazorik, baina nire aitak eraman behar izaten nau astean hiru egunez eta gogorragoa da beretzat. Baina, ni ongi moldatzen naiz, **Baduzu entrenatzailerik?**

Bai, orain arte hiru izan ditut. Lehenengo bi urteetan bat izan nuen, gero bertze bat urte batez eta orain bertze batekin bi urte eta erdi daramatzat eta hagitz kontent nago. Ignacio Santamaria du izena, eta nire aitaren entrenatzailea ere izan zen gaztetan. Hagitz jatorra da, beti dago laguntzeko prest, beti animatzen nau eta saiatzen da gustura eta kontent egotea berekin.

Eta nola banatzen dituzu entrenamenduak?

Astelehenetan kilometroak egiten ditut lasterketa hemen. Asteartetan gimnasioa eta asteazkenetan serieak egiten ditut: 300 m, 400 m, 500 m... segun. Ortzegunetan atsedena izaten dut. Ortziraletan serie motzak izaten dira 100 m, 150 m, 200 m... Gero larunbatetan deskantsu izaten dut eta igandetan entrenamendu gogorra izaten dugu. Serieak izaten dira, baina gogorragoak: luzeagoak, azkarragoak... Batzuetan maldan ere ibiltzen gara.

Zein modalitatetan lehiatzen zara?

Neguan pista estalian aritzen naiz eta 800 m eta 1.500 metroko modalitatea egin dut. Orain aire librean 400 metro eta 800 metro egiten ditut. Eta erreleboka ere aritzen naiz, 4x400 m modalitatean taldekideekin.

Eta zeinetan aritzen zara gusturen?

800 metrokoan dudarik gabe. Nahiz eta hagitz gogorra den sufrimendu sentsazio hori gustatzen zait.

500 metrotan errekorra egin berri duzu. Espero zenuen?

Ba egia erran ez. Hagitz ongi entrenatzen aritu naiz eta gogo aunitzekin joan nintzen lasterketara, baina, ez nuen espero. Nik lehengo urtean 1.20ko denbora egin nuen eta aurtengo intentzioa 1.18 edo egitea zen. Baina, berotzen hasi nintzenean konturatu nintzen hagitz ongi nintzela, hagitz motibatua eta lasterka egiteko gogo aunitzekin. Eta lasterketa hagitz ongi atera zitzaidan, hagitz kontent bukatu nuen, ez nuen batere espero.

Eta hau ez da berriki egin duzun errekor bakarra 800 metrokoa ere egin baitzenuen iazko abenduan. Hori ere sorpresa izan zen zuretzat?

Ez, errekor horren bila joan nintzen. Aunitz entrenatzen ibili naiz, banekien forma onean nengoela eta errekorra egiten ahal nuela. Antequeraino joan nintzen errekorra egitera, bidaia eta pasada izan zen baina merezi izan zuen. Hori ez nuen espero, baina intentzioa banuen eta ongi atera zen.

Zenbateko garrantzia du zuretzat hain denbora txikian horrelako bi errekor egiteak?

Egia erran hagitz kontent nago. Batzuetan euria ari duenean, edo bero handia denean, edo lagunekin atera ezin zarenean eta... gero ikustea lanak emaitza baduela pozgarria da. Momentuan nagia ematen du batzuetan baina gerora ikusten duzu merezi duela.

Aunitz bidaiatzen duzu?

Pasa den urtean eta aurtengo dezenteko. Iruñean bakarrik Nafarroako lehiaketak egiten dira eta zaila izaten da hor marka onak egitea. Kanpora atera behar zara maila handiagoa izateko, maila handikoekin egoteak zuri ere laguntzen dizulako hobetzen. Bartzelonan egon naiz, eta Espainiako txapelketara joateko denbora minimoa egin dudanez, orain uztaile bukaera arte egon behar dut entrenatzen, txapelketa uztaile bukaeran delako.

Zein modalitatetan ariko zara?

800 metroan. 400 metroko minimoa egiten ere saiatuko naiz. Oraindik ez dut egin 400 metroko lasterketarik, baina ea noizbait badudan aukera hemen Iruñean egiteko baten bat, eta lortzen dudana.

Nolako izanen da zure denboraldi bukaera?

Orain maiatza eta ekaina nahiko potenteak izanen dira lasterketekin. Eta ondotik uztaile ere bai Espainiako Txapelketa, inportanteena dela. Oraindik dezenteko gelditzen da, baina hagitz kontent nago, gogo aunitzekin eta hagitz ilusionatuta. Nire burua ongi ikusten dut.

Denboraldiaren zer balorazio egiten duzu?

Oraingoz 10ekoa. Hagitz-hagitz kontent nago, hagitz motibatua. Nire aitak eta aunitz laguntzen diate, astelehenetan batzuetan nirekin entrenatzen du, Iruñera eramaten naute... Badakit kostatzen zaiela baina hain kontent ikusten naute ez zaiela inporta.

Eta hurrengo denboraldirako zer helburu dituzu?

Oraindik ez naiz hurrengora begira hasi. Hainbertze gusztatzen zaidan kirolaz disfrutatzen segitu nahiko nuke, entrenatzen jarraitu, hobetu eta ikasi.

Hemendik aitzinera baduzu lortu nahi duzun helburu zehatzik?

Ez, proba hauek egiten segitu nahi dut: 400 m, 800 m, 1.500 m... nahiz eta azken hori batzuetan pixka bat luze egiten zaidan.

Bertze zerbait erran nahiko zen nuke?

Jendea atletismoa egitera animatuko nuke. Batzuetan pentsatzen dute bakarrik lasterka egitea dela, eta bakartia dela. Nik astean hiru egunetan taldean egiten dut lasterka, eta ez naiz batere bakarrik egoten. Lasterketa egiteak aunitz exijitzen du, baina gero egiten duzunean hagitz ongi sentitzen zara, sentazio hagitz ona da. Niri aunitz ematen dit korrika egiteak, deskubrimendu bat izan da.

XV. Errekaren Eguna eginen dute larunbatean

Egitarauaren barrenean aurkeztuko dituzte Doneztebeko erraldoi berriak

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Elkarteak, udalaren eta Gazte Burrenaren laguntzarekin Errekaren Eguna antolatu du ekainaren 3rako.

Mugimendua, baina, ortziaralean hasiko da. 17:00etan umeen eskubaloia izanen da kiroldegian eta bukatzean berrendua izanen dute. Gero, 22:00etan Santa Luzia Plazan mus txapelketa izanen da. Sari ederrak izanen dituzte: irabazleentzat 300 euro eta txapelak eta bigarrenentzat 100 euro.

Larunbatean izanen da egun haundia. 08:30ean Malerreka-ri bira emanen diote bizikletaz. 56 kilometroko itzuli herrikoia izanen da eta Pepas kafetegitik hasita, Legasa, Gaztelu, Donamaria, Oiz, Urroz, Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurre, Zubieta, Ituren eta Elgorriaga gurutzatu ondotik, Donezteben bukatuko da.

09:30etatik aitzinera kiroldegian eskubaloia partidak izanen dira: 09:30-10:15 artean alebin neskak eta mutilak, 10:15-11:00 artean infantil eta kadete neskak eta 11:00-11:45 artean infantil eta kadete mu-

tilak. 12:00etan Errekako Judo Eskolako erakustaldia izanen da eta goizean pilota partidaren eginen dituzte. Akitzean, berrendua goizean parte hartu duten kirolari guztientzat.

17:00etan eskubaloia izanen da protagonista berriz ere: senior neskak, senior mutilak eta jokalaririk ohiak nahastuta taldeak osatuko dituzte eta elkarren kontra ariko dira. Ondotik, Doneztebeko erraldoi berrien aurkezpena eta Erreka Dantza Taldearen emanaldia izanen da eta bukatzeko zozketa.

21:00etan herri afaria izanen da Santa Luzia Plazan eta akitzeko gaupasa Trikidantz taldearekin.

Erreka saritua

Nafarroako Eskubaloia Federazioak afiziorik onena izendatu du Erreka eskubaloia taldekoa, akitu berria den 2022-23 denboraldi honetan. Gainera federazioak denboraldiko 2. Maila Nazionalako jokalaririk onenaren saria eman dio Errekako Iñigo Oskoz Gogori.

Aralarko San Miguelen bisita izan dute herrian

Bertze herri batzuetan bezala, maiatzaren 16an, asteartea, Aralarko San Miguel santuaren bisita izan zuten herrian. Argazkian ikusten den bezala, santua bizkarrean hartuta prozesioa egin zuten herriko karraketan hainbat herritarrek.



Herritarrek prozesioan. UTZITAKOIA



Malerreka Bizirik plataformaren aurkezpena. UTZITAKOIA

Proiektu eolikoek kontra aurkeztu dute Malerreka Bizirik

«Herriak eta mendiak bizirik» nahi dituzte eta «proiektu horien kontra borrokatzeko» sortu dute plataforma

ARKAITZ MINDEGIA

«Malerreka bizirik. Eolikorik ez! Berriztagarriak bai. Hola ez!». Horixe aldarrikatu zuen maiatzaren 20an Malerreka Bizirik taldeak Iturengo plazan egindako aurkezpen jendetsuan. Malerrekan egin nahi dituzten makroproiektu eolikoek kontra borrokatzeko sortu dute taldea, «gure herriak eta mendiak bizirik nahi ditugulako». Argi utzi dute: «enpresen helburua interes pribatuak aseztatu irabazi ekonomikoak lortzea bertzerik ez da. Gure ingurugiroa eta ongizitatea ez zaie batere inporta».

Malerrekan egin nahi dituzten hiru proiektuen asmoak ere aipatu zituzten. Eskura duten informazioa «lausoa» dela aipatu zuten, baina garbi utzi nahi izan zuten «sortutako energia ez dela gure herrietan geldituko. Ekoizten den energia ezin da pilatu, sare elektrikora bideratzen da merkatuan saltzeko». Gehiago ere bai; «energia horren zati bat atzerrira saltzen da. Pentsa, energia berriztagarrien lurraldea den Nafarroan, sortzen den energiaren ia % 30 atzerrira saltzen da».

Info +: erran.eus



UTZITAKOIA

Nafarroako Bertso Eskolen Eguna

Nafarroako bertso eskolen eguna ospatu zuten maiatzaren 22an herrian. 9 eta 16 urteko 60 ikasleek parte hartu zuten. Joaldunei buruz Egoitz Gorosterrazu aritu zen, ginkana eta bazkaria izan zuten. Bideo lehiaketako lanak ikusi eta sariak banatu zituzten, bertso saioarekin akitzeko.



UTZITAKOIA

Pulunpa eskolan zinema

Malerrekako eskola ttikiek Tinko euskara elkarteak eskaintzen dituen pelikulak ikusteko ateraldia zeukaten maiatzaren 19an Doneztebera. Eguraldiaren ondorioz, bakoitzak bere eskolan egin zuten. Adinaren arabera, bi pelikula eskaini zituzten, *Sablehortz pirata* eta *Nere zirkua*.

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pensioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com



Pilotariak eta herritarrak maiatzaren 21eko jardunaldian. ADOS

Beasaingo finalean izanen da Naroa Elizalde Etxekolonea

Behar zuen puntua lortu zuen Bitxiloreak taldeak maiatzaren 21ean Zubietan jokaturako Udaberri txapelketako jardunaldian

FERMIN ETXEKOLONEA ZUBIETA Ados pilota elkarteak antolatutako Udaberri txapelketako jardunaldia jokatzeko zen maiatzaren 20an Zubietako plazan. Azkenean, eguraldiagatik, biharamunera atzeratu behar izan zuten. Herriko alaba, Naroa Elizalde Etxekolonea ere aritzeko zen eta jende asko bildu zen plazara, babesa ematera. Kirol lehiari dagokionez, Bitxiloreak eta Kukuprakak taldeek partida bana irabazi zuten eta lehenbizikoek aski izan zuten finalerako txartela lortzeko. Zumaian, Mitxoletak eta Kukuprakak tal-

deen arteko lehiatik ateratzekoa zen bigarren finalista. Lau eta erdiko lehiak, Bitxiloreak taldeko Ainhoa Ruiz de Infantek 18-7 irabazi zion Kukuprakak taldeko Naroa Agirrerri. Binakako partidari, aldiz, Bitxiloreak taldeko Naroa Elizalde eta Berako Irantzu Etxebestek 14-22 galdu zuten Leitzako Iturriaga eta Orbeozoren kontra. Halere, banaka lortutako garaipena aski izan zuten bitxiloreek finaleko sailkatzeko. Bertsotan ere ederki aritu ziren, Nerea Elustondo bitxiloreekin eta Aitor Sarriegi kukuprakekin.

Nazioarteko Museoen Egunean errotara doan

Maiatzaren 18an ospatu zen Museoen Nazioarteko Eguna. Egun horretan errotara sartzea doan izan zen eta, horretaz gain, asteburu osoan, taloak egin zituzten plazan Lurdes Elizalde eta Olatz Baleztenak, pilota jardunaldia jokatu behar zela aprobeztatuz.

Santesteban aita-semeak musean txapelidun

Zubietarren parte-hartze handia izan zen maiatzaren 13ko Oizen Malerrekako Egunean: taloak, joaldunak... Mus txapelketako garaipena ere lortu zuten Martuxeneko Jabiertxo eta Mikel Santesteban aita-semeek, finalean Elgorriagako bikoteari irabazita.

Udaberriko besta antolatu dute ekainaren 3rako Urrozen

JAIONE MINDEGIA URROZ

Udaberriko besta ospatuko dute ekaineko lehen larunbatean, ekainaren 3an, Urrozen. Egun osorako egitarau oparoa izanen dute. Hasteko, larunbatean 12:00etan herriko gazteen arteko herri kirol saioa izanen dute. 14:30ean herri bazkaria izanen dute, Iker Zubeldia eta Maialen Akizu bertsolariekin. Apuntatzeko azken eguna maiatzaren 28a zen.

Bazkalondoan, dantzaldia izanen dute Beñat musikariarekin. Arratsaldean, haurren-



Plazan puzgarriak izanen dira.

tzat mahai-jokoak eta berendua eta 21:00etan afaria, xingarra eta txistorrekin.

Egun guztian haurrentzat puzgarriak izanen dira frontoian.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

San Migelen irudia Ezkurran

Aralarko santutegitik atera eta herriz herri egiten duen erromesaldiaren barrenean, San Migelen irudia maiatzaren 15ean etorri zen bisitan Ezkurran. Lehenengo baserrietan geldialdi bat egin zuten eta gero herrian meza jendetsua ospatu zuten, eguraldi euritsua lagun.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekoiterbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



Malerrekako Egunean omendutako 80 urtetik goitiko oiztarrak. UTZITAKOAK



Dantzariak karpa azpian eskaini zituzten beraien emanaldiak.

Malerrekako Egunak herriko adinekoak omendu ditu

Mus txapelketa Zubietako Jabier eta Mikel Santestebanek irabazi zuten eta 2024ko lekukoa Saldiasek hartu zuten

TTIPI-TTAPA OIZ

Eguraldia ez zuten lagun izan, baina halere, Malerrekako Egunaren hamargarren edizioa ospatu zuten maiatzaren 13an Oizen. Aterperik gabe, bi karpa handi paratu zituzten plazan eta bertan egin ziren eguneko ekitaldiak.

80 urtetik goitiko hamar bizilagun omendu zituzten. Horietatik batzuk (99 urteko M^a Jesus Urroz Ariztegi, 96 urteko Pakita Eleta Larraioz eta 87 urteko Araceli Larraburu Anzizar) ezin izan zuten etorri, baina plazan izan ziren M^a Eugenia Mindegia Ariztegi (85 urte), Juan Pedro Goñi Telletxea (85 urte), Miguel Lizasoain Ezpeleta (89 urte) eta Jose M^a Lizasoain Ezpeleta (85 urte) anaiak, Lucio Telletxea Babaze (81 urte), Eugenio Ariztegi Iribarren (89 urte) eta M^a Jesus Arozena Iribarren (84 urte). Aipagarria da M^a Jesus Urroz Ariztegi gehun urte beteko dituela aurtan. Gaur egun Irunen bizi da, baina Oizko ostalua kudeatu zuten erretiroa hartu arte.

Euriak ez zuten Oizko giroa zapuztu. Mendaur trikitixa

eskolakoen doinuak, joaldunen harat-honatak, dantzarien emanaldiak, buruhandiak, herri bazkaria...

Museko txapela Zubietara

Mus txapelketa ere jokatu zen, herriz herriko irabazleen artean. Final handian, Zubietako Martuxeneko Jabiertxo eta Mikel Santesteban aita-seekek irabazi zieten Elgorriagako Oihana Migeltorena eta Antonio Mariezkurrenari.

Hiru sariren zozketa ere egin zen: Lehenbiziko saria (Malerrekako produktuekin osatutako saski bat), 2.438 zenbakia; bigarren saria, (Malerrekako produktuekin osatutako saski bat), 0703 zenbakia eta hirugarren saria (Oizko Herriko Ostatuan bi lagunentzako otordu bat), 1.724 zenbakia. Azken hau plazan bertan agertu zen eta Oizko Bittoriano eta Marisa izan ziren saridunak. Lehenbiziko bi zenbakien jaberik agertuko ez balitz, ordeko zenbakiak ere atera zituzten, 1.371 eta 2.986. Akitzeko, 2024ko Malerrekako Eguna antolatzekeo lekukoa Saldiasek hartu zuten.



Zubietarrak txapeldun eta Elgorriagakoak txapeldunorde, mus txapelketan.



Eguraldi euritsuari aurpegi alaia paratu zioten herri bazkari jendetsuan.



Malerrekako alkate eta zinegotziak ekitaldian.

Jakinarazten da: 2023ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe:

2023ko TASAK

ERABILTZAILAILEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA	KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko			€/urteko	
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez.	82,02	77,63€	1. Hostala. 9 toki edo gutxiago	115,86	2023ko urtarilaren 5eko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua 4. zk
Zaborronzila 500 metrotik gora dauden etxebizitzak	41,02		2. Hostala. 10 toki eta 20 toki artean	153,12	
		3. Hostala. 20 toki baino gehiago.	189,50		
Merkataritza eta zerbitzuak					
1. Profesionalen zerbitzu eta bulegoak	153,12	Kanpinak eta Natur guneak.	252,10		
2. Establezimendu komertzial txikiak	158,46				
3. Supermerakatu txikiak edo autozerbitzuak	229,20	Bertzelako egoitzak (komentuak eta zahar etxeak)	82,02		
4. Establezimendu komertzial handiak	306,22	Gurtzarako eraikinak	82,02		
Ostalaritza		2023ko urtarilaren 5eko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua 4. zk.	Ikastetxeak	236,02	
1. Ostatuak	153,12				
2. Dantzalekuak	252,10		Industria eta Lantegiak. 9 langile bitarte.	153,12	
3. Jatetxea. 10 mahai, edo gutxiago	167,94		Industria eta Lantegiak. 10-30 langile bitarte.	306,22	
4. Jatetxea. 10 mahai baino gehiago	252,10		Industria eta Lantegiak. 10-30 langile bitarte.	612,46	
Aterpetxeak					
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	115,86	Erabilera eksklusiborako edukiontzia	120,30€/ edukiontzi bakoitzeko.		
2. Landetxea: 7 toki eta 12 toki artean.	153,12				
3. Landetxea: 12 toki baino gehiago.	189,50				

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Ablisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu bikoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINZEKO EPEA

- 2023ko ekainaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2023ko uztailaren 30era luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da. Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.



Irteeran parte hartu zuten 57 mendizaleak. UTZITAKOIA

Etxalarko Orizkira joan dira elkarteko mendizaleak

Bortz orduraz ibili ziren mendizaleak Etxalarko mendietan, eta 16 kilometroko itzulua osatu zuten

TTIPI-TTAPA

Ohiturari jarraituz, hilabete hiru garren asteartean, maiatzaren 17an Arkupeak elkarteko 57 mendizale ibilaldia egiteko elkartu ziren. Eguraldiari dagokionez, goiza epela zegoen, 13 graduko tenperaturarekin. Bidean zirela, euri erauntsi bat ere egin zuen, baina, mendizaleek ez zuten umorea galdu.

Irazakutik Zentiñelara igo ziren, eta argazkiak ikusten den bezala gosaria egin zuten bertan. Gero, Irumugan barrera Orainbetara eta handik Santsiñerrekatik berriz ere

herri sarrerako aparkalekura jaitsi ziren.

Baserri aunitz eta aski ongi zainduak ditu Etxalarrekin, eta horietako aunitz ikusteko aukera izan zuten itzulian.

16 kilometroz eta ia bortz orduraz ibili ondok, Etxalarko Le Basque jatetxean otordua-rekin borobildu zuten eguna. Entsalada, garbantzuak eta aratxe saiheskia izan zuten menuan, postrearekin eta kafearekin batera.

Hurrengo hitzordua, ekainaren 21ean izanen dute mendizaleek, eta ziur egun ederra pasako dutela.

Irungo delegatu berriaren bila segitzen dute

Aldizkari batean baino gehiagotan aipatu bezala, elkarteak Irunen delegatu postua bete duen bazkide bat behar du. Oraindik ere delegatua izendatzea falta da, baina, laguntzailea dagoeneko zein den zehaztu dute. Pili Urroz Arrastio izanen da.

Lourdesko bidaia bertan behera utzi dute

Ekainaren 12rako eta 13rako Lourdesko santutegira bidaia antolatua zuen elkarteak. Bazkide gutti apuntatu direla eta, ordea, irteera bertan behera uzteko erabakia hartu dute. Elkarteak barkamenak eskatu nahi dizkie izena emandakoei sortutako eragozpenengatik.



UTZITAKOIA

Juliana Etxeberriak 100 urte

Lesakako orrietan irakurriko zenuten bezala, maiatzaren 16an 100 urte bete zituen Lesakako Juliana Etxeberriak. Hainbat omenaldi egin zizkieten, tartean baita elkartearena ere. Ordezkariek bisita egin zioten, eta argazkia atera zuten berarekin. Zorionak Juliana eta segi bizkor!

Prest da elkartearen 28. buletina

Urteko bigarren zatien berri ematen duen buletina dagoeneko prest du Arkupeak Elkarteak. Inprenta lanak bukatuta, ekain amaierarako etxean izanen dute bazkideek oso-osorik irakurtzeko.



UTZITAKOIA



JIALXV, WIKIMEDIA

Dokumentazioa Nafarroako Artxiboan

Arkupeak elkarteko zuzendaritzak erabaki du hemendik aitzinera elkarteko dokumentazio guztia Iruñean dagoen Nafarroako Artxiboan gordetzea. Bertan gordeko dituzte akten liburuak, kroniken liburuxkak, aldizkariak, buletinak, argazkiak, bideo zintak...



Herriz herriko emaitzak eta udala osatuko duten alkateak eta zinegotziak

BAZTAN

EH Bildu izan da alderdirik bozkatuena Baztanen eta ezusterik ez bada Fernando Anbustegik hartuko du alkate kargua



EH BILDU

Fernando ANBUSTEGI GOÑI



EH BILDU

Lorea LIZARRETA



EH BILDU

Mariano IRIBARREN



EH BILDU

Alaitz ARRETXEAA



EH BILDU

Jose Luis RETEGI



EH BILDU

Gorka URTASUN



ZUREKIN

Florentino GOÑI



ZUREKIN

Iñigo ITURRALDE



ZUREKIN

Joseba MORENO



INDEPENDENTEAK

Pello SARRATEA



INDEPENDENTEAK

Andoni IRIGOIEN



UPN

Anastasio NAGORE



GEROA BAI

Lander SANTAMARIA

13 HAUTETSI | ZENTSOA: 5.972

	2019	2023
EH Bildu	6 2.016	6 1.544
Zurekin		3 866
Independen.		2 737
UPN		1 459
Geroa Bai	2 577	1 266
Navarra Suma	3 868	
Ezkerra	2 697	
Baliogab.	54	86
Zuriak	77	67

BERA

EH Bilduk nagusitasunez irabazi ditu hauteskundeak Beran eta Aitor Elexpuruk segituko du alkatez



EH BILDU

Aitor ELEXPURU EGAÑA



EH BILDU

Ines MATXIARENA



EH BILDU

Patxi CASTILLO



EH BILDU

Lupe MENDIGUTXIA



EH BILDU

Jose Esteban AGIRRE



EH BILDU

Adela ARLEGI



EH BILDU

Patxi LARRETXEAA



EH BILDU

Estitxu PINATXO



EH BILDU

Angel PONBAR


11 HAUTETSI | ZENTSOA: 2.794

	2019	2023
EH Bildu	7 1.120	9 1.178
Herrirako	4 589	2 274
Geroa Bai		0 130
UPN		0 105
PP		0 25
Navarra Suma	0 112	
Baliogab.	24	27
Zuriak	40	27



HERRIRAKO

Jose Antonio OIARTZABAL



HERRIRAKO

Andoni ANDUEZA

BERTIZARANA

Andres Etxeniketik segituko du Bertizaranako alkate izaten; parte hartzea % 58,23koa izan da hauteskunde hauetan



BERTIZARANAKO TALDEA
Andres ETXENIKE IRIARTE




BERTIZARANAKO T
Jose Antonio SARRATEA



BERTIZARANAKO T
Xabier AGERRE



BERTIZARANAKO T
Jose Antonio JAUREGI



BERTIZARANAKO T
Iker TRANTXE



BERTIZARANAKO T
Blas Mari ANDRESEÑA



BERTIZARANAKO T
Roman AGERRE

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 486

	2019	2023
Bertizarana. T.	7	7
EH Bildu	181	170
Baliogab.	42	73
Zuriak	52	40

DONAMARIA

Bertze lau urtetarako aginte makila hartu du Natalia Rekartek Donamarian



HERRIARENGATIK
Natalia REKARTE OTEIZA



HERRIARENGATIK
Naiara AIZPURU



HERRIARENGATIK
Patxi LIZASOAIN




HERRIARENGATIK
Miren ARREGI



HERRIARENGATIK
Jon LEATXE



HERRIARENGATIK
Karlos EZKURRA



HERRIARENGATIK
Idoia ARREGI

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 366

	2019	2023
Herriarengatik	222	213
Denongatik	70	9
Baliogab.	1	26
Zuriak	5	

DONEZTEBE

Botoen ia % 80 lortuta EH Bildu nagusitu da eta Arantxa Arregi izanen da alkate



EH BILDU
Arantxa ARREGI ALBERRO



EH BILDU
Juan TELLETXEA



EH BILDU
Maider ILARREGI



EH BILDU
Fernando GALLEGO



EH BILDU
Santiago BELARRA



EH BILDU
Iasone FRESNEDA



EH BILDU
Nerea ZAZPE



EH BILDU
Aritz MEOKI



UPN
Serafin LOPEZ

9 HAUTETSI | ZENTSOA: 1.302

	2019	2023
EH Bildu	592	680
UPN	1	117
PP	0	19
Navarra Suma	225	
Baliogab.	37	27
Zuriak	59	38

ETXALAR

Herri Taldeko Xabier Etxartek hartu du 30 urtez Etxalarko alkate izan den Miguel Mari Irigoienen lekukoa



HERRI TALDEA

Xabier ETXARTE MIKELESTORENA



HERRI TALDEA

Leire
OLAGARAI

HERRI TALDEA

Xabier
LEIZA

HERRI TALDEA

Garazi
REMON

EH BILDU

Patxiku
IRISARRI

EH BILDU

Ainara
ARANGIBEL

EH BILDU

Andrea
GOURAUD

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 654

	2019	2023
Herri Taldea	5 274	4 245
EH Bildu	2 137	3 177
Navarra Suma	0 49	-
Baliogab.	3	3
Zuriak	22	30

GOIZUETA

Talde berrituarekin Unai Mirandak segituko du Goizuetako alkate izaten



EH BILDU

Unai MIRANDA BERROETA



EH BILDU

Maialen
UITZI

EH BILDU

Uxuri
PERURENA

EH BILDU

Igor
ELIZEGI

EH BILDU

Mertxe
UITZI

EH BILDU

Eider
ZUGARRAMURDI

EH BILDU

Olatz
ZUBIRI

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 564

	2019	2023
EH Bildu	7 405	7 358
Baliogab.	20	21
Zuriak	12	9

IGANTZI

2016ko ekainetik Igantziko alkatea den Juankar Unanuak segituko du karguan



HERRI TALDEA

Juankar UNANUA NAVARRO



HERRI TALDEA

Edurne
HUITZI

HERRI TALDEA

Manuel
TELLETXEA

HERRI TALDEA

Roberto
TXOPERENA

HERRI TALDEA

Irati
ALKORTA

HERRI TALDEA

Aitor
ALONSO

HERRI TALDEA

Amaia
IGUZKIAGIRRE

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 456

	2019	2023
Herri Taldea	7 295	7 226
Baliogab.	13	12
Zuriak	15	18

ITUREN

Taldean aldaketa batzuk eginda alkatetzan segitzeko prest da Jabier Bereau iturendarra



EH BILDU
Jabier BEREAU MIKELARENA



EH BILDU
Jose Mari ALTZURI



EH BILDU
Ainhoa BEREAU



EH BILDU
Maria LARRETXE



EH BILDU
Arkaitz MINDEGIA



EH BILDU
Miren ILARREGI



EH BILDU
Periko MINDEGIA

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 395

	2019	2023
EH Bildu	7 188	7 231
Balioabeak	12	14
Zuriak	7	18

LEITZA

Zinegotzi bat galdu arren, alde handiz EH Bildu nagusitu da Leitza eta David Anaut izanen da alkate



EH BILDU
David ANAUT PEÑA



EH BILDU
Maider AMANTEGI




EH BILDU
Xabier GARTZIA



EH BILDU
Itxaro ZABALETA



EH BILDU
Bittorio LIZARRAGA



EH BILDU
Aintzane ARRAIZA



EH BILDU
Iñaki ZABALO



EH BILDU
Xabat ILLARREGI



EH BILDU
Mikel ZABALETA



UPN
Silvestre ZUBITUR



UPN
Fermin AZPIROTZ

11 HAUTETSI | ZENTSOA: 2.297

	2019	2023
EH Bildu	10 1.381	9 1.152
UPN		2 239
Navarra Suma	1 247	
Balioab.	47	99
Zuriak	52	51

LESAKA

Zinegotzi bat gehiago lortuta EH Bilduko Ladis Satrustegik segituko du Lesakako alkate izaten



EH BILDU
Ladis SATRUSTEGI ALTZUGARAI



EH BILDU
Argiñe ORDOKI



EH BILDU
Gabriel TXOPERENA



EH BILDU
Uxue ROYO



EH BILDU
Eneko FERNANDEZ



EH BILDU
Izaskun RODRIGUEZ



EH BILDU
Pello ASTIZ



GEROA BAI
Jose Luis ETXEGARAI



GEROA BAI
Ione FAGOAGA



GEROA BAI
Jose Mari PORTU



GEROA BAI
Maria Victoria GORTARI

11 HAUTETSI | ZENTSOA: 2.183

	2019	2023
EH Bildu	6 842	7 835
Geroa Bai	5 763	4 571
Balioab.	26	29
Zuriak	31	35

SUNBILLA

Taldearen erdia berrituta bertze lau urtez Sunbillako alkate izanen da Amets Inda



EH BILDU

Amets INDA GORRIARAN



EH BILDU

Florentino
GELBENZU

EH BILDU

Marga
ERDOZAIN

EH BILDU

Josune
AGIRRE

EH BILDU

Ane
PETRIRENA

EH BILDU

Jose Francisco
ERRANDONEA

EH BILDU

Irune
AGIRRE

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 576

	2019	2023
EH Bildu	7 314	7 300
Baliogab.	38	33
Zuriak	34	22

URDAZUBI

Azkar taldeak bortz ordezkari lortu ditu eta PPK bi; Iñaki Ariztiak segituko du alkate izaten



AZKAR

Iñaki ARIZTIA URRIZA



AZKAR

Cristobal
ALZUIET

AZKAR

Jose Luis
GOMEZ

AZKAR

Pedro
LANAU

AZKAR

Javier
DIAZ

PP

Silvia
OLAIZOLA

PP

Jose Carmelo
MUÑOZ

7 HAUTETSI | ZENTSOA: 305

	2019	2023
Azkar	4 147	5 145
PP		2 63
Geroa Bai	3 89	
Baliogab.	13	18
Zuriak	18	14

Zerrenda irekiak dituzten herriak

ARANO

Zentsoa: 88 | Partehartzea: 57
Herri Aierriz: 53 boto
 Xabier Cueto: 44 / Joxan Ruiz: 40 /
 Xabier Legarreta: 40 / Jon Mari
 Beasain: 35 / Kontxi Klaber: 28
UPN: 0 boto
 Baliogabeak: 2 | Zuriak: 2

BEINTZA-LABAIEN

Zentsoa: 191 | Partehartzea: 191
Herriarengatik: 75 boto
Herria Bizirik: 46 boto
 Baliogabeak: 5 | Zuriak: 0

ELGORRIAGA

Zentsoa: 167 | Partehartzea: 116
Independenteak: 105 boto
 Baliogabeak: 1 | Zuriak: 10

EZKURRA

Zentsoa: 129 | Partehartzea: 63
Idoia: 61 boto
 Jaione Zabalo: 47 / Bautista Mariez-
 kurrena: 35 / Peio Zestau: 30 / Jose
 M^a Gogorza: 25 / Ana M^a Otxandore-
 na: 13. Baliogabeak: 0 | Zuriak: 2

OIZ

Zentsoa: 111 | Partehartzea: 59
Alkartasuna: 47 boto
 Baliogabeak: 2 | Zuriak: 10

SALDIAS

Zentsoa: 102 | Partehartzea: 69
Tantadi: 63 boto
 Baliogabeak: 2 | Zuriak: 4


ZUGARRAMURDI

Zentsoa: 192 | Partehartzea: 192
Auzolanean:
 Argitxu Agerre: 72 / Jean Michel
 Olaizola: 66 / Iñigo Arburua: 43 /
 Julene Arburua: 42
Akelarre:
 Evaristo Mentaberri: 64 / Juan Miguel
 Ariztegi: 64 / Gerardo Eseberri: 54 /
 Manuel Soto: 53
 Baliogabeak: 2 | Zuriak: 1

**ARANTZAN,
 ARESON,
 ERATSUNEN,
 URROZEN,
 ZUBIETAN ETA
 NARBARTEKO
 KONTZEJUAN EZ DA
 ZERRENDARIK
 AURKEZTU. SEI
 HILABETEREN
 BURUAN BIGARREN
 AUKERA IZANEN
 DUTE**



Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen emaitzak



NAFARROA

	2019	2023*
UPN	-	89.643
PSN	71.838	66.448
EH-Bildu	50.631	55.478
Geroa Bai	60.323	42.665
PP	-	23.080
Zurekin	-	19.539
Vox	4.546	13.754
Bertzeak	3.788	4.657
Navarra Suma	127.346	-
Podemos	16.518	-
Ezkerra	10.472	-
Zentsoa	485.436	489.455
Parte hartzea	350.370	325.538
Baliogabeak	2.169	4.552
Zuriak	2.731	5.722

UPN-K IRABAZI DITU HAUTESKUNDEAK NAFARROAN BAINA TXIBITEK ESKURA DU GOBERNUA ERREPIKATZEKO AUKERA


VOX-EK BI ORDEZKARI LORTU DITU LEHENBIZIKOZ

* Kontatuak %97,96.

ESKUALDEKA


ESKUALDEKA EH BILDU ETA GEROA BAI IZAN DIRA BOZKATUENAK ALDE HANDIZ

BAZTANEN, MALERREKAN ETA XARETAN UPN IZAN DA HIRUGARRENA; GAINERA KOETAN PSN




BAZTAN

	2019	2023
EH Bildu	1.580	1.567
Geroa Bai	1.279	910
UPN	-	610
PSN	261	338
Zurekin	-	187
PP	-	120
Bertzeak	34	135
Navarra Suma	802	-
Ezkerra	119	-
Podemos	68	-




BERTIZARANA

	2019	2023
EH Bildu	114	129
Geroa Bai	86	74
PSN	29	45
UPN	-	20
PP	-	11
Zurekin	-	9
Bertzeak	2	6
Navarra Suma	50	-
Ezkerra	2	-
Podemos	5	-




BORTZIRIAK

	2019	2023
EH Bildu	1.678	1.841
Geroa Bai	1.932	1.257
PSN	303	374
UPN	-	276
Zurekin	-	126
PP	-	94
Bertzeak	26	91
Navarra Suma	458	-
Ezkerra	52	-
Podemos	170	-




LEITZALDEA-URUMEALDEA

	2019	2023
EH Bildu	1.354	1.309
Geroa Bai	655	388
UPN	-	155
PSN	70	112
Zurekin	-	36
PP	-	21
Bertzeak	9	28
Navarra Suma	212	-
Ezkerra	18	-
Podemos	18	-



MALERREKA

	2019	2023
EH Bildu	931	1.047
Geroa Bai	1.017	662
UPN	-	242
PSN	163	223
PP	-	79
Zurekin	-	49
Bertzeak	19	64
Navarra Suma	369	-
Ezkerra	19	-
Podemos	42	-



URDAIZUBI ZUGARRAMURDI

	2019	2023
EH Bildu	78	109
Geroa Bai	140	85
UPN	-	54
PSN	33	36
PP	-	26
Zurekin	-	4
Bertzeak	7	20
Navarra Suma	81	-
Ezkerra	4	-
Podemos	5	-

VOX-EK IA HIRUKOIZTU EGIN DU BOTO KOPURUA ESKUALDEAN


ABSTENTZIOA ZAZPI PUNTU IGO DA HAUTESKUNDE HAUETAN; HIRUTIK BAT BOZKATU GABE GELDITU DA

EH Bildu izan da indar nagusia eskualdeko ia herri guzietan

GEROA BAI BIGARREN INDARRA IZAN DA BAINA 1.783 BOTO GALDU DITU



2019ko datuak



2023ko maiatzaren 28a



	Zentsoa	Parte hartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	EH Bildu	Geroa Bai	PSN	UPN	PP	Zurekin	Bertzeak
ARANO	88	55	33	1	0	35	11	3	1	0	3	1
ARANTZA	473	252	221	1	3	144	69	9	8	4	7	7
ARESO	210	121	89	0	4	67	26	11	7	2	2	0
BAZTAN	5.940	4.002	1.938	59	76	1.567	910	338	610	120	187	135
BEINTZA-LABAIEN	191	144	47	5	0	34	50	16	23	6	3	7
BERA	2.778	1.757	1.021	27	23	756	456	198	136	53	56	52
BERTIZARANA	481	303	178	7	2	129	74	45	20	11	9	6
DONAMARIA	362	246	116	4	7	112	71	13	20	13	3	3
DONEZTEBE	1.296	871	425	20	17	327	207	94	129	35	22	20
ELGORRIAGA	167	113	54	3	5	51	33	7	12	1	0	1
ERATSUN	135	68	67	1	0	12	37	8	6	2	0	2
ETXALAR	634	443	191	4	25	178	123	35	42	14	10	12
EZKURRA	129	63	66	0	0	24	17	10	7	3	2	0
GOIZUETA	561	387	174	11	3	276	71	8	9	3	5	1
IGANTZI	456	268	188	3	3	114	93	30	9	5	8	3
ITUREN	394	268	126	1	6	155	53	22	7	7	7	10
LEITZA	2.277	1.543	734	19	19	931	280	90	138	16	26	8
LESAKA	2.175	1.460	715	24	8	649	516	102	81	18	45	17
OIZ	110	58	52	2	0	18	22	6	3	0	2	5
SALDIAS	102	69	33	0	4	36	17	6	2	1	1	2
SUNBILLA	575	355	220	2	1	180	104	31	14	8	4	6
URDAZUBI	291	233	58	2	9	56	55	29	41	21	4	16
URROZ	145	66	79	0	1	13	26	6	12	2	0	6
ZUBIETA	219	130	89	0	3	85	25	4	7	1	3	1
ZUGARRAMURDI	186	117	69	1	4	53	30	7	13	5	0	4
Denetara	20.184	13.248	6.936	192	223	5.968	3.326	1.112	1.334	345	408	318

Euriteak gogor astindu ditu herriko bideak

Errepide nagusian eta auzoetako eta baserrietako bideetan kalte handiak izan dira

TTIPI-TTAPA

«Ikaragarria izan da. Zorionez, ez da kalte pertsonalik izan, herria aldapan dago eta ura goitik behera joan da, baina azpiegitura guztiak pikutara joan dira eta ondorioak urteetan nabaritu ditugu». Halaxe mintzo zen Joxan Ruiz alkatea joan den astean, maiatzaren 20ko goizaldean izandako euriteek sortutako kalteen harira. Ikaragarria izan baitzen botatakoa: Aranon zortzi ordutan 217 litro/m² erregistratu zituzten eta «errepide nagusia, eta auzoetako eta baserrietako bideak txikituta» gelditu ziren: «Erreka txokoetatik pasatzen diren bide guztiak kaltetu ditu».

Bideak

Errepide nagusiaren zati bat eramanda inkomunikatuta gelditu ziren herritarrak ordu batzuek. Biharamunean zabaldu zuten bidea, baina «justu-justu». Ruizek kontatu duenez, «errepide nagusia konpontzeko lau-sei aste pasako direla esan digute».

«Denbora gehiago» beharko dute auzoetako eta baserrietako bideak konpontzeko, alkatearen arabera, «hilabete luzeak». Ondorioak toki askotan sumatu baitituzte: «Suro auzoan familia asko bizi dira eta pista hondatua dago. Justu-justuko pasabidea utzi dute baina... Ezkerrenbordako pista ere kaltetua izan da, baita Sagargazteko pista ere, duela urte gutxi hormigoitu genuen Aolako bideak azpitik dena jana du...».

Ur horniduran ere ondorioak sumatu dituzte: «Aterakontuak, baserri bateko ur depositua desagertu da». Lerro hauek

idazterakoan baserri horretan urik gabe zeuden eta hori bermatzea zen lehentasunetako bat. «Beste baserri batean ere urik gabe gelditu ziren eta herritarrak, auzolanean, herriko depositutik lotura egiten hasi ziren auzolanean».

Industrialdea

Industrialdean ere «arazo handia» omen dute: «Urak industrialdeko sarrera eramana du. Sarbide bat jarri dugu baina...». Gaineratu duenez, «Gipuzkoarekin muga egiten du eta bi administrazioak elkartu behar ditugu hori konpontzeko, eta ur konfederazioarekin ere bildu beharko dugu. Beldur naiz politikariek ez ote duten alde batera begiratuko. Espero dut horrelakorik ez egitea».

Herritarren jarrera

Herritarren jarrera ere txalotu du alkateak, bai auzolanean egindakoa, baita izan duten jokaera: «Pazientzia haundiz hartu dute guztia. Ikaragarria izan da, benetan. Baserri batean inkomunikatuak egonda ere, 'Lasai, besteren bat behar handiagoarekin egonen da' esan izan digute, edo beste bati makineriarekin joan behar genuela esan eta 'Lasai, konpondu dugu, ur bideak egin ditugu...».

Ez berak, ez herriko zaharrek ez omen dute sekula holako euri jararik ezagutu. «Historikoa» izan zela dio. Kalteen balorazioak egin, eta «lehenbailehen konponketak bideratzea» dute orain helburua. «Egunerokora bueltatzeko hilabeteak beharko dira, baina denborarekin eta laguntzarekin lortuko dugu».



Itxura hori hartu zuen errepide nagusiak. NAFARROAKO SUHILTZAILEAK



Errepide nagusian txandakako pasabidea ireki zuten. JOXAN RUIZ



Aboñoko etxearen aurrean ur putzua. NAFARROAKO SUHILTZAILEAK



Errepide nagusia goitik hartuta. JOXAN RUIZ



Herritar kuadrilla ederra ibili da txondorra prestatzen. IGOR ELIZEGI

Txondor Eguna larunbateko azoka ibiltarian

10:30etik aurrera artisauen eta ekoizleen 26 postu jarriko dituzte eta 12:15ean txondorra piztuko dute

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko Azoka Ibiltariak Goizuetan egingen du geldialdia larunbat honetan, ekainaren 3an. Aurreko edizioetan bezala, elikagai ekoizle eta artisauen bilgune bilakatuko da herri ingurua, baina ez da egun horretako hitzordu bakarra izanen. Lehendabiziko aldiz Txondor Eguna antolatu dute herriko txondorgileek.

26 postu azokan

10:30ean zabalduko dute azoka ibiltaria eta herrian barrena hamahiru elikagaien postu eta beste horrenbeste artisauen postu jarriko dituzte. Tartean herritarrak ere izanen dira: Dominiako betizu haragia, Juli Zubiriren barazkiak, talogileak, Txirikorda osagarriak eta bitxiak, Kontxiren ukenduak, Belen Apezetxearen margo lanak, Arrate Etxeberriak gantxilo egindako lanak, Garbiñe Etxeberriaren egurrezko tailak, Ane Tabernaren ipuinak eta Eneko B. de Quirosen armariak eta koadroak. Horiek eta inguruko eta Nafarroako beste hainbat ekoizle eta artisauk 14:00 arte edukiko dute beraien mahaia.

I. Txondor Eguna

Mendialdeko Azoka Ibiltariaren Eguna Txondor Eguna ere izanen da. Hala, 12:15ean, aurreko asteburuetan prestatutako txondorra piztuko dute eta horrekin lotuta, ekitaldi berezia egingen dute. Herriko txondorgileek antolatu dute, udalaren, kultur taldearen, Elamaren eta Umore Ona elkartearen laguntzarekin.

Hitzordua borobiltzeko mahaiaren bueltan bildu eta herri bazkaria egingen dute. Bazkarirako txartelak Amaiarenean eta estankotan 20 eurotan jarriak zituzten salgai.

Goizukoop-eko bazkide egiteko epea zabalik

Goizukoop kooperatibak bazkide egiteko epea zabaldu du. Orain arteko baldintzetan egingen ahalko da, hau da, 90 euro ordainduta. Interesatuak Amaia kafetegian, Zubidendan edo estankotan dauden inprimakiak bete eta bertan utzi beharko dituzte ekainaren 3a baino lehen.

Zerbitzu anitzetako lanposturako bederatzi lagun aurkeztu dira

TTIPI-TTAPA

Aurrera segitzen du oposizio-lehiaketa bidez zerbitzu anitzetako langilea hartzeko prozedurak. Bederatzi lagun aurkeztu dira eta probak egingen hasiak dira. Euskarazko gaitasun titulua edo baliokidea ez duten izangaiek maiatzaren 26an egi-

tekoa zuten euskarako azterketa. Euskarakoa gainditzen dutenek ekainaren 26an teorikoa egin beharko dute; 09:30ean udaletxean. Ariketa hori gainditzen dutenek proba praktikoa egin beharko dute, baina lerro hauek idazterakoan oraindik eguna zehaztu gabea zuten.



FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza Bilbon

Kirikiño abesbatzaren 25. urteurreneko ospakizunean parte hartzeko gonbidapenari atea irekiz, Umore Ona abesbatzako kideek Bilboko Filarmonika Elkartearen aretoan kantatu zuten maiatzaren 19an. Eneko Amundarainen zuzendaritzapen saio ederra egin zuten.



FELIX LOIARTE

Herritarrak Goizutrail lasterketan

Goizutrail lasterketako sari nagusia etxean gelditu zen, eta Hodei Lujanbioarentzat izan zen. Baina Lujanbioz gain, herritar asko animatu ziren Goizutrail lasterketan parte hartzera. Ez dira denak ageri argazkian baina sasoiko daudela erakutsi dute. Xehetasunak 54. orrialdean.

580 lasterkarik eman dute izena mendi erronkan


Larunbat honetan Euskal Herria Mendi Erronkaren bederatzigarren edizioa jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Badator Euskal Herria Mendi Erronkaren IX. edizioa, antolatzailuek dioten bezala, «euskal mendizaletasuna, mendi lasterketa, lurraldetasuna, ofizialtasuna, Plazaola natur bidea eta euskara sustatzea» helburu duen mendi lasterketa. Larunbatean, hilaren 3an, izanen da.

Egitaraua

Lasterketa herriko plazan hasi eta bukatuko da, Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberrietik pasatu ondoren. 08:00etan hasiko da, baina hori baino lehen dortsalak banatuko dituzte: ostiralean, hilaren 2an, 17:30etik 20:00etara eta lasterketa egunean, 06:00etatik 07:30era. 07:30etik 07:55era korralittoa izanen da eta 07:45ean omenaldia. Aurten Errigora omenduko dute, «Euskal Herriaren izena eta izana zabaldu, sendotu eta errotzeagatik egiten duen ekarpenagatik». Antolatzailuen hitzetan, «Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora, eta bete-betean egiten du bat EHMEren izaerarekin eta balioe-



Lasterkariak aurreko edizio batean. EHME

kin». Omenaldiaren ondoren lasterketa hasiko da aurrenekoa 14:00 aldera ailegatuko dela aurreikusitako dute. 15:00etatik 21:00etara lasterkarietzako paella banatuko dute eta 20:00etan sariak. 21:00etan lasterketa bukatutzat emanen dute.

Bi modalitate

Edizio honek ere bi modalitate izanen ditu; batetik 67 kilometro eta 7.200 metroko desnibela duen lasterketa; eta bestetik,

errelebo lasterketa. Kasu horretan, lehenbiziko lasterkariak Leitzatik Putzuzarreraino egin beharko du (32,8 km eta 4.700 metroko desnibela), eta bigarrenak Putzuzarretik Leitzarainoko zatia (34,2 km eta 2.194 metroko desnibela). Ibilbideko punturik altuena Irumugarrieta izanen da (1.431 m) eta ibilbide osoan, helmugaz gain, bedearzi anoa gune jarriko dituzte. Aipatzeko beste datu bat: lasterketa osoan 400 boluntariotik gora ariko dira lanean.

Lasterketa ikusteko lekuak

Lasterketa ikusi nahi duenak hainbat aukera izanen ditu. Leitzan irteeran eta helmugan; Gorritin (aurrenekoa 08:45 aldera espero dute); Arriben (09:15), Gaintzan (09:30), Albin (11:00), Putzuzarren (11:30), Lekunberriin (12:30) edota Berueten, Iontzan (13:45). Denaden, Gaintzara baimendutako kotxeak bakarrik joaten ahal izanen dira eta hala, taxiak jarriko dituzte Arriben Gaintzara joateko.

Etiketa Berdea

Etiketa Berdea proiektuarekin ere bat egin dute EHMEkoek: «inguruarekiko eta urkoarekiko errespetuzko jarrera bilatu nahi duen aldarriarekin», hain zuzen. Baita konpromisoa ere: «trukean ezer jaso gabe apustu egitea. Ondorengoei mundu hobea uztearen ustea baino ez». Finean, «elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako lasterketen aldeko manifestua da Etiketa Berdea».

Banda zabala eskuragarri herrigunean eta baserri auzoetan

TTIPI-TTAPA

Udalak telebistako seinalea auzoetara iristeko dituen antenetan espazioa eskaini dio Wikai enpresa nafarrari, eta horri esker, banda zabala herriko etxe eta baserri gehienetara ailegatu da. Hala jakinarazi dio Mikel Zabaleta funtzionari den alkateak TTIPI-TTAPAri. Gainera, «enpresak seinalea ailegatzeko ez den etxeei irtenbide pertsonalizatuak bilatzeko konpromisoa hartu duela» gaineratu du Zabaletak. Internet bidez 30 megatik gorako abiadura banda zabaltzat hartzen da. Bada telekomunikazio enpresak esan duenez, «ehun mega arteko abiadura» eskaini ahal du. Eta gehiago ere bai. ETB ikusteko askotan sortzen diren seinale arazoei irtenbideak emanen omen dizkie: «Wikairekin kontratua eginez gero, +Media aplikazioaren bidez, ETB1, ETB2, ETB3, ETB4, Xaloea Telebista, Navarra TV eta estatu mailako gainerako telebista kate guztiak ikusi ahal dira, doan eta Internet seinale berdinarekin bitartez. Horrela, ez da beharrezkoa izanen antena seinalea telebista kate horiek guztiak ikusi ahal izateko. Gaiari buruzko informazioa emateko enpresak batzar irekia egiteko zuen maiatzaren 24an.

Herritarren interesa ikusita EBKk beste instalazio bat egiteko prozedura hasiko du

TTIPI-TTAPA

Leitzeko Energia Berriztagarrien Komunitateak bere bidea egiten segitzen du. Kooperatiba erregistratuta, aurreneko bazkideak biltzen hasia da. Gainera, urte bukaerarako aurreneko proiektua martxan jarri nahi du eta bigarren bat

ere badu bidean. Izan ere, EBKren aurreneko instalazioan parte hartzeko iazko ekainean apuntatu zirenen %94ak berretsi du uda honetan egiten den instalazio fotovoltaiakoan parte hartuko duela. Jakinarazi dutenez, instalazioaren onurak aurten sumatuko di-

tuzte herritarren etxeetan eta udal eraikinetan.

Baina gaiak interesa piztu du eta bazkide izan nahi duten beste 50ekin itxaron zerrenda sortu dute. Aurreko urtean apuntatu ez, eta orain interesa adierazi dutenak dira. Hala, herritarren interes horri erantzunez, bigarren instalazio fotovoltaiako bat egiteko prozedura martxan jarriko du Leitzeko EBKk.

Zirku tailerra ekainaren 11n plazan

Zirkun Zirko zirku eskolaren eskutik, zirku tailerra egiten dute datorren ekainaren 11n, igandea. Herriko plazan egin dute hitzordua, eguerditik aurrera, eta sarrera egunean bertan plazan erosi beharko da. Lau euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.

Hamabost etxetako sagardoa dastatzeko hitzordua

Garagarrilaren 10eko arratsaldean XIII. aldiz Sagardo Eguna egingen dute plazan

JUAN MARI BARRIOLA

Alke kultur taldeak antolatutako Kultur Aroa azken txanpan sartua da eta behar bezala borobiltzeko Sagardo Eguna antolatu du larunbat honetan zortzi. Aurtengoa XIII. edizioa izanen da eta garagarrilaren 10ean urteko sagardoa dastatzeko toki bihurtuko da herriko plaza.

Hamabost sagardogile gonbidatu dituzte: Lizeaga, Gartziategi, Olaizola, Oialumezar, Isastegi, Ola, Altuna, Barkaiztegi, Gurutzeta, Gaztañaga, Altzuetza, Zabala, Larralde,



laz 700 lagun bildu ziren. JM BARRIOLA

Toki-alai eta Martintxonea. 19:00etatik 21:00etara plazan egonen dira bakoitza bere postuan. Sagardoa dastatzeko aukera izateaz gain, pintxoak jateko aukera izanen da.



ENERITZ IRAOLA

30 bat eskulangile artisau azokan

Ehundik gora eskaera jaso ondoren, 30 artisau bildu ziren maiatzaren 21eko azokan eskolako estalpean. Amazabal frontoian, berriz, ehoziri topaketa egin zuten Liñu putzuren 25. urteurrena ospatzeko. Bestalde, Irulegiko eskuaren erreplikaren zozketan Juan Luis Artolak irabazi zuen.

Plazaola aldizkarirako azalak eta idatziak ekainaren 30era arte jasoko dituzte

JUAN MARI BARRIOLA

Santiburtzioei begira jarrita, Plazaola aldizkarirako azal lehiaketa antolatu eta edukiak biltzeko epea ireki du Aurrera elkarteak. Bietan ekainaren 30era arte jasoko dituzte. Azal lehiaketan, 16 urtetik beherakoek Plazaola-Leitzako aldizkaria-43.

zenbakia testua jarri beharko dute eta 16 urtetik gorakoek Leitzza 2023-Tiburtzio Donearen Pestak-43. zenbakia. Gutxienez A3 neurrikoak izan behar dute eta Aurreran edo Maimurren jasoko dituzte. Aldizkarirako idatziak aurrerake@hotmail.com bidali behar dira.

GURE USTEZ



ANIKOTE, LEITZAKO UDALA ETA LEITZAKO OSASUN ETXEA

Bizi luze eta kalitatezkoa

Ez dakit badakizun, baina 1953an Morris izeneko mediku ingeles bat honetaz ohartu zen: eskutitzak etxe banatzen zebiltzan karteroek bulegoan eserita lan egiten zutenekin baino askoz gaixotasun gutxiago izaten zituztela eta beranduago hiltzen zirela. Eta berdin gertatzen zen autobuseko langileekin: gidariak, egun guzian eserita zeudenak, tiketak eskatzen atzera eta aurrera zebiltzan langileekin baino bihotzeko gehiago zituzten eta lehenago hiltzen ziren.

Gerora, ikusi da osasunak lotura haundia duela gure gorputzaren mugimenduekin. Ariketa fisikoak bihotzeko gaixotasunak eta gizentasuna prebenitzen laguntzen du; gure garunera, giharretara oxigeno gehiago iristen laguntzen du eta gure hezurak indartzen ditu, erorketak saihestuz; diabetesa hobetzen du, infekzioen aurkako defentsak hobetzen ditu eta gure tentsioa jaisten du. Eta gainera, emozionalki hobeto sentitzen laguntzen digu.

Hori dena dela eta, *Pausoz Pauso, bizi kalitatera* programa martxan jarri dugu Anikotek, Leitzako Udalak eta Leitzako Osasun Etxeak elkarlanean.

Hitzarmen bat sinatu dugu, eta Kirol Errezeta erabiltzen hasiko gara ariketa fisikoa eta osasuna elkarlanean bultzatzeko intentzioarekin. Programa hau osasun arazoren bat duen eta bere ohiturak (elikadura, ariketa fisikoa...) aldatzea komeni zaion edonori zuzendua dago.

Osasun Etxean Kirol Errezeta egingen zaie, eta horrekin batera, kiroldegira joateko eguna eta ordua emanen zaie. Kiroldegian lehenbiziko egunean ongietorria egin eta programa zertan datzan argituko da, froga batzuk egin eta kirol teknikariarekin txanda emanen zaio bere egoera fisikoari dagozkion ariketak prestatzeko eta bere begiradapean egiten hasteko.

Programa honen helburua hauxe da: pertsona hauen guztien bizi kalitatea hobetzea eta ariketa fisikoa eginez beraien botika beharra gutxitzea.

Kirol Errezeta honi buruzko informazioa Osasun Etxean eta Kiroldegian bilatu dezakezu.

Anima zaitetz gorputza zaintzera, mugi zaitetz! Pausoz pauso bizi kalitatera!



Julian Zabaleta Alduntzinek hamazazpi urte daramatza Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritzan.

«Aurrera elkarteak Leitzako bihotzean ditu erroak»

JULIAN ZABALETA ALDUNTZIN AURRERA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

2006az geroztik Aurrera Kirol Elkarteko lehendakariorde karguan aritu da Zabaleta. Berriki, berriz, Karlos Agirrerren lekukoa hartuz, lehendakari kargua hartu du

G. PIKABEA

Hamazazpi urte daramatza Julian Zabaleta Alduntzinek (Leitza, 1978) Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritzan. Bada zer bait. Urte luzez izan duen ardurak, ordea, ez dio itzali lanerako gogo. «Saltsan» ibiltzea maite duela dio, eta «auzolanean herriaren alde» aritzeak asebetetzen du. Hizketan hasi orduko agerikoa da Aurrera elkartearekin duen lotura berezia dela, miresmenez mintzo baita. Eta zuzendaritzan jende berria sartuta, ilusioz hartu du elkarteko lehendakari kargua.

Aurrera ez da atzo sortutako elkarte. Bide luzea egiten ari da... Bai. Aurrera Kirol Elkarteko estatutuak 1971n sinatu zituz-

ten, baina hamarkada batzuk lehenago bazen mugimendua; herriko hainbat boluntario kirolean nahiz kultura auzolanean aritzen ziren. Horri segida emanez sortu zuten elkarte. 70eko hamarkadatik herriko bazkide asko pasatu dira zuzendaritzatik, eta tartean, urte luzez Karlos Agirre izan da lehendakari, momentu onetan eta zailetan bere hoberena emanez.

Zein izan zen zure lehenbiziko harremana elkartearekin?

Urte mordoak pasatu dira bazkide sartu nintzenetik, 19-20 bat urterekin izanen zen. Eta 2006an zuzendaritzan sartu nintzen, Karlos Agirre lehendakari zela. Zuzendaritza berririk ez bazen, Aurrera itxiko

zela esan zuen irratan eta horrek jendea mugiarazi zuen. Aurrera ixteak komisio guztiak bertan behera geldituko zirela esan nahi zuen, eta nik uste mezu hark beldurtu gintuela. Normalean batzarretara hamar bat lagun joaten dira; bada Karlosek adierazpen horiek egin ondoren, 60-80 lagun bildu ginen batzarrean. Aurrerako goiko aretoa bete-bete egin zen. Egoera ikusita, han geunden batzuek zuzendaritzan sartzeko pausoa eman genuen. Geroztik urteak joan dira eta Karlos eta biok jende askorekin aritu gara zuzendaritzan, bera lehendakari eta ni lehendakariorde. **Zergatik ez du inork lehendakari izan nahi?**

Hori ez da Aurreran bakarrik pasatzen. Herriko beste hainbat eragileren kasuan ere ardurak hartzea kosta egiten da. Bertan lanean aritzea baino errazagoa da kanpotik antolatutakoa ikustea edo besteek antolatutakoa gozatzea. Aurreraren kasuan, elkarteak 390 bazkide ditu, denek izan dute zuzendaritzan sartzeko aukera, baina... Zuzendaritza berritzeko hainbat ate jo ditugu, jendea animatzen saiatu gara. Azkenean jende gaztea sartu da, eta eskertzaileak da. Ideia fresko eta berritzaileak ekarri dituzte, lanerako gogoarekin ikusten dira eta asko eskertzen diet.

Eta azkenean lehendakari kargua hartu duzu...

Egia esan, orain arte inoiz ez diot neure buruari lehendakari izatea planteatu. Aurreratik kanpo beste ardurak batzuk izan ditut, Alke kultur taldean edota udaleko kultur zinegotzia izanda, besteak beste. Hortaz, nirea gehiago izan da atzeko lana, amaraunak jostearena eta egiari zor, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin lehendakari izateko aukera. Aldi honetan horrela tokatu da, eta lanerako gogoarekin nago.

Udalean, guraso elkarteetan, Aurreran, Alken... Han eta hemen zurea emanez. Hori da zure ustez herri-gintza?

Herrigintza auzolanean herriarengatik eta herritarrekin batera egiten duzun lana da, eta aipatutakoak, noski, herrigintzaaren parte dira. Are gehiago, herrigintza sortzeko, ezinbestean, eragileen beharraz hitz eginen nuke. Eragilerik gabe ez baitago eragiterik.

Zer sentitzen duzu?

Talde bikaina osatu dugu, lanerako prest gaude eta elkartu garenak ez gara geldirik egotekoak; saltsa maite dugu. Taldean elkartu garenok ikuskizunak, hitzaldiak, azokak eta bestelako hitzorduak antolatzea gustatzen zaigu. Horrelakoek herria aberasten dutela uste dut eta hasi berri dudana aldi honetan nire ehuneko ehuna emateko gogotsu nago.

Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritza berriua



Hainbat deialdi egin ondoren, apiril bukaeran berri zuten Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritza. Urte luzez lehendakaria izan den Karlos Agirrek kargua utzi du, baita Amaia Azpirotz diruzainak eta Oihana Saez idazkariak ere. Julian Zabaleta, berriz, orain arte lehendakariorde izan da eta lehendakari izatera pasatu da. Berarekin batera, Mikel Astibia da lehendakariordea orain; Ainara Saralegi diruzaina eta Nekane Garrido, berriz, idazkaria.

Aurrerak 390 bazkide dituela aipatu duzu, biztanleriaren % 13 da. Kopuru polita da, ez?

Bai, adin eta belaunaldi askotako bazkideak gara, gehienak Leitza bizi arren, badira kanpoan bizi eta bazkide diren gutxi batzuk ere. Gure erronketako bat bazkide kopurua igotzea da. Gaur egun, guraso asko bazkide egin dira haurren urtebetetzeko meriendak antolatze txokoa izateko, eta badira denbora libre bertan pasatzeko bazkide diren gazteak ere, edota Aurrerarekin sentimendu berezia dutenak. Batzuk elkartearen sorreratik bazkide dira eta urteak daramatzate elkarera sartu gabe, baina militantziagatik hortxe segitzen dute. Badakite hilabeteroko kuota sinboliko bat ordainduta, ekarpen bat egiten ari direla, horri esker Aurrera bera eta hainbat proiektu martxan izanen direla.

Gaur egun, zer martxa du elkarteak?

Nahiz eta askorentzat Aurrera eraikina soilik izan, pisu handiko elkarte da, eta hori bazkideen militantziari esker da. Hainbat komisio ditu Aurrerak: dantza taldea, pilota eskola, Leitzako konpartsa, txirindularitza taldea, futbol taldea, mendi bizikleta taldea eta etxeko komisioa. Mendi Taldeak

eta krosetako komisioak historia luzea badute ere, azken urte hauetan berrantolatzen ari dira. Bestalde, etxeko komisioak inauteriak, San Juan bezperako ekitaldia, Eguberriak eta pestak antolatzen ditu. Hori dena martxan izateko ezinbestekoak dira Aurrera elkartearen sartzeko diren diru iturriak: udalaren laguntza, herriko merkataria eta enpresena, bazkideena, elkarte erabilera eta zeharka bada ere, komisioek antolatzen dituzten ekimenetan parte hartzen dutenen kuota.

Elkatea indartzen ari da?

Bai. Momentuz oso egoera onean ikusten dut. Bazkide kopurua gora doa eta jende gaztea sartu da. Eraikinaren erabileraren aldetik, hainbat eta hainbat hitzordutarako erabiltzen da, gero eta gehiago, eta zaila izaten dalibre dagoen egun bat harrapatzea. Bertako komisioak ere indartsu ikusten ditut, eta bereziki, dantza taldea eta pilotako eta futboleko batzordeak oso indartsu daude. Jende

asko da komisioetan parte hartzen duena, baita eguneroko lanean ari dena ere. Azken urteotan beste komisio batzuk ere martxan jarri dira, erraldoi eta buruhandiena, adibidez, eta Leitza eta Leitzatik kanpo ibiltzen dira. Bestalde, azken urte pare batean, krosetako komisioak, mendi bizikletakoak eta Mendibil Mendi Taldeak pandemiaren ondorengo geldialdia izan dute, baina berriz mugitzen hasiak dira. Kroserako jende gaztea sartu da eta datorren urtean krosa antolatzeko asmoa dute. Mendi bizikleta taldea ere martxan da eta BTT proba antolatuko dute. Mendi taldean ere jende berria sartuta, martxan jartzekoa da helburua. Beraz, aldaketak izan dira hainbat komisiotan, hala nola, aurpegi berriek ardurak hartu dituzte eta hori osasuntsu egotearen adierazle argia da.

Nola ekarpena egiten dio herriari?

Herrian inork ez du zalantzan jartzen Aurrerak duen lekua. Kultura, kirola, pesta eta auzo-

lana dira leitzarren nortasunaren ardatz. Horrela hasi zen Aurreraren ibilbidea eta bide horretan segitzen du. Aurrerak ekarpen handia egiten dio herriari.

Zein dira Aurrera Elkarteko zuzendaritza berriaren erroak eta lehen-tasunak?

Elkatea bera indartu eta jendea Aurrerarekin harro sentitzea nahi dugu. Bide beretik, gero eta bazkide gehiago bildu eta komisioen etorkizuna bermatu nahi dugu. Horrez gain, gaur egun gizartearen dauden teknologietara egokitu behar dugu, sare sozialak indartuz eta elkarte ikusgarriago eginez. Herriari ekarpena eginez eta herritarren topagune izaten jarraituko du Aurrerak.

Nolako etorkizuna ikusten diozu?

Etorkizuna bermatua du. Aurreran ari garen guztiak, izan zuzendaritzan edo izan komisioetan, denak gure borondatez ari gara lanean. Auzolana dugu oinarri, herrigintzan ari gara eta hori sustatu nahi dugu. Izugarria da auzolanean jendeak nola lan egiten duen ikustea, eta nahiz eta zuzendaritza berrikoa kostatzen den, uste dut etorkizunean jarraipena izanen duen proiektua dela, Aurrerak erroak Leitzako bihotzean baititu.

«**AURRERAK DUEN LEKUA INORK EZ DU ZALANTZAN JARTZEN**»

«**AUZOLANEAN HERRIARENGATIK EGITEN DUZUNA DA HERRIGINTZA**»



Azken ukituak emanda, erabiltzeko prest da Eskoletxea. E. IRAOLA

Eskoletxea erabilgarri dago dagoeneko

Eskola orduetan eskolak izango du lehentasuna, eta hortik kanpo herritar guztien eskura jarri nahi du udalak

ENERITZ IRAOLA

Eskoletxeko eraikinari azken ukituak eman dizkiote eta prest dago erabiltzen hasteko.

Eskola orduetan eskolak izango du lehentasuna, baina hortik kanpo ere probetxua atera eta herritar guztien eskura jarri nahi du udalak.

Hala, bilerak egiteko txokoaz gain, ikus-entzunezkoen gela eta liburutegia erabiltzeko aukera izango da.

Duela gutxi bildu ziren udal ordezkariak herriko eragileekin eta espazioa erakutsi ondoren, beraien proposamenak biltzeko gogoz gelditu dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskolarteko topaketak irailean Areson

Areson izango dira aurtengo eskolarteko topaketak eta orain arte udaberrian egiten zen festa irailaren 30era atzeratzea erabaki dute. Egunari forma ematen hasiak dira eta berrikuntza batzuk ere badituzte esku artean. Xehetasunak aurrerago emango ditugu.

Igeriketa ikastaroa antolatu du guraso elkarteak

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere, igeriketa ikastaroa antolatzeko erabaki du guraso elkarteak. Ekainaren 1etik 15era, Villabonako kiroldegian egunero izango dituzte klaseak 16:15etik 17:00etara. Hamasei haurrek eman dute izena eta bi taldetan banatuta ariko dira.

Osasun zentroan eta eskoltxean lanak

Osasun zentroan lurra berritze-ko dirulaguntza lortu du udalak eta udan eta udazkenean egingo dituzte lanak. Eskoltxean ere balkoi eta terrazako barandak aldatzeko asmoa dute hurrengo ikasturtea hasi aurretik, lehen daudenek ez dituztelako segurtasun neurriak betetzen.

Ikasleentzako dirulaguntzak emango ditu udalak

ENERITZ IRAOLA

Ikasleei heziketarako eta hezikuntzarako gastuak ordaintzeko dirulaguntza emanen die udalak. Dagoeneko eskararak aurkezteko epea zabaldu du eta ekainaren 23ra arte aurkezten ahalko da dokumentazioa.

Soinu eta jolas tailerrak ekainaren 13an eta 19an

Egunez aldatu dituzte Gizarte Zerbitzuak antolatutako soinu eta jolas tailerrak; azkenean, ekainaren 13an eta 19an izango dira. Iragarri bezala, Haizea Loira Matxiñenaren eskutik, 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzako jolas eta soinu saioak izango dira.

Irristaketa tailerra ekainaren 20an izango da

Kirol Mankomunitateak irristaketa ikastaroa eskainiko du ekainaren 20an, 17:00etatik 18:00etara. Ekainaren 13ra arte izango da izena emateko aukera eta kirolmankomunitatea@gmail.com eskatu beharko da izen emate orria. Hamar euro ordaindu beharko dira.

Eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak idazkaritzan edo egoitza elektronikoaren bidez aurkez daitezke. Udalaren ordutegia honakoa da: astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiraletan 09:00etatik 14:30era eta ostegunetan 12:30etik 14:30era.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicación
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak

Paperean edo biniloan (opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean, formarekin moztuak...





Epaimahaiko kideak eta Oiz, irabazlearen berri emandako prentsaurrekoan. ONDIKOL

Joxan Oiz Arrutik irabazi du aurtengo (H)ilbeltza beka

6.000 euroko beka jasoko du eta 2024ko abenduan argitaratuko da bere eleberria

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak VII. (H)ilbeltza bekaren deialdia antolatu dute aurten eta Joxan Oiz Arruti donostiarra izan da irabazlea. Bekaren helburua euskarazko nobela beltza sustatzea da, txandaka sormen eta itzulpen lanak sarituz. Aurten narrati-ba idazteko beka egokitu da.

Epaimahaia Joseba Otondo Baztango alkateak, Eneko Barberena (H)ilbeltza elkarteko ordezkariak eta Garazi Arrula Txalaparta argitaletxeke ordezkariak osatu dute. *Zorigaiztoko* lanaren lagina izan da saritua, XIX. mende hasierako Donostian kokatzen dena. Epaimahaia adierazi duenez, «nabari da idazleak dokumentazio lana eta garaiaren prospekzio ariketa egin duela. Garai soziala eta abiapuntua iradokitzailea da, eta kasu honetan ukitu historikoa kritika sozialarekin uztartzea nobela on baten abiapuntua izan liteke. (H)ilbeltza bekaren parametroekin bat egiten du eta hizkera landua erabiltzeak proiektua indartzen du».

Lagin irabazleari 3.000 euro emanen zaizkio orain, eta berriz 3.000 lana akitzera. 2024ko abenduan argitaratuko du lana Txalapartak.

Zazpi lan saritu

Lehen ediziotik zazpi lan saritu ditu bekak; Miel A. Elustondo (*Kezko bola batek itoak birikak*), Josu Barambones (Patricia Highsmith estatubatuarren *Lardaska* nobela euskaratua), Miren Gorrotxategi (*Sotoan gordeak*), Koldo Biguri (Massimo Carlotto italiarraren *Agur maitea, ikusi arte* eleberri itzulua), Eneko Barberena (*Suakerreko ez balu*) eta Iazkoa, Beñat Irastorza, Fred Vargasen *Debout les morts* euskaratua argitaratuko duena aurten.

Aurtengo irabazlea Joxan Oiz Arruti (Donostia, 1968) da. Euskal Filologian lizentziatua, euskal prentsan ibilia da kolaboratzaile, kazetari eta zabegile gisa, eta 1992az geroztik irakaskuntzan ari da. Literaturan ere aritua da, 2006an *Beñat Dardo* nobela eta *Bidasoa* poesia eta argazki liburua argitaratu baitzituen.



JUAN MARI ONDIKOL ETA MIREN BALLARENA

Irurritako bestak giro ezin hobean

Urtero bezala, herriko besten denboraldiari hasmenta eman diote iruritarrek eta eguraldia lagun izan dute egun gehienetan. Musika, dantzak, herri kirolak... giro ederrean ospatu dituzte Salbatore bestak. Berritasun gisa, Pedro eta Rosario herriko erraldoi berriak estreinatu ditu Irurritako Konpartsak.



Txapelketan parte hartu zuten hamar gazteak. BAZTANGO GAZTE ASANBLADA

Gorka Laurnaga eta Oiher Urrutia garaile gaztetzeko frontenis txapelketan

AINZANE ARIZTEGI

Baztango Gazte Asanbladak frontenis txapelketa antolatu zuen maiatzaren 20an Elizondoko Iriarte pilotalekuan. Hamar gaztek parte hartu zuten, eta bikoteak ausaz osatu zituzten. Ikusleak ere bildu ziren kirolaz gozatzera, eta giro onean iragan ziren jokala-

diak. Gorka Laurnagak eta Oiher Urrutiak osatutako bikoteak irabazi zuen txapelketa.

Goizeko kirolak sortutako gosea asetzeko, gaztetxean bildu ziren denak bazkaltzera. Mahai inguruan iragan zuten gazteek arratsaldea solas eta kantuan.



Aitor Baraibarrek eta Xabier Altzugaraik lortu zuten txapela. MAIALEN IANTZI

Almandoztarrak txapeldun Berroetako pala txapelketako finalean

MAIALEN IANTZI

Ekitaldiz betetako larunbata izan zen maiatzaren 20a berroetarrendako.

Goizean auzolana izan zuten, joan den asteburuan ospatzekoak zituzten Mendekoste bestak prestatzeko: bazterrak garbitu, ostatua montatu, banderak jarri, bazterregia prestatu... Ondotik, pintterdia izan zuten herriko plazan.

Arratsaldean, berriz, Berroetako pala txapelketako finalak jokatu zituzten. Bigarren mailan, Almandozko Aitor Baraibar eta Zigako

Martintxo Mendiburu aritu ziren elkarren kontra. Lehendabiziko mailan, berriz, Berroetako Mattin Asiain eta Almandozko Xabier Altzugarai. Bi partidetan almandoztarrak izan ziren nagusi. Txapelak banatu ondotik, txapelketan parte hartu zuten 20 lagunek afaria izan zuten elkartean.

Honez gain, partidak jokatu bitartean merkatu solidarioa egin zen herriko plazan; lanerako tresnak izan ziren salgai. Lortutako dirua Bidelagun elkarteari eman diote.

Elizondotik saihebidera sarrera egiteko lanak 485.000 eurotan lizitatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak Elizondotik N-121-B errepidera, hau da, saihebidera, sarbidea erakitzeke obrak lizitatu ditu 485.000 eurotan. Iragarpena Nafarroako Gobernuko kontratazio atarian dago ikusgai eta ekainaren 1era arte aurkezten ahalko dira enpresa interesatuak.

Saihebidera sarrera

Sarbidea Menditurri karrikatik abiatuko da, hau da,

Foruzaingoaren komisariatik. Lehen tartean 170 metroko luzera eta 6 metroko zabalea duen errepidea egingen dute saihebidere azpira doan pasabidere arte. Bideak 1,80 metro zabaleko espaloia ere izanen du.

Handik N-121-B errepidera sartzeko tartea hasiko da, 130 metroko luzera izanen duena. Zehazki, N-121-B errepideko 50+040 puntu kilometrikoan sartuko da saihebidera. Bide hauetan 40 km/h-ko abiadura finkatuko da.



Ordokiko industrialdean eta inguruko etxeetan egingen dituzte lanak. UDALA

Ordokiko uren moldaketa lanak lizitatu dituzte

Hornidura sarea berritzeko lanen lizitazioa hasi du udalak, 105.856 euroko aitzinkontuarekin

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak azaldu duenez, «iazko udan Arizkungo Ordokin arazoak izan ziren ur horniduran, idorteak eta ur isuriak tarteko».

Aurten hornidura sarea berritzeko memoria teknikoak idatzi du udalak, eta maiatzaren 18ko Tokiko Gobernu Batzordean lanak esleitzeko prozedura publikoa hasi zuten, 105.856,79 euroko aitzinkontuarekin. Memoria teknikoak 3.174,70 euroko kostua izan du eta lanaren zuzendaritzak 5.292,84 euroko balioa izanen du.

Kalkulatu dutenez, «ur-biltegitik etxeetarart eta Ordokiko poligonorat doan hornidura sarean, kontsumitutako uraren %60 inguru isuritan galtzen da». Gainera, «oraingo sareak 40 urte ditu eta PVCko hodiekin eginda-

koa da, ondorioz, hodiak kristalizatzen ari dira, malgutasuna galduz eta hausturak han-hemen nonahi gertatuz».

Hornidura sarea berritzeko, Ordokirat doan hodi nagusia aldatu dute, polietilenoazko paratuz, 110 milimetroko diametroa eta 960 metroko luzera duena. Gainera, arketak egingen dira, oraingo sarrera lotuak, eta zuloak betetzeko eta zolaberritzeko materialak beharko dira. Azkenik, etxeetako bi hornidura hodiak aldatuko dira; lehenak sei etxeri ematen die ura eta bigarrenak zazpiri.

Moldaketa hauekin ur-isuriak konpondu eta ura modu eraginkorragoan erabili nahi dute, «udako eskasiak saihesteke». Lanen esleipena egin da, sei hilabetez luzatuko dira.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ALMACO Eraikuntzako materialak



595€

Barbakoa RÚSTICA DB
 Altuera 221 cm
 Sakonera 60 cm
 Zabalera 145 cm
 Pisua 600 kg
 Aho zabalera 60 cm

395€

Barbakoa RIST REPISA
 Altuera 196 cm
 Sakonera 47 cm
 Zabalera 136 cm
 Aho zabalera 55 cm
 Pisua 430 kg




199€

Barbakoa RÚSTICA DB
 Altuera 190 cm
 Sakonera 47 cm
 Zabalera 68 cm
 Pisua 550 kg
 Aho zabalera 50 cm




89€

Parrilla kaxa
 Sakonera 38 cm
 Zabalera 64 cm
 Errautsetarako kaxarekin.



Pergolak

Galdetu prezioak eta stock-a



11,95 €/m2
Belarra CALPE



18,95 €/m2
Belarra DENIA



19,95 €/m2
Belarra AITANA NEO



22,95 €/m2
Belarra NEW PIAZZA



Baztango Udalak, ikastetxe eta guraso elkarteek, eta kultura eta kirol taldeek bat egin dute prozesuan, bailarako hezkuntza bere osotasunean lantzeko. UTZITAKOA

Baztan euskaldun eta inklusiboago baten alde

Oinherri elkartearen laguntzaz, Baztan Herri Hezitzaile bihurtu nahi dute, hau da, hezkuntza eskolatik eta etxetik haratago ulertzen duen herria. Horretarako, ezinbertzekoa dute plangintza osatzea, eta batez ere haurren eta nerabeen beharrak ezagutzea

R. OSKARIZ BAZTAN

Baztango Udala eta Oinherri, herri hezitzaileak sustatzeko elkarte, elkarlanean aritu dira 2020tik, Herri Hezitzaileen filosofiaren baitan. Aurtun, Baztango hezkuntza komunitate formal eta ez formalarekin batera, prozesu bat martxan paratu dute, Baztan Herri Hezitzailea bihurtzeko.

Bertako hiru eragileren talde lanean oinarritzen da prozesua: ikastetxeak eta guraso elkarteak, kultura eta kirol elkarteak, eta udala. Estrategia partekatatu bat eraike nahi dute, Baztango hezkuntza bere osotasunean eta modu integratzean lantzeko.

Prozesu hau aitzinera eramateko, hiru lan saio egin dituzte hondar hilabeteotan Arizkunenean.

Lehenbiziko saioa: egungo diagnostia

Bailarako hezkuntza eragileekin gaur egungo egoera aztertu zuten; herri hezitzaile bat lortzeko helburuak, indarguneak, ahulguneak eta erronkak. Eragile aunitzen parte hartzea izan zuten: udaleko zinegotzi eta teknikariak, Elizondoko Eskolako, Baztan Ikastolako, Herrietako Eskola Ttikietako eta Haur Eskolako irakasle eta gurasoak, kirol eta merkataritza elkarteak, Oinherriko sustatzaileak, Kerizu Beretik egitarazkoak...

«HAUR ETA GAZTEEK ERABAKI BEHAR DUTE ZER ETA NOLA NAHI DUTEN»

tasmoko partaidea... Batzarraren solasgai izan zituzten Baztango hezkuntza formala eta ez formala, kirola, merkataritza, ingurumena, hezkuntza ohiturak eta herrien egoerak, bertzeak bertze.

Bigarren saioa: balioak eta erronkak identifikatzea

Baztan hezitzailearen balioak zeintzuk izan behar duten definitu zuten, eta balio bakoitzak dituen erronkak identifikatu zituzten. Osotara, sei balio nabarmendu zituzten: natura eta jasangarritasuna;

«JENDEAK GOGOTSU ETA ILUSIOAREKIN PARTE HARTU DU PROZESUAN»

euskara eta euskal kultura; komunitatea eta auzolana; berdintasuna eta zaintza partekatua; inklusioa eta aniztasuna; eta emozioak eta heziketa osasuntsua.

Hirugarren saioa:

plangintzaren osaketa

Azken saioan identifikatutako erronketatik, bederatzitan ildo proposatu zituzten, eta hauetatik lau erronka lehenetsi dituzte:

- Aisialdi hezitzailea eta euskalduna egituratzea.

- Euskal kulturaren transmisioa sistematizatua, herri zaharrenek haurrekin lantzeko.

- Zaintza komunitarioa eta zaintza sareak sustatzea.

- Ailegatu berriendako harreraren plan bat diseinatzea.

Hauetara oraingo zehaztu dituzten lau erronka nagusiak. 2023/24 ikasturteko aitzinera hauen plangintza osatuko dute.

Hala ere, nabarmendu dutenez, lan saio hauetan helburu bakarrak parte hartu dute, eta haur eta nerabeen hitza aditzaileen inportantzia azpimarratu dute. Horretarako, parte hartze kanala zabalduko dute eta irailean berri ere bilduko dira. Hel-

du den urterako bi batzar gehiago aurreikusi dituzte, egindako lanaren balorazioa egiteko.

Balorazio positiboa

Oianko Gardek, azken agintaldiko Hezkuntza zinegotziak azaldu duenez, «Oinherriekin lan egitea erabaki genuen, Baztanen Herri Hezitzaileen filosofia bereko proiektuak genituelako dagoeneko, Kerizu Beretik elkarrekin batez ere bideratuak. Oinherriren jakintza interesgarria izanen litzatekeela pentsatu genuen. Geroztik, bilkurak, batzarreak, solasaldiak... egin ditugu». Duela 10 urte, Oinherri elkarrekin sortu zenean, herri hezitzaileen sare esperimentalak sortu zuten, eta Baztan izan zen proiektuan sartu zen lehenbizikoetako udalerria. Hala ere, geldialdi une batean zegoen prozesua, eta horregatik berrartu zuten.

Baztanek eragile ugari ditu hezkuntzaren arloan, eta joan den urteko neguan erabaki zuten, bakoitza bere aldetik joan beharrean, eragile guztiak prozesu berean batzea, «etorkizunerako plan bat lantzeko. Jende aunitz inplikatu da, ilusio haundiarekin, eta lan egiteko gogoia ikusi dugu. Parte hartzearekin eta prozesuarekin kontent gaude, eta balorazio ona egin dugu».

Bileretan, «hainbat lan ildo zerrendatu ziren, baina bistan da etorkizuneko plan erreala bat egin nahi badugu, ez ga-

rela denarekin batera hasten ahal. Hala ere, gazte eta nerabeek ez dute prozesuan parte hartu, eta haiekin kontrastatzea da inportanteena. Horregatik sortuko dugu parte hartze kanala, erronka hauek haiekin lantzeko eta beraien hitza aditzeko. Haur eta nerabeek erabaki behar dute zer eta nola nahi duten, ez helduok erraten dieguna».

Prozesua hurrengo ikasturtean paratuko dute martxan, «baina horrek ez du erran nahi dena urte horretan egin behar denik. Lau urteko plana izanen da, eta erronka bakoitzari ematen diogun dimentsioaren arabera, gogorragoa edo apalagoa izanen da lana».

Garderen hitzetan, «Hezkuntza zinegotzi naizen aldetik, landu dudako proiekturik politena iruditzen zait, jendea parte hartzeko gogotsu ikusi dut eta horrek bete nau. Nire esker onak prozesu honetan parte hartu duten guzietan eta etorkizuna izatea espero dut».

Gainerako partaideek ere ongi baloratu dute orain arte egindakoa, «batez ere hainbertze eragile elkartzea, elkar ezagutzeko gune bat izatea eta elkarrekin Baztango hezkuntza proiektuaz hausnartzeko aukera izatea». Kezka orokortu bat ere agertu da; «ea gai izanen garen lanketari jarraipena emateko eta horretarako ditugun indar eta baliabideak nahikoak ote diren». Denborak erranen du.

«Baztanen jendeak jarri dion ilusioak eta gogoak asko harritu nau»

MAITE AZPIAZU ERRAZKIN OINHERRI ELKARTEKO KIDEA

Euskal Herriko Herri Hezitzaileen sarea sustatzen duen elkartea da Oinherri, 16 elkarrekin sustatzailek eta 35 udalerritariek osatzen dutena. «Ekintzaren, ezagutzaren eta esperientziaren bidez, Herri Hezitzaileen filosofia ekarri nahi dugu geure herrietara. Hezkuntza ulertzeko modu zabalago bat da, hezkuntzaren ardura familia eta eskolaren gain gelditu baita, haurtzaroen hasi eta bukatzen den zerbait bezala irudikatua. Guk ikuspegi hau zabaldu nahi dugu; hezkuntza herrian dago, aisialdian, kirol taldeetan, kulturaguneetan... jaiotzen garenetik hiltzen garen arte herriko eragile hezitzaileak eta hezigarriak gara. Honi aurre egiteko, kontzientzia zioa proposatzen dugu, herri bakoitzak zein balioetan hezi nahiko lukeen erabakitzeko». Gainera, garbi dute «hau euskarara ekarri eta euskaratik aberastu behar dugula, teorian eta praktikan».

Aurten, «hiru saioko prozesua egitea proposatu genuen Baztanen. Lehenbizikoan non gauden ikusi genuen, bigarrenan nora joan nahi dugun irudikatu genuen eta hirugarrenean nola joanen garen planteatu genuen. Orain asmoa plangintza martxan jartzea da, erronkei forma ematen hasteko. Irudikatzea polita da, baina orain dator zailena».

Azpiazu Gipuzkoako herrietan aritzen da batez ere elkarrekin, «eta Baztango kasuan gehien harritu nauena izan da jendeak jarri dion ilusioa eta gogoia. Parte hartzaileek asko baloratu dute elkargune bat sortzea, babes sentimendua ematen baitu. Eragile asko elkartu dira eta balorazio oso positiboa egin dugu denok».

Etorkizunera begira, «denbora eta indarrak neurtu behar dira proiektuak garatu ahal izateko eta jarraipen bat izan dezaten. Proiektu egingarriak izan behar dira, kristoren lan karga suposatzen ez dutenak. Ondo antolatzen bagara eta pauso txikiak baina sendoak ematen baditugu, Baztanen gauza oso politik egiten ditu lan talde honek».



asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 Lesaka
T. 948638077

Berroetako mendi lasterketa euritan blai baina giro onean

Eguraldia lagun ez bazuten ere, euriteak ez zituen lasterkariak beldurtu

MAIALEN IANTZI

Berroetako VI. Mendi Maratoi Erdia maiatzaren 14an egin zen. Hasiera batean bi ibilbide ziren egitekoak, 21 km eta 15 km-koak, baina eguraldi txarra zela eta, lasterkari guztiek bigarren ibilbidea egin zuten. Beraz, aurten Berroetatik hasi, Elorregi igo, Olarira jaitsi eta Larraldetik barrena etorri ziren herrira. Izena eman zuten 80 lasterkarietatik 75ek parte hartu zuten.

Herrira ailegatzen lehendabizikoa Ioan Tabar Clemente (01:11) izan zen, bigarrena Jokin Arretxea Lastiri narbar-tearra (01:13) eta hirugarrena Unai Barazabal Erasun azpil-kuetarra (01:14). Emakumeetan, aldiz, Nerea Goikoetxea Ariz-mendi eta Olatz Azazeta Pelaez izan ziren garaileak, biak elkarrekin sartu baitziren plazara

(01:36), eta hirugarrena Lorena Campomar Baez (01:44).

Lasterkariak eta boluntarioek eguraldi benetan kaxkarrari egin behar izan zioten aitzin; kaxkabarra, euri ikaragarriak, ortotsak... Errekak ere urez gainezka zetozen eta bide xendak, erreka bihurtuta. Zailtasunak zailtasun, egoerak xarma berezia eman zion lasterketari, ingurune benetan basatian ibiltzeko aukera izan baitzuten. Oztopo natural hauek gainditzeko, bidean banatuta zeuden boluntarioen lana ezinbertzekoa izan zen.

Lasterketa igandean jokatu zen arren, auzolana ortzirale-tik hasi zuten herritarrek; bilerak, mendia markatzeko lanak... Eta akabera borobila emateko, boluntarioen bazkaria egin zuten herriko plazan. Asteburu euritsu bezain polita!



75 lasterkariak parte hartu zuten lasterketan. MIKEL HUALDE ETA JUAN MARI ONDIKOL



ANELAN
LAN BERTIKALAK

948 031 174
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabrikan konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, teilatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.





ANZABAL
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



MUGARKI
ROKODROMOIA ETA GIMNASIOA



622 90 30 55 • kaixo@mugarki.com • @mugarki_
Ordoki poligonoa. ARIZKUN

508.000 euroko dirulaguntza garbigunerako

Garbigunea Iruritan egiten dute eta urte hondarrerako egina egotea aurreikusi dute

TTIPI-TTAPA

Baztango etxeetako hondakinak biltzeko zerbitzua edukitzeko, garbigune bat eraikitzeko proiektuarekin ari da azken urteetan udala. Proiektuak 807.268,15 euroko aitzinkontua dauka, eta aste honetan Nafarroako Hondakin Partzuergoaren dirulaguntza erdietsi dute, 508.045,55 eurokoa. Horri Next Generationetik 118.414,80 euroko laguntza eta Hondakin Funtsetik 111.557,80 euro gehitu behar zaizkio. Ondorioz, udalaren gain 69.250 euro geldituko dira.

Garbigunea Iruritan egiten dute, Zaldubiko industrialdean zehazki, hor ikusi baitu udalak lurzoru egokia zerbitzua antolatzeko.

Honez gain, hasierako proiektua moldatzeko esleipena egin dute aste honetan, Nafarroako Gobernuak aginduta, inundagarritasun arriskuak saihesteko. Ramon Preciado Jimenezi eman dio proiektuaren moldaketa 20.759 eurotan, eskaintza

hoberena egin baitu prozedura sinplifikatuan.

Herriarendako zerbitzua

Garbigunearekin, baztandarrak etxeetako eta komertzioetako hondakinak uzteko toki berria izanen dute.

Alde batetik hondakin bereziak uzteko aukera izanen da, hau da, pinturak poteak, bateriak, produktu kutsatuen ontziak, luminariak, zirrikak, plastiko gogorrak (mahaiak eta kaxak, adibidez), motoreko olioak... Bertzalde, traste haundiak ere uzten ahalko dira: adarrak, zurak, hondakin metalikoak...

Gainera, etxez etxe biltzen diren traste haundiak gordezteko lekua izanen da. Etxeetako zein komertzioetako hondakinak sailkatzeo erabiliko dute, baita ondotik tratamendu gunerat eramateko ere.

Proiektua aspaldian abiatu zuen udalak, baina lurzoru egoki baten faltan gibeleratua izan zen. Orain, urte hondarrerako egina egotea aurreikusi dute.



Hainbat ekitaldi prestatu dituzte Bestaberri bestetarako. ARTXIBOTIK

Almandozko bestak ekainaren 7tik 11ra ospatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Iruritan eta Berroetako bes-ten ondotik, almandoztarrek egitaraua prest dute herriko bestak ospatzeko.

Ekainak 7, azteazkena, bezpera. 20:00etan txupinazoa. 20:30ean kalejira musikarekin eta buruhaundiek alaiturik. 21:00etan baztan zopak, Beñatek alaiturik.

Ekainak 8, ortzeguna, Bestaberri eguna. 08:00etan Aurora parroikiko abesbatzarekin eta Bixente akordeoi-lariarekin. 12:00etan meza nagusia eta prozesioa. 13:00etan luncha herriko frontoian. 17:00etan herritarren arteko desafioa. 20:00etan tortilla patata lehiaketa eta 21:00etan afaria. 00:00etan DJ Itzoto.

Ekainak 9, ortziralea, haurren eguna. 11:00etan haur jokoak. 16:00etan haurren-

dako puzgarriak arratsalde osoan. 17:30ean mus txapelketa. 18:00etan haurrendako txokolatada. 21:30ean herri afaria. 00:30ean dantzaldia Gabezin taldearekin. 06:00etan zingar jatea gaurtxorientzat. Joan-etorri bus zerbitzua izanen da.

Ekainak 10, larunbata, zikiro eguna. 11:00etan mus txapelketako final erdiak eta finala. 13:00etan mus txapelketako sarien banaketa eta herri buelta Zubietako joaldunek alaiturik. 14:00etan zikiro jatea. 16:00etan mahai inguruko kantak Beñatekin. 21:30ean gazte afaria. 00:00etan DJ Kapitan General.

Ekainak 11, igandea, azken eguna. 12:00etan meza nagusia. 17:30ean herri kirolak. 20:00etan sarien zozketa. 22:00etan Gaixoa ni.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13

BERTAKO IRAKASLEA

Matrikula irekita abuztuaren 31ra arte

Lehen hezkuntza
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

Baztango Mindeitzeren kantaldia Erratzun

Thierry Biscaryk zuzendutako Kantu Herrikoiak ikastaroko ikasleek kontzertu ibiltaria eman dute Erratzuko karriketan ekainaren 2an. Herriko plazan 19:00etan izanen da hitzordua. Euria egiten badu, Erratzuko elizan egiten dute kantaldia.



Elutxa txarangak alaitutako zikiro-jatea. ARANTXA ETA IRAIA



Herriko pilota gazteek beraien partidak jokatu zituzten. ARANTXA ETA IRAIA

Salbatore bestak giro ezin hobean ospatu dituzte

Igande arratsaldeko pilota partida ikusgarrian Xalax eta Pascualek irabazi zieten Mikel Goñiri eta Azanzari

ARANTXA ETA IRAIA

Bestetarako prestaketa guztiak egin ondotik, herritarrek eta hurbildu ziren guztiak Urdazubiko Salbatore bestez gozatzeko aukera izan zuten. Horrela, giro ezin hobea izan zen herrian maiatzaren 17tik 21erat.

Herriko trikitilarien soinuarekin hasi ziren bestak, asteazken arratseko txupinazoarekin eta ezkila-jotzearekin. Akitu, berriz, boletoen zozketaren sarituekin akitu zen, igande arratsean. Aurten, berrikuntza gehienak pilota munduari lotuta egon ziren: ortzirale

arratsaldean herriko pilotari gazteek partidak jokatu baitzituzten. Gainera, igande arratsaldean ere pilota partida polita izan zen: Xala eta Pascual, Mikel Goñi eta Azanzaren kontra aritu baitziren. Irabazleak Xala eta Pascual izan ziren, partida estuaren ondotik.

Otorduetan jende andana

Urteroko gisan, otordueta ere jende andana bildu zen. Paella jatean 100 pertsona inguru bildu ziren eta zikiroan 300 inguru. Musikaz alaiturik, herritar guztiak biltzeko pa-



'Beteranoak' ere gustura egon ziren mahaiaren inguruan. ARANTXA ETA IRAIA

rada bikaina izan zen, giro bikainean. Gazteez gain, haurrek ere aski ongi pasatu zuten puzgarri eta jokuetan, argazkian ikusten ahal den moduan.

Zozketa

Zozketaren sarituak ere atera ziren. Lehen saria 5719 zenbakiak eraman zuen, bigarrena 5537 zenbakiak eta hirugarrena, azkenik, 6594 zenbakiak. Saridunak herriko bestetako komitearekin kontak-

tuan paratu behar dira saria hartzeko.

Bestak akituta biltze lanekin ere aritu dira, gauza guztiak bildu eta heldu den urteko besten esperoan gelditzea bertzerik ez da gelditzen. Aurtengoak behintzat ederki profitatuak gelditu dira!

Dena den, herriko besten ondotik, Mendekoste bestak ere ospatzekoak zituzten astelehen honetan Dantxarinean, ohiko gitarrarekin.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
HERRIARRIEN ERREKREAZIOA

Montxo
JATEKETA • ERREKREAZIOA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com



ARANTXA ETA IRAIA

San Isidro eguna ospatu dute laborariek

Maiatzaren 15ean San Isidro besta ospatu zuten Urdazubin ere. Laborarien egun honetan goizeko hamaikatan meza izan zuten eta gero Otsondo jatetxean elkartu ziren, bazkari on batez gozatzeko. Hamabortz lagun inguru bildu ziren laborarien besta hau giro ederrean ospatzeko.



Cala Valdes balleta Larrekon izanen da. UTZITAKOA

Cala Valdes balletak emanaldia eskainiko du ekainaren 10ean Senperen

TTIPI-TTAPA SENPERE

Jennifer Cala Valdesez zuzentzen duen balletak emanaldia eskainiko du **ekainaren 10ean**, larunbatean 20:30ean Senperereko Larreko aretoan. Ordu eta erdiko ikuskizunera sartzeara 18 euro gostako da.

Ekaineko kultur egitarauak **hilaren 16an** musikarekin

izanen du segida Larrekon. Ortziralean 20:00etan hasita, Iparraldeko Orkestrak Europa erdialdeko eta ekialdeko musika herrikoia errepertorioa joko du. Sartzeara: 15 euro.

Ekainaren 17an, larunbatean, berriz, Kixka Antzerki jaialdiko emanaldiak izanen dituzte.

VENTA PEIO
GEBIAGO EMATEN DIZU

BARDIN 11760 Bera BEHOBA 20305 Iruñ LUZAIDE 31660 Luzaldea DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunean irekia, astehenetik igandera arte
*Abenduaren 25' eta urtarrilaren 7' izan ezik

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

ORBELA
SINKRONIA ABERRIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOA

Proiektu, baimen eta diru laguntzen gestioa
Amortizazio planen azterketa

ELEK BERRI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

Ezin dutenendako auto laguntza zerbitzua prest

Astearte eta ortzegun goizean beraien etxean hartu eta herriko dendetan erosketak edo egitera lagunduko dituzte

GANEX

Borondate oneko jende batzuk beraien gisara kapable ez diren jendeak laguntzeko auto laguntza eskaintza egin dute. Beraien autoarekin etxeetara joanen dira bila eta lagundu erosketak edo komisionek egiteko herriko dendetan, astearte eta ortzegunenetan 09:00etatik 09:30era, ereiaroaren 1etik aitzinera.

Interesaturik daudenek behar dute izena eman herriko etxean, berantekin bezperan, erran nahi baita astelehen edo asteazken goizarekin deituz

05 59 54 20 28 telefonora edo internetez, ccas.saran@gmail.com helbide elektronikoan eta galdegilearen bila bere etxera joanen dira egun horretan.

Urririk den zerbitzu hau adineko eta bakartuak diren presunei eskainia da, baita mugikortasun arazo puntual bat dutenei ere. Ekainaren lehenean hasiko da eta ez ditu taxi profesionalen eta galdegiten ahal diren gidariekin antolatutako garraioak (herrikanpoko erosketak, medikuarekin edo bertze zerbitzuekin hitzorduak...) ordezkatzen.

Beteranoen Eguna ospatu zuten maiatzaren 8an

Beteranoen eguna ohoratu dute. 30 bat baziren auzapezak loreak eman ditu beteranoen Hil Harrian eta Bittor Iturriaren Harrian, Senpereko klinkatik baziren bi musikari etorriak, Philippe Esponda eta Dylan Alunda. Aperitifaren ondotik denek Plekan bazkaldu dute.



Beteranoen eguna. GANEX



GANEX

Beztimenta feria Goxo Lekuren alde

Maiatzaren 20an, larunbatarekin, ospatutako Beztimenta ferian jende aintz ibili da Lurberri gelan. Azoka hori antolatua zen laguntza ekartzeko Goxo Leku elkarteari. Talde hori sortua da minbizia dutenak edo pasatu duten jendeak laguntzeko eta goxotasun bat emateko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Etxeberrigarai seigarren Baigorri

Baigorriko Ultra Trail mendi lasterketa egin zen maiatzaren 19an. Sarako Patxi Etxeberrigarai korrikalariak parte hartu zuen, ez nolana gainera, seigarren postuan bukatu baitzuen 130 kilometro luze eta 7.500 metroko desnibel positiboa zuen ibilaldia, 17 ordu eta 53 minututan.

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak

Menuak, kartak, mahai-oihalak...

Hainbat material, erabat pertsonalizatuta



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com





Neomak taldearen emanaldia aterkipean ikusten eta aditzen. **HERRI URRATS**

Herri Urrats euripean ospatu behar izan dute

Bosgarren kolegioaren paretak finkatuak badaude ere, elkartasunerako deia egin du Seaskak

JL BESSONART

Herri Urratsen 40. edizioa ez da ahaztekotan. Bezperako uholdeek arriskuan emana zuten ekitaldiaren gauzatzea, antolatzaileek agintariekin batera erabaki zuten besta mantentzea. Baldintza berriek bestaren eremua murriztu zuten eta jarduera gehienak Araba gunean bildu ziren.

Usaian autoen aparkatzeko baliatzen diren laborantzako landak ezin erabiliak ziren. Gainera eguraldiak txarrera egin zuen. Eguerditik laster zaparradek berriz ere ureztatu zituzten jende eta bazterrak.

Jende gutiago bildu baldin bazen ere, denek kementsu erakutsi zuten zer atxikimena dioten euskarari. Zinez arratsalde bikaina bihurtu zen, besta giro ezin hobean, milaka jende dantzan, kantuz eta euskaraz ari, bihotz altxagarri izan zen. Irabazi guti sortuko dira, halere 5. Kolegioaren paretak ongi finkatua diradanik, heldu den eskola sartzeari buruz. Kattalin Elizalde deituko dute, emazte hori, XVII. mende hastapenean, bertze anitz bezala erretzera kondenatu zuten, sorginkeriaz akusatu ondotik.

Euskal populuaren oroilekua ezarri dute Helbarrun eta Ibarrun artean

JL BESSONART

Anai-Artea elkarteak, eraikia du euskal populuaren historiaren oroileku berezi hori Helbarrun eta Ibarrunen juntan, Zubiondoko karrika motzeari. Maiatzaren 27an, joan den larunbatean iragan beharra zen estreinaldia.

Gehienek ez dugu ezagutzen euskaldunen historia, toki honetan 22 gertakizun garrantzitsuenen ezagutaraztea dute xedea, aurrehistoriatik hasi eta Lizarra-Garaziko akordio-raino (1998). Horretarako, hamabi historialarik lan egin dute elkartearekin, bakoitza-

Uholdeak kalteak eragin ditu maiatzaren 13an

Gure ibai estimagarriak urtero bat egiten digu. Maiatzaren 13an bere ohetik tupustean atera zen, beharrik atertut baitzuen arratsari buruz eta emeki-emeki bere bidea hartu. Harridura sortu da ikusiz zoin abiadura azkarrean goiti egin duen, euri erauntsiak, eten gabe jarraian heldu baitziren.



JL BESSONART



UTZITAKO ARGAZKIA

Ellande Larronde txapeldun

Herriko bizikleta sekzioa, 52 kidez osatua, sekulako emaitzak eskuratzen ari da, bereziki gazte mailetan. Baionako talde azkarrari juntatzen dira aunitzetan. Azken balentrietan, junior mailako Ellande Larronde herritarrak, departamenduko titulua lortu du, Gourette herrian irabaziz.

ren berezitasunak segiz, gertakari horiei buruz bildurik informazio zehatzak. Ondotik azalpen bideo argi, labur eta eleanitzak sortu dituzte, lekuan bertan den QR kodearen bitartez begiratzen ahalko direnak.

Oroilekuaren gunean aurki daitezke, gai hauei buruzko argibideak, hala nola: Gunearen plano eta memorialaren webgunearen helbidea,

Anai-Arteari buruzko argibideak, hamabi historialariren zerrenda, landu diren gertakizunak, euskaldunen historiaren kontakizun labur bat haurrek kondaturik edo Jauzarrea Euskal Kultura ikertzeko eta zabaltzeko fondoaren ekarpena.

Noiznahi jauzi bat egin dezakezue, izanena da zer ikusi eta zer ikasi, hutsezineko gunea da euskaldun guziendako.



VIII. Goizutrail lasterketan podiumean izan ziren korrikalariak. FELIX LOIARTE

Hodei Lujanbio garaile izan zen bere herriko Goizutrailean

Goizuetarra nagusi izan zen ibilbide luzean eta laburrean, berriz, Aimar Otxoteko lesakarra izan zen bizkorrena

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Maiatzaren 20an, goizaldeko euri eraunsi gogorren ondotik jokatu zen Goizuetan Goizutrail lasterketaren zortzigarren edizioa, Ohi bezala, bi ibilbide izan zituzten aukeran: bat 10,6 kilometrokoa eta bestea 25,2 kilometroa. Ibilbide luzean Hodei Lujanbio goi-

zuetarra (1.45.32) eta Naroa Uria Olaizola (2.15.56) nagusi ziren eta laburrean, berriz, Aimar Otxoteko lesakarra (50.37) eta Ainhoa Arruti urnietarra (1.02.41). Denera, 122 korrikalarik egin zuten lasterketa, euriari aurre eginez.

Ibilbide luzea 47 korrikalarik bukatu zuten eta horien artean,

Soronea taldeko Hodei Lujanbio goizuetarra izan zen bizkorrena (1.45.32). Txurregi taldeko Aitor Etxeberria iruindarrak (1.46.11) eta Hernaniko Jon Ander Olazabalek (1.50.54) osatu zuten podiuma. Aipagarria da Unai Iantzi aniztarra bosgarren helmugaratu zela (1.51.30). Emakumeen artean, Azpeitiko Naroa Uria izan zen bizkorrena (2.15.56), Azkarateko Olatz Altuna bigarren (2.43.34) eta Irungo Montse Fernandez hirugarren (3.19.39).

Laburrean Otxoteko lesakarra

Ibilbide laburra 75 korrikalarik osatu zuten. Gizonezkoen artean, esan bezala, Lesakako Beti Gazteko Aimar Otxoteko izan zen bizkorrena (50.37) eta Bergarako Unai Asulak (52.28) eta Azkoiengo Miguel Hernandezek (52.49) osatu zuten podiuma. Aipagarria Berako Mikel Eltzaurdiak (55.40) eta Iturengo Oier Mikelarenak (57.14) lortutako seigarren eta zazpigarren postua. Emakumeen artean, Urnietako Ainhoa Arruti izan zen bizkorrena (1.02.41), Uitziko Guratz Azpiroz (1.03.49) eta Donostiako June Lopezen aurretik (1.03.49).

VIII. GOIZUTRAIL

IBILBIDE LUZEA

- 1.Hodei Lujanbio-Goiz. 1.45.32
- 5.Unai Iantzi-Aniz 1.51.30
- 13.Beñat Saralegi-Leitza 1.58.29
- 15.Gorka Bermejo-Leitza 2.02.57
- 21.Patxi Etxeberria-Goiz. 2.08.25
- 24.Markel Etxarte-Etxalar 2.11.06
- 29.Iñaki Etxeberria-Goiz. 2.19.07
- 36.J.Alberto Rquez-Leitza 2.31.10
- 39.Zigor Sagardui-Goiz. 2.42.54

IBILBIDE LABURRA

- 1.Aimar Otxoteko-Lesaka 50.37
- 6.Mikel Eltzaurdia-Bera 55.40
- 7.Oier Mikelarena-Ituren 57.14
- 14.Aimar Leatxe-Donam. 59.38
- 19.Julen Larretxea-Donex. 1.01.28
- 54.Ibai Iribarren-Urroz 1.19.38
- 56.Andoni Larralde-Les. 1.20.35
- 57.Elur Cambroner-Bera 1.21.44
- 67.Ane Gurrutxaga-Les. 1.26.52
- 68.Maria Iantzi-Igantzi 1.26.54
- 69.Iñigo Martinez-Bera 1.29.08
- 70.Andoni Mtnez-Bera 1.29.10
- 72.Jaione Ariztegi-Urroz 1.32.38
- 73.Janire Bakero-Goiz. 1.32.40



Hodei Lujanbio herrian txapeldun.



UTZITAKOA

Alize Sagardui txapeldun Antzuolan

Antzuolako San Isidro pilota txapelketako finalak jokatu zituzten maiatzaren 13an. Benjamin eta alebin mailan, Uxue Gomez (Ardoi) eta Umore Onako Alize Sagardui goizuetarrak 18-12 irabazi zieten Amaiur Landa eta Irati Bengoetxeari eta honela, txapela Goizuetara ekarri zuen Sagarduik.



UTZITAKOA

Irati Arozena txapeldunorde Zizurren

Emakumezkoen esku pilotako III. Nafarroako Torneoko senior mailako pilota goxoko finala jokatu zuten maiatzaren 13an Vianan. Umore Onako Irati Arozena goizuetarrak, Altsasuko Sonia Irisekin batera 9-18 galdu zuen Gernikako Amaia Zarrabeitia eta June Urrutikoetxearen kontra.



Amaiur, Beti Gazte eta Araxes, emakumeen podiumean. UTZITAKOAK



Beti Gazte txapeldun, Berriozar bigarren eta Amaiur hirugarren gizonetzkoetan.

Beti Gazte txapeldun eta Amaiur podiumera igo da

Nafarroako launakako sokatira txapelketako pisu arinetako azken tiraldiak Elizondon egin zituzten maiatzaren 20an

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Nafarroako launakako sokatira txapelketan gizonetzkoen eta emakumezkoen pisu arinetako (300 eta 235 kilo) txapelketako bigarren jardunaldia Elizondoko Baztan pilotalekuan jokatu zen maiatzaren 20an. Bi kategoría hauetako txapelak Lesakako Beti Gazte

jantzi zituen, tiraldi guztiak irabazita. Honela, Nafarroako launakako sokatira txapelketako txapel guztiak jantzi ditu Lesakako taldeak.

Emakumezkoetan, laukote txapeldunetan tiran aritu ziren Irantz Goienetxe, Ainhoa Etxegarai, Maialen Lopez eta Ainhoa Ubiria, Unai Gurrur-

txaga entrenatzaile eta Ainhoa Aldai oiartzuarra laguntzaile zutela.

Bigarren posturako lehia estua izan zuten Amaiurrek eta Araxesek eta azkenean amaiurtarrek lortu zuten txapeldunorde izatea.

Gizonetzkoetan, lesakarrekin batera, Berriozar bigarren eta Amaiur hirugarren igo ziren podiumera. Beti Gazteko laukote txapeldunetan Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Iñigo Altzugarai eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Ander Mitxelena entrenatzaile zutela.

20 urtez behetikokategorian, Antsoain A izan da txapeldun, Berriozarko bi taldeen aitzinetik eta kadete mailan, alde-

rantziz, Berriozar nagusitu da, Antsoain A, B eta Cren aitzinetik. Amaiurko gazteak zazpigarren izan dira 20 urtez behetikokategorian.

Denboraldi bukaera

Elizondoko tiraldiekin, Nafarroako sokatira taldeek bukatutzat emanen dute udazkenean hasi zuten denboraldi luzea. Beti Gazterentzat, bereziki emankorra izan da, Nafarroa, Euskal Herria eta mundu mailan garaipenak lortu baititu. Udako atsedendialdiaren ondotik, denboraldi berri bati ekinen diote udazkenean, 2024ko otsailean Suediako Helsinborg hirian jokatu den munduko txapelketa begi-bistan dutela.

Xabier Gallardon eta Goiuri Urria garaile Infernuko karrera moto-kros proban

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 14an, igande euritsuan jokatu zen Lizarraldeko Oteitzan Infernuko karrera moto-kros proba entzutetsua. Berako Katarri taldeko motor gidariek emaitza bikainak lortu zituzten. Etxalarko Xabier Gallardon Eugik senior mailan eta sailkapen orokorrean eta Lesakako Goiuri Urria Yécorak kadete mailan garaipena lortu zuten. 11 urte bertzerik ez dituen Ekaitz Errandonea Iribarren beratarrak ere kadete mailan parte hartu zuen, eta halere, hirugarren izan zen.



Urria eta Errandonea Oteitzan.

Doneztebeko Alejandro Irigoien Telletxeak ere lasterketa ederra egin zuen. 15 urterekin, trofeo kategorian lehia-tu zen, helduekin batera, eta hirugarren izan zen.



UTZITAKOAK

Uxuri Portu Espainiako kopan txapeldun

Espainiako trial kopako azken proba irabazi zuen Uxuri Portu lesakarrak maiatzaren 6an Bejarren (Salamanca) eta honenbertzez, 9 eta 12 urte arteko nesken kategorian Espainiako kopa irabazi du. Lau probetatik bi irabazi ditu Portugal eta bertze bietan bigarren izan da.

AGENDA

EKAINAK 1 - 15

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ETXALAR XXX. Gasna eta Artisanu feria

Lehiaketak, tailerrak, musika, azokak, erakusketak, proiektzioak...
Ekainaren 3an eta 4an. Altxata elkarteak antolatua.

BESTAK

ALMANDOZ
Bestaberri bestak
Ekainaren 7tik 11ra.

AZOKAK

GOIZUETA
Mendialdeko Azoka Ibiltaria
Ekainaren 3an.

ETXALAR
XXX. Gasna eta Artisanu Feria
Ekainaren 3an eta 4an.

ELIZONDO
Baztango Artisanuak eta Nekazariak
Plazan, ekainaren 3an eta 10ean, goizez.

JARDUNALDIAK

URROZ
Udaberriko besta
Ekainaren 3an.

GOIZUETA
I. Txondor eguna
Ekainaren 3an.

DONEZTEBE
XV. Errekaren eguna
Erreka Kirol elkarteak eta Gazte Burrunbak antolatua.
Ekainaren 3an.

LEITZA
IX. Euskal Herria Mendi Erroka
Plazatik, ekainaren 3an, 08:00etan.

BERA
Ibardingo VII. Igoera
Ziharka Sportek antolatua.
Ekainaren 3an.

Dantzari Tiki eguna
Gure Txokoak antolatua.
Ekainaren 10ean, 10:30etik aitzinera.

ITUREN
Udaberriko besta
Pulunpa eskolak antolatua.
Aurtitzen, ekainaren 9an.

MUSIKA

ERRATZU
Baztango Mindeitzeren kantaldi ibiltaria
Plazatik, ekainaren 2an, 19:00etan. Euria egiten badu elizan egingen dute.

BERA
Entretatak taldearen kontzertua
Katakun, ekainaren 3an, 12:00etan.

LESAKA
Lesakako soinularien kontzertu dinamikoa
Ekainaren 9an, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

BERA
Mugaz Gain antzerkiak
Labiaga ikastola, Donibane lizeoa, Jesusen Bihotza eta Ricardo Baroja eskolen eskutik.
Kultur etxean, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra.

SENPERE
Ballet Cala Valdes

Larrekon, ekainaren 10ean, 20:30ean. Sartzeak 18 eurotan.

LESAKA
Musika, antzerkia eta xortak

Bortziritako Bertso Eskolaren eskutik.
Karrketan, ekainaren 10ean.

'Hnuy illa' dantza ikuskizuna
Kukai dantza taldearen eskutik.
Harriondoan, ekainaren 11n, 19:00etan. Sarrerak 10 eurotan lesaka.eus-en.

TAILERRAK

BERA
Pornografia eta sexualitateari buruzko tailerra irakasle eta gurasoentzako

Berlandetan, ekainaren 6an, 17:00etan. Izen ematea berdintasuna@bortziriakberd.eus helbidean eta 722 69 30 78 zenbakian.

LEITZA
Zirku tailerra

Zirkun Zirko zirku eskolaren eskutik.
Plazan, ekainaren 11n, eguerditik aurrera. Sarrerak lau eurotan.

ARESO
Soinu eta jolas tailerrak haurrentzako

Haizea Loiraren eskutik.
Ekainaren 13an eta 19an.

BERTZELAKOAK

LESAKA
X. Elias Garralda margo azkarreko lehiaketa
Beti Gaztek antolatua.
Ekainaren 4an.

«Artista batek argi izan behar du zer eta zertarako sortzen ari den»

KATTALIN ARIZMENDI ANDUEZA ELIZONDOKO MUSIKARIA



20 urteko elizondoarra da Kattalin Arizmendi, Txokoto auzoan sortu eta bizi dena. Magisteritza ikasten ari da Donostian, eta hainbat zale-tasun ditu: «mendian ibiltzea, eskalada, maite dudan pertsonekin egotea... eta musika, sortzea nahiz entzutea».

Ttikitatik kantari

«Ttiki-ttikitatik aditu dugu musika etxean, eta osaba margolaria zenez, artea presente genuen familian. Ikastolan ere musikak eta dantzak garrantzia handia zuten». Elizondoko Musika Eskolan kantatzen eta bibolina jotzen hasi zen bederatzitertan, «eta gaur arte musika beti egon da nire bizitzan».

Gaur egun, «kantuko klaseak hartzen ditut Donostiako akademia batean, eta gitarra da gehien jotzen dudana instru-

mentua». Horrez gain, «ukelelea pixka bat jotzen ikasi dut, lagunekin norabait joatean eraman ahal izateko, eta pianoa ikasten hastea gustatuko litzaidake heldu den urtean. Pixka bat denetik, baina deus ere ongi!».

Taldean eta bakarka

Musika Eskolan zegoelarik, «talde bat egitea bururatu zitzaigun, baina ideia ez zen aitzinerat atera. Orduan, futbol taldetik laguna nuen Maialen Jaurenari proposatu nion, eta Joanes Altxu eta Irati Elizalde ere animatu ziren».

«MUSIKA HAIZE FRESKOA IZATEN DA MUGIMENDU SOZIALETAN»

Bakoitzak bere etxean egiten zuen musika plazaratu nahian, Lau Haizetara taldea sortu zuten lau gazteek. «Kontzertu batzuk egin genituen Baztanen eta Urdazubín, eta kontent aritzen ginen. Arras esperientzia polita izan zen».

Hala ere, eguneroko egin-beharrak medio, taldea banatu egin zen eta bakarlari gisa aritzen da gaur egun Arizmendi. Apirilean eman zuen bere lehenbiziko kontzertua: «ez nuen bakarlari izateko asmorik, baina Txokoto tabernako Mintxok deitu zidan, ostatuan kontzertu bat eman nahi nuen galdetzen, eta gurasoen bulkadarekin animatu nintzen». Esperientzia «arras polita» izan zen; «bakarkako lehenbiziko aldia izateko, arras ongi sentitu nintzen».

Musika lagun

Baina hau ez du lehen aldia gitarrarekin oholtzaren gainean; Erdiz Bizirik plataformak Elizondoko deitutako manifestazioan Jon Maiordomorekin abestu zuen, eta berriki EH Bilduren udal ekitaldian Malen Alzuart izan zuen lagun eszenatokian. «Musika haize freskoa izaten da mugimendu sozialetan. Ekitaldi guzietan musikara, dantzara, poesiara... jotzen da, dinamikoagoa egiten duelako. Bertze sentimendu eta xarma bat ematen diote».

«Gehienbat bertze artisten bertsioak» jotzen ditu, «baina etxeko zerbait sartzea gustatzen zait. Donostian urte batez Malen Alzuartekin bizitzen aritu nintzen, eta berak idazten duenez, kanta bat egin genuen elkarrekin, berak letrak

eta nik doinua. Ez naiz sobe-
ra trebea idazten, eta letraren
bat hartu edo norbaiti eskatu
behar izaten diot zerbait sor-
tzeko». Horrez gain, «osabak
bere margolanetan bazituen
letra batzuk hartu, moldatu
eta kanta bat sortu nuen».

«Pop eta kantautore musi-
ka» da gehien lantzen duen
estiloa; «oraindik ez dut hain-
bertzeko trebetasunik gitarra-
rekin, eta lehenbiziko oinarri
bat egin nahi dut, aitzinerago
nahi izanez gero estiloz alda-
tu ahal izateko».

Artistei dagokienez, «nire
erreferentziak musikiariak
arras desberdinak dira haien
artean; alde batetik Idoia Asur-
mendi, Ken Zazpi, Eñaut Eloor-
rieta... eta bertzetik musika
katalana ere aunitz aditzen
dut, Zoo eta Txarango, adibi-
dez. Zahara eta Rigoberta
Bandini ere aunitz gustatzen
zaizkit, ematen duten *showa*-
rengatik eta eramaten duten
filosofiarengatik».

Arizmendiren ustetan, artis-
ta on bat izateko, «langilea
izan behar da, profesionalta-
suna eduki, baina kontuan
hartuta norberaren mugak,
nork lagundu gaituen eta nor
egon den hor hasmentatik.
Bakoitzaren filosofia garran-
tziua da; zergatik sortzen
dugun, norendako eta zein
itxaropenekin. Artista on bat
kontziente da egiten ari denaz,
gure gizartera zerbait ona
gehitu nahian».

Etorkizunera begira

Ikasketak akitzea eta hezkun-
tzaren munduan formatzea
du helburu Arizmendik, eta
noski, «musikarekin harreman
sano eta hurbila edukitzen
segitzea. Talde bat sortzea
gustatuko litzaidake, ez dut
denbora aunitz bakarlari
gisa segitu nahi. Musika arras
inportantea da nire egunero-
koan, eta irakasle bezala hez-
kuntzan musika sartzea gus-
tatuko litzaidake».

**«MUSIKA TALDE
BAT SORTZEA
GUSTATUKO
LITZAIDAKE»**

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BERTIZARANA-DONEZTEBE-BAZ-TAN en etxebizitza errentan hartu nahi du bikote gazte batek, lan kontuengatik denbora luzerako. Zerbait moldatu behar bada, moldatzeko prest. ☎633 49 19 96 (Sara) / 646 69 04 73 (Andres).

BAZTAN, BORTZIRIAK EDO MALLERREKAN Madrilgo 50 urteko pertsona batek etxebizitza errentan hartu nahi du. Pertsona arduratsua eta garbia. ☎626 63 53 11.

ELIZONDO n neska batek etxebizitza errentan hartu nahi du. Pertsona arduratsua eta garbia. ☎613 32 98 36.

SALGAI

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua), eta sukaldia (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

KONPARTITZEKO

BERA. Berako neska gaztea pisukide baten edo biren bila ari da. Hiru logelako pisua da, herri erdian kokatua. ☎627 28 32 09 / 638 20 05 75.

LANAK

ESKAINTZAK

DONEZTEBE. Janari denda traspasatzen da jubilazioagatik. ☎629 00 78 67.

LESKA. San Fermin Ostatuan zerbitzaria behar dute, sei orduko lanaldian aritzeko. ☎690 23 38 54.

URDAZUBI. Montxo jatetxean zerbitzariak behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. ☎848 85 00 21 / 630 22 12 08.

ARRAIOZ. Harategirako langilea behar dute. Astero txandakutzen da. Lan astearen arabera egun bat edo bi jai. Bidali curriculumak: nfm.laboral@gmail.com.

URDAZUBI. Fagoa Etxean lan egiteko bi pertsona behar dituzte. Ostaturako lanak eta bizikleta alokairuak egiteko. ☎600 83 84 48.

IBARDIN. Mendiko sagardotegian zerbitzaria behar dute 6 orduko lanaldian aritzeko. ☎948 63 03 02 / 670 36 50 11.

BERA. Edari biltegian lagun bat behar dute lanaldi osoan aritzeko, biltegian bertan eta banaketan aritzeko. ☎676 05 16 60.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

ZUGARRAMURDI. Ansalas ostatuan eta dendan aritzeko langilea behar dute. Euskaraz eta frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. ☎948 59 90 82 / 622 95 05 76.

ULTZAMA. Behitegian lagun bat behar dute lanaldi osoan aritzeko, makinariarekin ibili eta bertze lanetarako. Lanordua astero txandaka. ☎690 64 35 14.

LESKA. Andra Mari Zahar Etxean erizain, sukaldari eta laguntzaile lanetan aritzeko langileak behar dituzte. Bidali curriculumak andra-mari@lesaka.eus edo tsocial@lesaka.eus helbidera.

Teleoperadore-laguntzailea behar dute, 30 urtetik goitikoa. ☎695 85 87 29.

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen esperientzia duen emakumea zaintza lanetan ariko litzateke uztailetik aitzinera. ☎666 19 96 14.

Ekain osoan eta uztailean eta abuztuan arratsalde haurrak zaintzeko lan bila ari den neska. Irakasle ikasketak eginak. Orduen eta egunen inguruan solastatzeko prest. ☎722 25 10 83.

ELIZONDOko 18 urteko mutikoa udan haurrak zaintzen ariko litzateke. Bi urtez Dindaia fundazioak antolatutako udalekuetan, Elizondon, begirale aritutakoa. ☎629 46 66 62 (Iñaki).

SARA ETA INGURUAN (Ezpeleta eta Kanbora arte) emakume bat garbiketan edo adinekoak zaintzen ariko litzateke. Jarri harremanetan Whatsapp bidez. ☎0034 643 51 37 80.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,34
- 1.koa 5,22
- 2.koa 5,10

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,45
- 1.koa 5,31
- 2.koa 5,20

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50
- Zaldi-behorrak 2,52/2,25

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90
- 8-10 kilokoak: 6,90/7,60

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 113 €

Zerri gizona 2,025 €

Zerramak 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

DENETARIK

BORTZIRIAK. Desbrozadorekin garbiketara lanak egiten litzuzke. ☎661 43 24 27.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ETXALAR. Zakurkumeak oparitzeko. ☎686 67 31 05.



Katakumeak oparitzeko. ☎626 33 53 98.


Zakur arra opari. Ama artzain zakurra eta aita collie arrazakoa. ☎674 43 29 43.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Errepideko bizikleta salgai. Mendiz Rs3 karbono monocasco bizikleta salgai. Neurria M. Shimano 105, 50/34-11/32. ☎618 41 11 14.

'Emakumeen/nesken' bizikleta salgai. Ia batera ibili gabea, 25 km bakarrik. Berria bezala dago. Prezioa 98 euro negoziagarriak. ☎678 30 32 59 / 948 63 06 08.



Doneztebe Zerbitzugunean

25.
urterumena
zurekin ospatu nahi dugu

100€^{x10}
3 ERREGAI BALE
ZOKKETATZEN DITUGU

40€ baino gehiagoko erosketa edo enosi hartze bakoari hiru parte ematen (Doneztebe zerbitzugunean)

Club

AVIA

URTEBETETZEAK



Nerea Otxoteko Asto lesakarrak 8 urte bete ditu maiatzaren 28an. Zorionak eta muxu bat etxekoan partetik.



Narbarteko **June Martin Argainek** maiatzaren 26an 9 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez familia guziren eta bereziki Iraia ahizparen partez.

SORTZEAK

• **Udane Labeguerie,** Sarakoa, maiatzaren 1ean.

HILBERRIAK

- **Andres Baylon Sagarzazu,** Elizondokoa, maiatzaren 9an, 90 urte.
- **M^a Pilar Iturralde Illarragorri,** Elizondokoa, maiatzaren 11n, 82 urte.
- **Txamo Apezetxea Apezetxea,** Goizuetakoa, maiatzaren 12an, 55 urte.
- **Jose M^a Olano Perurena,** Leitzakoa, maiatzaren 15ean, 79 urte.
- **Juana M^a Sagaseta Inda,** Erratzukoa, maiatzaren 16an, 59 urte.
- **Juan Felix Aleman Cortea,** Iruritakoa, maiatzaren 17an, 73 urte.
- **M^a Nieves Ruiz Matxikote,** Doneztebekoa, maiatzaren 17an.
- **Txuma Cebrian Arribas,** Amaiurkoa, maiatzaren 17an, 72 urte.
- **Celestino Mutuberría Mitxio,** Saldiaskoa, maiatzaren 18an, 82 urte.
- **Carmelo Sappupo Ruiz,** Doneztebekoa, maiatzaren 18an, 62 urte.
- **Carmen Gloria Irazoki Ziganda,** Elizondokoa, maiatzaren 19an, 65 urte.
- **Jose Mari Irigoien Larralde,** Etxalarkoa, maiatzaren 20an, Kalifornian, 81 urte.

Eguneko albistek **ERRAN.EUS**en

erran.
eus

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA
ESKELAK eta HILBERRIAK %10eko deskontua TTIPI TXARTELArekin

BERAKO UDALA

Deialdia, 'Ura banatzeko sarea berritza Zalaingo biltegiko giltzen ganberatik Berako Foru plazara' proiektuaren desjabetze-aktak egiteko.

Berako Udaleko alkate-udalburuaren maiatzaren 5eko 124/2023 Ebazpenaren bidez, 'Ura banatzeko sarea berritza Zalaingo biltegiko giltzen ganberatik Berako Foru plazara' proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko eguna ezarri zen.

Ekitaldia Berako udaletxean izango da, 2023ko ekainaren 13an.

Aktak egiteko ordena eta ordutegia interesdunei jakinaraziko zaizkie, banakako zitazio-zedularen bidez.

Beran,

2023ko maiatzaren 22an
BERAKO UDALEKO
ALKATE-UDALBURUA,
Aitor Elexpuru Egaña

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

OROIGARRIA

M^a Paz Tranche Etxeberria
Igantzi - 2023/04/30



*Egun goxer hauetan
gure ondoan izan zureten
eta gure saminarekin
bat egin diezuen guztia,
eskerrik asko bihotzez*

OROIGARRIA

Txamo APEZETXEA APEZETXEA
Goizuetan, 2023ko maiatzaren 12an



*Mendia zenuen maite,
Eta maite zenuen horretan ibiltzen zinen libre,
Artikutzako pago, haritz eta haginaren babesean,
Elaman, Urdallun edo Arranakabietan.
Hala oroituko zaitugu beti gure bihotzean.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Pepita AGIRRE IRAZOKI
Bera
1927-05-02 / 2023-05-08



*Familiaren ardatza
96 urte arte
Iparrorratza
Azken bertsoa zuretzat
Bihotzez zaitugulako maite.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Juan Felix ALEMAN CORTEA
Iruña, 1950-2023



*Zuzen bidea izan da beti
zuri egitea kaso
Andre onena haritu zenun ta
guk ama hobia jaso
presarik ezta, esperantza bai
berriz biltzeko akaso
Eskerrik asko guztiagatik
Deskantsazazu Aitaxo!*

Beti gure artean egonen zara.

ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

BB
BAZTAN BIDASOA
Dienaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

OROIGARRIAK



KULTURKARI
Dienak zerbitzua | Publikazioak

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@titi.eus
www.kulturkari.com

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoltzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

IZARRA
HERRI, ZURE ONDOAN ANIMA FERLANDO




TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure buru, gure jendea, gure susturriak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

KONTATU KONTUAK



JULEN MITXELTORENA.

Pentsiodunen hilabeteroko hitzordua. Ikasturte osoan, hilabetero-hilabetero hutsik egin gabe, karrikara atera dira Baztan-Bidasoko pentsiodunak *Pentsio duina, bizi duina. Guttieneko 1.080 euroko pentsioa orain* lelopean. Hilabeteroko hirugarren astelehenetan egiten dute elkarretaratzea; maiatzekoa Donezteben egin zuten eta ekainekoa, hilaren 19an Lesakan eginen dute, 12:00etan. Ikasturte honetako azkena izanen da.



JUAN MARI BARRIOLAK UTZITAKOA

Liburu azoka Leitzan. Editargi Nafarroako Editoreen Elkartearen ekimenez, liburu azoka egin zuten maiatzaren 13an Leitzan. Zortzi argitaletxe nafarrek beraien liburuak erakusgai eta salgai jarri dituzten, eta horrekin batera, hiru libururen aurkezpenak egin zituzten. Tartean, Izaskun Zubialde zubietarrak, Bakarne Atxukarrok eta Asun Egurzak egin duten *Irulegiko eskua* liburua aurkeztu zuten.



LEITZAKO UDALA

Ixkibarko guardetxean txikizoak. Leitzako Udalak jakinarazi duenez, maiatzeko bigarren asteburuan «Ixkibarko guardetxean triskantzak egin zituzten, ate eta leiho guztiak hautsiz eta tokitik ateraz. Ez da bidezkoa denona den eta denontzat irekia dagoen guardetxean egindakoa egitea». Horiek konpontzeko lanean hasia dela gaineratu du udalak.



XABAT ILLARREGI

Agin Laburu nagusi Mingañe Saltsan bertso sariketan. Maiatzaren 19an Leitzako Torrean egin zuten Mingañe Saltsan Sariketako finala. Bigarren edizioa zen aurtengoa eta Agin Laburuk irabazi zuen, Etxahun Lekurekin buruz burukoa jokatu. Beraiekin batera, Onintza Enbeita, Millan Telleria, Aratz Igartzabal *Potto* eta Eneko Araiztegi *Korta* aritu ziren finalean, Torre erabat betea zela. Giro ederra izan zuten finalean, eta Laburuk Leitzako pestetako blusa eta pestetako jaialdian kantatzeko aukera izan zituen sarizat. Sariketa Leitzako Atekaberts Bertso Eskolak antolatu du eta hiru finalurreko eta finala egin dituzte.



AINARA SARALEGIK UTZITAKOA

Orioko hilketak matxista salatzen elkarretaratzeak Leitzan eta Beran. Maiatzaren 16an gizon batek bikotekide ohia hil eta bere buruaz beste egin zuen Orion, kale erdian. Horri erantzunez elkarretaratzeak egin dituzte eskualdean. Leitzan, Emakumeen Mundu Martxak deituta, maiatzaren 18an elkarretaratzea egin zuten plazan *Aski da, erailketa matxista gehiagorik ez* lelopean. Beran, Goldatz talde feministak deituta, maiatzaren 19an atera ziren karrikara, *Basakeria matxistak hiltzen gaitu! Aski da!* lelopean.



ARANTZA AGIRRE

ZORIONAK!
UDANE BARBERENA GAMIO

830. aleko irabazlea zara!



PLAZAN BAZAN

BAKOITZARI BEREA

Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aizurri)



Loguntzalea:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin maiatzaren 16a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whattsappera: (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

BAIETZ HAMAHIRU!


Horra Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.

DENON LANA
DA-ETA



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordена itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 8.



DENBORAREN DOMINOAN

Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

830 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Miguel Mariezkurrena | EZKURRA
Onddo ta punto - Kamisetabat
Juan Pedro Bertiz | SUNBILLA
Ezkeza - Kamisetabat
Ana Isabel Danboriena | ELIZONDO
BKZ Abentura - Sarrera bat
Eukene Xurio Arburua | ZUGARRAMURDI
WOW Park - Sarrera bat
M^a Carmen Goñi Pikabea | BERA
Mendukilo - Bi sarrera
Martin Legarra Sarrasin | ARANTZA
Mugarki - Sarrera bikoitza
Evaristo Otxandorena | GARTZAIN
Garbi - Saski bat
M^a Jesus Arregi Iturria | LEITZA
Baga-baga - Lau CD
Castillo Suarez Garcia | ALTSASU

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Poltsa bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

KUKUKA HAUR ARROPA DENDA
Zapigorotze, 1 | Donostia | Tel.: 948 45 82 52



Haurrendako lote bat

IZAR PARK
www.galaxypark.eus



Sarrera bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttipi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

LIBURUAK

Hiru liburu




erein
www.erein.eus